



**Nor ziren
nazional-
sozialisten
bikatimak?**

TOKIAN-TOKIKO IKASKUNTZARAKO TRESNA-SORTA

Baliabide-sorta honen (Nor ziren nazionalsozialisten biktimak?) helburua ikasleei nazionalsozialismoaren biktima izan ziren hainbat -talderen historia aztertzei aukera ematea da. Hain ezagunak ez diren eta agian orain arte inork kontatu ez dituen komunitateen bizipenak aztertzea eta kontatzea animatzen zaitugu, aurrerantzean istorio horiek gogoan izateko.

Bidaia honetan, tokiko historia-proiektu bat sortuko duzu zure ikaskideekin batera. Prozesuan zehar, zure jakin-mina zerk pizten duen eta zer istorio "desestali" eta ezagutarazi nahi dituzun erabakiko duzu.

Tresna-sortaren bidez, bestalde, zuek, irakasleek ikasleak ahaldunduko dituzte, eurek bere ikaskuntza-ibilbidearen eragile izan daitezzen. Horrela, tokiko historiaren ikertzaile bihurtuko dira. Erabakiak aktiboki hartuz, taldean lan eginez, ikertuz eta elkarrekin sortuz, ikasleek nazionalsozialismoaren biktimei emango diete ahotsa, haien oroimena zaintzeko eta tokiko komunitateari laguntzeko. Izan konfiantza ikasleengan eta prozesuan!

Belgika, Bosnia-Herzegovina, Danimarka, Eslovakia eta Espainiako hezitzailez eta profesionalez osatutako bost taldek dagoeneko onartu eta gainditu dute erronka. Bost taldeetako ikasleek tokiko historia-proiektu oso desberdinak sortu dituzte; izan ere, haien lana da baliabide-sortaren inspirazioa. Proiektu horiek aztertzea gonbidatzen zaitugu. Kontatu dituzten tokiko istorioak ezagutzeko aukera izango duzu, eta gida baliagarriak izango dira zure ikasleen proiektuetarako.

Baliabide-sorta Nor ziren nazionalsozialisten biktimak? proiektuaren barruan garatu da, EuroClio Europako Historia Irakasleen Elkarteak eta Max Mannheimer Ikasketa Zentroak koordinatuta.

Project of the Education Agenda NS-Injustice

Funded by:



on the basis of a decision
of the Bunderstag



A project coordinated by:



Proiektu hau Education Agenda NS-Injustice-k ahalbidetu du, EVZ Foundation Memoria, Erantzukizuna eta Etorkizuna Fundazioaren ekimenaren barne. Fundazio honek Alemanian eta Europa osoan nazionalsozialismoaren historiari buruzko hezkuntza bultzatzen du, demokrazia sustatuz eta jazarpenak jotako pertsonen memoria bizirik mantenduz.

EDUKIEN TAULA

- [1. Baliabide-sorta, begirada batean](#)
- [2. Baliabide-sorta erabiltzeko argibideak](#)
- [3. Ikaskuntza-helburuak](#)
- [4. Tokian-tokiko ikaskuntzaren bidez garatutako historia-proiektua](#)
- [5. Ikaskuntza-bidaia](#)
- [6. Tokiko historia-proiektuaren funtsezko elementuak](#)
 - 6.1 Abiarazi
 - 6.2 Ikertu
 - 6.3 Sortu
 - 6.4 Berrikusi
 - 6.5 Partekatu
 - 6.6 Hausnartu
- [7. Tokiko historia-proiektua sortzea](#)
 - 7.1 Nola has dezaket proiektua?
 - 7.2 Zer azter dezaket??
 - 7.3 Zer sor dezaket?
 - 7.4 Eta orain, zer?
 - 7.5 Nola aurkez dezaket proiektua?
 - 7.6 Nola amai dezaket proiektua?
- [8. Eskerrak](#)

[Tokiko historia-proiektuak](#)

[Historiako azalpenak](#)

[Denbora-lerroa](#)

[Mapa](#)

[Glosarioa](#)

[Elkarrizketak egiteko argibideak](#)

[Irudiak aztertzeko argubudeak](#)

[Historia Proiektu baterako webgune](#)

[eta baliabide erabilgarriak](#)

ERANSKINAK

EDUKIEN TAULA

Historia Proiektuetako adibideak

- [Belgikako taldea](#)
- [Bosnia-Herzegovinako taldea](#)
- [Danimarkako taldea](#)
- [Eslovakiako taldea](#)
- [Espainiako taldea](#)

Historiako azalpenak: Nor ziren nazionalsozialisten bikatimak

- [Nazionalsozialismoaren historia](#)
- [Nor dira biktimak?](#)
- [Nor dira kaltegileak eta nor lekukoak?](#)
- [Nazionalsozialisten kolaboratzaileak](#)
- [Nola zabaltzen da nazionalsozialismoaren biktimen memoria?](#)
- [Biktima-taldeen arteko intersekzioak](#)
- [Afrikan jatorriko pertsonak eta nazionalsozialistak](#)
- [Asiar jatorriko pertsonak eta nazionalsozialistak](#)
- ["Antisozialak" eta nazionalsozialistak](#)
- [Bortxazko lanak nazionalsozialismoaren garaian](#)
- [Buruko gaixotasunak edo dibertsitate funtzionala zituzten pertsonak eta nazionalsozialistak](#)
- [Emakumeak eta nazionalsozialistak](#)
- [Eugenia eta eutanasia nazionalsozialismoaren garaian](#)

- [Erbestea nazionalsozialismoaren garaian](#)
- [Eslaviarrak eta nazionalsozialistak](#)
- [Gutxiengo erlijiosoak nazionalsozialismoaren garaian](#)
- [Haur lapurtuak nazionalsozialismoaren garaian](#)
- [Haurrak eta nazionalsozialistak](#)
- [Ijituak nazionalsozialismoaren garaian](#)
- [Juduak eta nazionalsozialistak](#)
- [Komunistak eta nazionalsozialistak](#)
- [Lgbtqi+ pertsonak eta nazionalsozialistak](#)
- [Nazionalsozialismoaren aurkari politikoak](#)
- [Nazionalsozialismoaren gerra-presokak](#)
- [Sexu-indarkeria nazionalsozialismoaren garaian](#)

Eranskinak

- [Denborra-lerroa](#)
- [Mapa](#)
- [Glosarioa](#)
- [Elkarrizketak egiteko argibideak](#)
- [Irudiak aztertzekeko argubudeak](#)
- [Historia Proiektu baterako webgune eta baliabide erabilgarriak](#)

BALIABIDE-SORTA **BEGI- RADA BATEAN**

Tokian eta proiektuetan oinarritutako ikaskuntza ez da historia irakasteko eta ikasteko metodo berria. Hala ere, baliteke ikuspegi pedagogiko hori oso zabaldua ez egotea, batez ere historiaren gai konplexuak eta hunkigarriak jorrazteko (Europako nazionalsozialismoaren biktimak kasu). Zer eskain dezake tokian-tokiko ikaskuntzari buruzko tresna-sorta haonek? Zergatik aukeratu dugu metodo hori?

Tokiaren indarra

Tokian oinarritutako ikaskuntza ez da arte eta humanitateetara mugatzen; are gehiago, eskola-programetako jakintzagai askotan ere erabil daiteke, eta tokiko berezitasunetara moldatu. Metodo horri esker, ikasleek beren ingurune geografikoan erabat murgiltzeko aukera dute. Izan ere, bertoko lekuak bisitatuko dituzte (ondarea, museoak edo artxiboak) ikaskuntza-bidaian zehar. Ikasleen komunitateetan errotutako ikaskuntza sustatzen du, eta haien ingurune hurbila eta beraiek munduan duten lekua sakonago ulertzeko baliabideak eskaintzen dizkie. Tokian oinarritutako ikaskuntzak prozesuaren erdigunean jartzen ditu ikasleak. Beraz, esperientzia pertsonal

bihurtzen da, eta ikasleek zer, nola, noiz eta non ikasi nahi duten erabakitze askatasuna dute. Ikasgelatik eta ohiko eskola-ingurunetik kanpo ikasteko aukera ere eskaintzen die ikasleei. Izan ere, gure taldeek ikasgeletatik kanpo soilik egin daitezkeen metodoak eta jarduerak burutu dituzte ikasleekin.

Gure taldeek garatutako tokiko historia-proiektuekin batera, ikasle bakoitzak historia ikasteko duen ahalmena zabaltzeko asmoa du tresna-sortak. Helburua ikasleei herritar konprometitu bihurtzeko trebetasunak eta gaitasunak ematea da, bai komunitatean, bai gizartean oro har. Halaber, tokiko historia arakatzeko jakin-mina piztu nahi dugu, iraganak gure komunitateei nola eragin dien eta norberaren identitateak nola moldatu dituen ulertzeko. Ikuspegi horri esker, tokiko historiaren ikertzaile bihurtuko dira ikasleak. Horrela, beren interesei jarraituko diete eta ikerkuntzaren emaitzak partekatuko dituzte komunitatearekin. Era berean, Europa osoko memoria kolektiboa biziberritzeko aukera izango dute irakasleek eta ikasleek, XX. mendearen amaieran tokiko historian aktiboki parte hartu zuten eta oroitzapenaren kulturari forma eman zion herritar-tradizioarekin bat eginez.

Zergatik sortu dugu gai honi buruzko baliabide-sorta?

Zergatik behar dugu nazionalsozialismoaren eta Bigarren Mundu Gerraren historiari buruzko hezkuntza-baliabide berri bat? Europa osoan, sakon jorratzen da Bigarren Mundu Gerra Historiako ikasketa-planetan, ikasketa-maila eta ikasturte ugaritan. Hala ere, hezitzaileek eta ikasleek gutxitan aztertzen dituzte beren auzo, herri, hiri edo eskualdearekin zerikusia duten alderdiak. Alderdi horien artean, gizabanakoek eta komunitateek gertaera historikoak bizitzeko askotariko erak nabarmentzen dira, baita kontakizun horiek denboran zehar izandako interpretazio aldakorrak ere.

Sortaren helburua irakasle eta ikasleei tresnak, informazioa eta baliabide gehigarriak ematea da, nazionalsozialistek jazarri zituzten -taldeei buruzko ezagutzak zabaltzeko. Istorio horietako batzuk ez dira inoiz kontatu edo ikertu, edo ez dira beste bizipen batzuk bezain ezagunak. Nazien jazarpenari buruzko ikuspegi orokorra ahaztu gabe, ikerketan, oroitzapenaren kulturen eta Historia klaseetan baztertuta egon ohi diren biktime-taldeei ahotsa eman nahi diegu. Beraz, hau da tresna-sortaren eta tokiko historia-proiektuen ikerketa-galdera nagusia: Nor ziren nazionalsozialisten biktimak? Iraganera begiratzean, baliabide-sortak eta tokiko historia-proiektuek egungo gizarteetan injustizia eragiten duten mekanismoak eta egiturak ulertzeko aukera ematen digute. Ikasleek gizarteetan antzemandako arrazakeriaren, diskriminazioaren eta beste bazterkeria modu batzuen jatorria uler dezaten nahi dugu, eta horien aurka kontzientzia hartu.

Aztertzen ari garen gaia konplexua da. "Biktima" kontzeptua ikuspuntu kritiko batetik aztertu behar da. Hezkuntza-ingurunean kategoria diskriminatzaileak deseraikitzearen konplexutasunaz eta garrantziaz jabetu behar dugu; kasu honetan, nazionalsozialistek sortu eta erabili zituzten biktimen kategoriei buruz hitz egitean. Diskriminazioa ez errepikatzeke, egileek beren testuinguru historikoan sortu eta erabili zituzten hitzak erabili beharrean, gaur egun biktima talde ezberdinei buruz hitz egiteko erabiltzen diren termino zehatzagoak aukeratu ditugu. Iragan bortitzez eta pertsonen sufrimenduaz hitz egitea erronka emozionala izan daiteke irakasleentzat zein ikasleentzat. Beraz, zuek, irakasleak, proiektua eta gaia kontuz jorratzera gonbidatzen zaituztegu, ikasleekin batera oreka bat aurki dezazuen. Kontua da, batetik, gaiaren konplexutasuna ulertzea, eta, bestetik, adibide zehatzak aztertzea, historiarekin konektatzeko eta gertuago sentitzeko.

Baliabide-sortak nazionalsozialismoaren ideologiari eta haren biktimei buruzko oinarriko eduki historikoak eta informazioa eskaintzen dizkigu. Era berean, zuek eta zure ikasleek tokiko historia-proiektua sortzeko erabil ditzakezuen tresna praktikoak eskaintzen ditu. Gure taldeen adibideak erreferentzia hartuta, tokiko historia-proiektuak kontzeptualizatzeko ideiak eskaintzen ditu tresna-sortak, besteak beste: ikasleek zer sor dezaketen, proiektuen emaitzak nola aurkez ditzaketen eta tokiko proiektuak ikaskuntza-helburu zabalagoekin lotzeko argibideak. Horretarako, [Europako Kontseiluaren kultura demokratikorako kompetentzienerreferentzia-markoari](#), jarraituko diogu (tximeleta-eredua, alegia). Bost herrialde pilotuetako ikasleek sortu dutenaz gain, zure ikasleek lanak Europako oroitzapenaren kultura zabaltzen lagunduko du.

BALIA- BIDE-SORTA ERABILTZEKO ARGIBIDEAK

Baliabide-sortak hainbat ideia, adibide eta informazio historiko eskaintzen dizkigu, ikasleek eta irakasleek tokian-tokiko ikaskuntza-historiaren proiektuari ekin diezaioten. Irakaslea bazara, aurrera egin dezakezu hurrengo ataletara joateko [Ikaskuntza-helburuak](#), [Tokian-tokiko ikaskuntzaren bidez garatutako historia-proiektua](#), [Ikaskuntza-bidaia](#) eta [Tokiko historia-proiektuaren oinarritzko elementuak](#). Atal horietan, tokian-tokiko ikaskuntzaren metodologia aurkezten dugu, Europa osoko hainbat talderen adibideekin batera.

Ikaskuntza-bidaiak orientazio-bide orokorra eskaintzen du tokiko historia-proiekturako. Kontuan izan prozesuan zehar zu eta ikasleak orientatzeko proposamen bat baino ez dela. Ez da beharrezkoa ordenari zorrotz jarraitzea; esan beharrik ez dago ezagutzen dituzun beste ikaskuntza-estrategia batzuk (tokian oinarritutakoak) erabil ditzakezula.

Ikaskuntza-bidaian hainbat [informazio-orritarako](#) estekak aurkituko dituzu. Informazio-orriak abiapuntu bat baino ez dira: ez dute jasotzen Holokaustoaren historiari buruzko informazio guztia, ezta Europako herrialde jakin baten edo batzuen tokiko historia ere. Informazio-orri bakoitza nazionalsozialistek jazarritako -talde zehatz bati buruzko atariko informazio-iturri historikoa da. Baliabide-sortan aurreraeginez, material osagarria eta glosario bat aurkituko dituzu, termino konplexuak hobeto ulertzeko.

Ikaslea bazara, aurreragoaurkituko duzun [Tokiko historia-proiektua sortzea](#) atalera joan zaitezke. Bertan, zure kideek beren tokiko historia-proiektua partekatuko dute zurekin, berdinen arteko tutoretzen bidez. Emaiezu begiratu bat lehendabizi, zure proiektua abiarazteko lagungarriak izango baitira. Geroago, proiektuan lan egiten duzun bitartean, [informazio-orriak](#), kontsultatu ahal izango dituzu, aukeratzen duzun gaiaren arabera.

IKASKUNTZA- HELBURUAK

Tokiko historia-proiektuan aurrera egin ahala, ikasleek beren indarguneak ezagutuko dituzte, eta hainbat trebetasun eskuratuko dituzte ikaskuntza autonomoarekin, talde-lanarekin eta gizabanako bakoitzak bere ingurugiroa ulertzeko ahalmenarekin lotutakoak). Proiektu honek agerian uzten du historiaren ikaskuntza eta ikasleen eraginkortasuna baliagarriak izan daitezkeela XXI. mendeko munduan ondo moldatzeko konpetentziak garatzeko (komunikazioa, enpatia eta lankidetzak, esaterako)..

Prozesuan zehar, Holokaustoaren (tokiko) historiari eta nazionalsozialismoaren biktime-taldeei buruzko ezagutzak handituko dituzte. Baliabide-sortan aurkeztutako bost adibideetan, talde bakoitzak tokiko historia-proiekturako identifikatu dituen ikaskuntza-helburuak zerrendatu ditu. Proiektuaren ikaskuntza-helburu orokorrak garatzeko, [Europako Kontseiluaren kultura demokratikorako konpetenziaren referentzia-markoa](#) izan dugu oinarri.

Tximeleta ereduaz gain, gure taldeek honako ikaskuntza-helburu hauek identifikatu dituzte nazionalsozialisten biktimei buruzko tokiko historia-proiektua garatzeko. Hauek dira garrantzitsuenak:

- Nazionalsozialismoa zer den eta naziek bultzatutako jazarpena nola gertatu zen ulertzea
- Nazionalsozialistek pertsona jakin batzuk zergatik jazarri zituzten ulertzea
- "Nazionalsozialismoaren biktimea" kontzeptuaren konplexutasunaz eta gaur egun biktimeak gogoratzearen garrantziaz jabetzea
- Kategoriatu analitikoak (lekukoak, eskuhartzaileak egileak, biktimeak eta salbatzaileak) hobeto ulertzea
- Mugimendu estremisten eta erregimen totalitarioen arriskuez jabetzea

Values

- Valuing human dignity and human rights
- Valuing cultural diversity
- Valuing democracy, justice, fairness, equality and the rule of law

Attitudes

- Openness to cultural otherness and to other beliefs, world views and practices
- Respect
- Civic-mindedness
- Responsibility
- Self-efficacy
- Tolerance of ambiguity

Competences for Democratic Culture

Skills

- Autonomous learning skills
- Analytical and critical thinking skills
- Skills of listening and observing
- Empathy
- Flexibility and adaptability
- Linguistic, communicative and plurilingual skills
- Cooperation skills
- Conflict resolution skills

Knowledge and critical understanding

- Knowledge and critical understanding of the self
- Knowledge and critical understanding of language and communication
- Knowledge and critical understanding of the world: politics, law, human rights, culture, cultures, religions, history, media, economies, environment, sustainability

TOKIAN-TOKIKO IKASKUNTZAREN BIDEZ GARATUTAKO HISTORIA- PROIEKTUA

Tokian-tokiko ikaskuntzaren bidez garatutako Nor ziren nazionalsozialismoaren biktimak? historia-proiektua hastear zaude. Ikaskuntza eta ikerketa-lan gehienak ikasgelatik kanpo gauzatuko dira, eta ikasleek beren lanaren ardura osoa hartuko dute. Gai honi edo beste bati buruzko tokiko historia-proiektu bat sortzea zaila izan daiteke irakasleentzat eta ikasleentzat (batzuetan, hunkigarria ere izan daiteke). Prozesuan laguntzeko, gure taldeek praktika onenak eta erronka identifikatu dituzte, ikaskuntza-ibilbide bat diseinatu dute eta erabil ditzakezun hainbat baliabidejarri dituzte zure eskura. Beraz, zeintzuk dira tokiko historia-proiektua arrakastaz garatzeko funtsezko elementuak?

Funtsezko elementuak

Gazteen eraginkortasuna

Ikaskuntza-prozesuan eta ikasleengan konfiantza izatea funtsezkoa da tokiko historia-proiektuak arrakasta izan dezan. Ikasleek erabakiko dute zeri buruz ikasi nahi duten, nola ikasi nahi duten eta zer sortu nahi duten. Tokian oinarritutako historia-proiektuen helburua ikasleak ahalduntzea da haien interesak, indarguneak, ingurugiroa eta komunitateak hobeto

ezagutzeko. Horretarako, beharrezkoa da ikaskuntza-ingurune desberdin bat sortzea, ikasleek inoiz egin ez dituzten gauza berriak esperimintatu eta proba ditzaten. Ahaztu bikaintasuna. Utzi ikasleei esperientziak eraikitzen eta euren proiektuak sortzen. Utz iezaiezu beren proiektuez arduratzen!

Ikasleak adituak dira

Ikasleak tokiko historiaren eragile aktibo bihurtuko dira kontatu gabeko istorioak zabalduz eta herrikideen kontakizunei ahotsa emanez. Leku bat arakatzean (hala nola artxibo, museo edo oroimenezko leku bat), ikasleak tokiko historiaren aditu bihurtzen dira, eta, aldi berean, komunitatearekiko loturak sendotzen dituzte. Ikaskuntza-bidaiaren lehen urratsetan, ziurtatu ikasleak tokiko komunitateko pertsonekin harremanetan jartzen direla; besteak beste, historialariek, artxibozainekin, biktimekin, ekintzaileekin, kazetariekin edo ikerketan lagun diezaiekeen beste edozein pertsonarekin. Ikasleek rol desberdinak har ditzakete ikaskuntza-prozesuan. Esaterako, artxiboetan murgil daitezke eta historialariak edo bizirik dauden biktimak elkarrizketatu ditzakete. Horrela, proiektuaren emaitzak komunitatearekin partekatzeko eta oihartzuna izateko aukerak aurkituko dituzte.

Izan zaitetz ikasleen gidari!

Gazteen eraginkortasuna(hau da, ekintza-ahalmena) sustatzea ere erronka bat da irakasleentzat, ikasleen gidari-rola beren gain hartu behar baitute, ikasleak errealitatea aztertzerantz bultzatuz eta orientazioa eskainiz. Ikasgelan gaiari buruzko informazioa azaldu eta ikasleei zer egin behar duten agindu beharrean, orientabideen marko bat ezarriko duzu, eta ikasleak zer ikasi nahi duten, nola ikasi nahi duten eta ikaskideekin zer sortu nahi duten arakatzerabultzatuko dituzu. Hori lortzeko, hainbat aukera proposa diezazkiekezu: zeri buruz eta nola iker dezaketen, eta zer sor dezaketen ikaskideekin eta komunitatearekin partekatzeko. Inork baino hobeto ezagutzen dituzu zure ikasleak!


Gure taldeak eta tokiko historia-proiektuak

Ikasleen interesen eta tokiko testuinguruaren arabera, naziek jazarri zituzten -taldeei buruzko informazio historikoa erabil dezakezu abiapuntu gisa. Lehenik eta behin, gure taldeek garatu dituzten proiektuei begiratu bat ematea gomendatzen dizugu.

[Belgikako taldeko](#) ikasleek [Bringing Voices Alive and Becoming One](#) tokiko historia-proiektua garatu dute. Eskuhartzaileen eta lekukoen rola aztertu dituzte, eta biktimen (gehienak juduak) istorio pertsonalak azalatu, artxiboetan ikerketa eginez. Pertsona horiei ahotza eman diete eta haien oroitzapena bizirik mantendu dute, webgune bat sortuz. [Eslovakiako](#) ikasleek Bratislava eta Trebišov hirietako ondare- eta memoria-leku juduak arakatu dituzte. [Danimarkakoek](#) bestalde, nazionalsozialismoaren tokiko historia eta errefuxiatuek eta etorkinek gaur egun pairatzen duten gizarte-bazterketari buruzko bizipenak ezagutarazteko podcastak sortu dituzte. [Bosnia-Herzegovinako](#) eta [Espainiako](#) ikasleek erakusketak prestatu dituzte. Espainiako ikasleek nazionalsozialismoari eta biktimen bizipenei buruzko gogoeta egin dute, arrazakeriaren, diskriminazioaren eta beste gizarte-bazterketa mota batzuen egungo adibideak aztertzeko. Bosnia-Herzegovinakoek, berriz, Ustaše taldearen biktimei buruzko erakusketa ibiltaria sortu dute. Hartu behar beste denbora proiektu horiek aztertzeko eta tokian tokiko historia eta istorioak hobeto ezagutzeko. Esperientzia horietatik abiatuta, hainbat tresna eta jarduera aurkezten dizkizugu, zuen proiektua diseina dezazuen. Aukeratu hobekien egokitzen zaizuen elementua!

IKASKUNTZA- BIDAIA

Ikasleent ikaskuntza-bidaia erreferentzia-puntu gisa erabil dezakezu, ikasleak tokiko historia-proiektuaren faseetan zehar gidatzeko. Prozesu organikoa eta iteratiboa da, proiektuari ekiteko ikasgaiak prestatzen laguntzeko eta inspiratzeko. Baliteke faseak elkarren artean gainjartzea. Prozesuaren urrats bakoitza osatu ondoren egingo dugu gogoeta; beraz, hausnarketarako denbora gordetzea gomendatzen da. Gogoan izan ez dela ezinbestekoa ibilbideari zorrotz jarraitzea tokiko historia-proiektuak arrakasta izan dezan; izan ere, taldeko kide batzuek ikasleentzako ikaskuntza-bidaia egokitu dute jada. Zuk ere egin dezakezu!



TOKIKO HISTORIA- PROIEKTUAREN FUNTSEZKO ELEMENTUAK





Prestakuntza eta plangintza

Tokiko historia-proiektuak oso irekiak izaten dira; horregatik, jarduera gehienak tokiko testuinguruaren eta ikasleen interesen arabera izango dira. Hala ere, biziki gomendatzen dugu bisitatu ditzakezuen lekuak eta ikasleek beraien tokian tokiko proiektuetan erabiliko dituzten baliabideak lehenbailehen identifikatzea. Kontuan hartu beharreko urrats batzuk:

1. Talde-lana lankideekin

Tokian oinarritutako ikaskuntzari esker, ikasleak sortzaileak izan daitezke! Agian, diziplinarteko ikuspegia aukeratu nahi duzu, eta beste sail batzuetako lankideekin talde bat osatu (adibidez, Hizkuntza eta Literatura, Herritartasunerako Hezkuntza edo Arte irakasleekin). Jar zaitetz haiekin harremanetan, aukerak zein diren ikusteko.

2. Proiektuaren kronograma

Proiektuaren kronograma eskolaren arabera izango da. Ikastetxe batzuek proiektua Historia klaseetan integratzeko aukera dute, lana hainbat astetan banatuta. Hori ezinezkoa da kasu guztietan, baina proiektua gutxienez astebetetz lantzea gomendatzen dugu.

3. Baliabideak eta iturriak

Ikasleek ikerketaren gaia aukeratuko dute. Hala ere, tokiko historia erreferentzia baliagarria izan daiteke: adibidez, agian inguruko biktima gehienak juduak izan ziren. Testuinguru historikoa argia bada, errazagoa izango zaizue iturriak identifikatzea. Ikasleei laguntzeko, iturri batzuk alde aurretik presta ditzakezu, adibide gisa. Jarri harremanetan kideekin, inguruko unibertsitateekin, ikerketazentroekin, museoekin edo artxiboekin. Gehienetan, erabil ditzakezun materialak izango dituzte.

4. Bisitatzeko lekuak identifikatzea

Proiektu honetan, ikasleek ikasgelatik kanpo emango dute denbora gehiena. Hasteko, pentsatu zer leku bisitatu ditzakezuen: oroimenezko monumentuak, museoak, komunitate-zentroak, etab. Jarri haiekin harremanetan behar besteko aurrerapenez bisita bat antolatzeko, eta erabaki zer jarduera egingo dituzuen (bisita gidatuak, tailerrak...).

Proiektua abiaraztea

Nortzuk izan ziren nazionalsozialisten biktimak? proiektua abian jarri aurretik, ikasleak motibatu behar dituzu tokiko

historiaren ikertzaile bihur daitezten eta komunitatearekin lotura estuagoa izan dezaten. Proiektua Historia klaseetan landu dezakezue, hautazko ikasgai bihurtu, edo proiektuen astea antolatu eta ikasleak parte hartzera gonbidatu. Fase honetan, oso garrantzitsua da ikasleen interesa bereganatzea. Herrialdearen eta udalerraren arabera, ikasleak motibatzekeko modu desberdinak daude. Horrela, gaiarekin harreman estua garatuko dute eta informazio gehiago lortu nahi izango dute. Galdetu zer jakin nahi duten. Gertakariaren baten inguruko jakin-mina dute? Trebetasunen bat edo beste ikasi edo hobetu nahi dute? Egin galdera hauei buruzko hausnarketa:

- Zeri buruz ikasi nahi duzu gehiago?
- Nola ikasi nahi duzu?
- Zure ustez, nolakoa izango litzateke ikasteko modu ideala?
- Nola egin nahi duzu lan ikaskideekin (taldean edo bikoteka)?
- Nola lor dezakezu ikasi nahi dituzun gaiari buruzko informazio gehiago?

Fase honetan, sormenerako aukerak eta adibideak eman diezazkiekezu ikasleei. Eskaini hainbat aukera. Horrela, horien artean hautatu ahal izango dute.

Urrats bakoitzean zehar, ikasleei hausnarketa-galdera batzuk emango zaizkie. Galderak [Tokiko historia-proiektua sortzea](#) talean aurkituko dituzu. Ikasleek banaka (adibidez, ikaskuntza-erregistro bat erabiliz), binaka edo taldeka egin dezakete gogoeta, eta galdera horiei erantzun. Urrats bakoitzaren ondoren, elkarrekin hausnar dezakezue, ikasleek azalpenak ulertu dituztela egiaztatzeko.

Tresnak eta jarduerak

- Proiektuaren gutxi gorabeherako kronograma
- Bisitak planifikatzea, jarduera gehienak ikasgelatik kanpo egiten direla ziurtatzeko
- Iturriak bilatzea (artxiboetan, museoetan eta komunitate-zentroetan, edota ikertzaileekin harremanetan jarrita)
- KWL ("Badakit, jakin nahi dut, ikasi egin dut") ariketa-orria
- Adimen-mapa
- Proiektuan parte hartzea eskatzeko motibazio-gutuna
- Ikaskuntza-helburuei buruzko talde-gogoeta ikasleekin
- Ikasleentzako ikaskuntza-egunkaria

Inspirazioa

[Belgikako taldea](#)

[Bosnia-Herzegovinako taldea](#)

[Danimarkako taldea](#)

[Eslovakiako taldea](#)

[Espainiako taldea](#)



Ikertzeko unea da! Ikasleak prestatzeko, testuinguruari buruzko informazio gehiago eskain diezaiekezu. Erabili [informazio-orriak](#), bereziki hurrengoak: [Nazionalsozialismoaren historia](#), [Nor dira biktimak?](#), [Nor dira kaltegieak eta nor lekukoak?](#) eta [Nazionalsozialisten kolaboratzaileak](#). [Mapa](#) eta [denbora-lerroa](#) ere erabil ditzakezu Europako historiaren ikuspegi zabalagoa lortzeko. Hortik abiatuta, tokiko testuinguru historikoan oinarritutako kronologia egiteko eska diezaiekezu ikasleei.

Baliabide-sorta honetan askotariko biktima-taldeak aurkezten dira, baina ikasleek gehien interesatzen zaiena aukera dezakete, tokiko testuinguruaren arabera. Saiatu ikasleei biktima-talderik ez esleitzen, nahiz eta antzeko aurrekariak edo kidesasunen bat izan. Izan ere, baliteke beste talde batzuetan interesa izatea, eta agian jatorri [judua](#) edo [afrikarra](#) duten biktimei, [aurkari politikoei](#), [herri eslaviarrei](#), edo [langile gatibuei](#) buruz ikertu nahi dute. Taldeen konplexutasuna eta haien arteko elkarguneak ulertzeko, [Biktima-taldeen arteko intersekzioak](#) atera irakur dezakete. Orientabide gisa, ikerketa-galderen eta kronologiaren adibideak eman diezazkiekezu ikasleei.

Hautaketaren arabera, jarri ikasleak harremanetan aditu batekin, haren ezagutzak eta esperientzia beregana ditzaten. Esaterako, ikertzaile akademiko bat, nazionalsozialismoaren biktima bat, artxibozain bat edo kazetari bat. Proposatu ikasleei aditua [elkarrizketatzeko](#). Ziur aski, informazio gehigarria eta lehen mailako iturriak aurkitzen lagunduko dizue. Ikasleek lana nola antolatuko duten, denbora nola planifikatuko duten eta zer ikerketa-galdera mota egingo dituzten erabakitzen dutenean, ikasgelatik ateratzeko eta arakatzeko jarraitzeko prest egongo dira!

Iturriak aurkitzea oso zaila izan daiteke. Jarri harremanetan baliabideak aurkitzen lagunduko dizuten tokiko adituekin. Zure kideek tokiko adituekin edo erakundeekin harremanetan jartzen lagun diezazukete, ikasleek ikerketa hasteko behar dituzten baliabideak izan ditzaten.

Urrats bakoitzean bezala, eman ikasleei aurkikuntzei buruz hausnartzeko denbora. Entzungo dituzten istorio batzuek eragin emozional handia izan dezakete. Eman denbora ikasleei informazioa barneratzeko eta ikerketaren hasierako galderei buruz hausnartzeko. Bitartean, aurkitu duten informazioa nola partekatu nahi duten pentsa dezakete. Nola partekatu nahi dituzte istorioak tokiko komunitatearekin?

Tresnak eta jarduerak

- Informazio-orriak: [Nazionalsozialismoaren historia, Nor dira biktimak?, Nor dira kaltegileak eta nor lekukoak?](#) eta [Nazionalsozialisten kolaboratzaileak](#)
- [Informazio-orriak](#): nazien jazarpena pairatu zuten -taldeak
- Informazio-orria: [Biktima-taldeen arteko elkarguneak](#)
- [Bigarren mailako iturriak \(baliabideak\)](#): filmak, liburuak, eleberri grafikoak, poemak eta abar hautatzea.
- Lehen mailako iturriak (argazkiak, testigantzak, egunkariak, etab.)
- [Irudiak aztertzeko argibideak](#)
- [Elkarrizketak egiteko argibideak](#)
- Gorrotoaren triangelua
- [Genozidioaren hamar faseak](#)
- Tokiko informazio-iturrietara jotzea: artxiboak, liburutegiak, museoak, etab.
- Ikerketaren xedea eta galderak zehaztea
- Hausnarketa

Inspirazioa

[Belgikako taldea](#)
[Bosnia-Herzegovinako taldea](#)
[Danimarkako taldea](#)
[Eslovakiako taldea](#)
[Espainiako taldea](#)





Ikasleek sortu dezaketena

Ikerketa amaitutakoan, ikasleek ikaskuntza-bidaiaren hurrengo faseari ekingo diote, emaitzak munduari ezagutarazteko. Abiarazi fasean, hainbat aukera aztertu dituzue. Orain ikasleei dagokie zer sortu nahi duten erabakitzea. Podcast bat, erakusketa bat edo webgune bat izan daiteke, gure taldeek egin duten bezala. Nolanahi ere, fase honetako (eta gainerakoetako) elementurik garrantzitsuena ikasleak proiektuaz erabat arduratzen direla ziurtatzea da. Baliteke azken emaitza bikaina ez izatea, eta hori ondo dago. Gidari gisa, lagundu ikasleei behar dutenean. Agian laguntza beharko dute materialak inprimatzeko, bideo bat grabatzeko edo beste edozein egiaztapen egiteko. Prozesua korapilatsua izan daiteke, eta hori ere ondo dago.

Tresnak eta jarduerak

- Erakusketak
- Podcastak
- Webguneak
- Mapa interaktiboak
- Dokumentalak
- Antzezlanak
- Eleberri grafikoak
- Artelanak

Inspirazioa

[Belgikako taldea](#)

[Bosnia-Herzegovinako taldea](#)

[Danimarkako taldea](#)

[Eslovakiako taldea](#)

[Espainiako taldea](#)



Gogoan izan ikaskuntza-bidaia prozesu iteratiboa dela. Hau da, etapa bakoitzean, ikasitakoari buruz hausnartzeko eskatzen zaie ikasleei. Puntu honetan, ikasleak lanetik urrundu daitezke, atzerapausoa eman, beren ikerketen aurkikuntzei buruz hausnartu eta erabaki nola islatuko dituzten hauek proiektuaren azken ekoizpenean.

Ikaskuntza-helburuak eta ikerketa-galderak berrikus ditzakete, eta horiek hobetzen saiatu. Ariketa gidatuak gela osoaren aurrean egin daitezke, taldeka edo banaka. Eskatu ikasleei ikaskuntza-bidaiari buruzko hausnarketa egiteko. Horretarako, honelako galderai erantzun diezaiekete:

- Aurkitu nahi nuena aurkitu al dut?
- Ikerketa-galderei erantzun al diet?
- Lortu dudan informazioa nahikoa da proiektua sortzen eta partekatzen jarraitzeko?
- Informazioa falta zait?
- Zeinen gustura nago nire kideekin sortzen ari naizen lanarekin?
- Zeinen gustura nago talde-lanarekin?
- Badago hobetu nahi dudan zerbait?

Erantzunen arabera, ikasleak aurreko faseetara itzul daitezke, gehiago ikertzeko (beharrezkoa bada) edo ikuspegia eta ikerketa-galderak hobetzeko. Agian proiektuan eta taldean betetzen ari diren rolak birpentsatu nahi dituzte, edo ikerketa-lanaren azken ekoizpena aldatu. Nahi izanez gero, ikasleek ikaskuntza-bidaiari buruzko oharrak har ditzakete, edo egunkari bat idatzi, beren aurrerapenaren jarraipena egiteko. Gogoratu miaketa-bidaia prozesu irekia dela, eta korapilatsua izan daiteke. Kontuan izan berrikuspenak denbora eskatzen duela eta etengabeko prozesua dela.

Tresnak eta jarduerak

- Hausnarketa-saio gidatua
- Berdinen arteko hausnarketa-saioak
- Ikaskuntza-egunkaria
- KWL ariketa-orria

Inspirazioa

[Belgikako taldea](#)
[Bosnia-Herzegovinako taldea](#)
[Danimarkako taldea](#)
[Eslovakiako taldea](#)
[Espainiako taldea](#)



Emaitzak prest daudenean, proiektua kanpoko munduarekin partekatzeko unea da! Proiektuak ezagutzera emateko helburu nagusia ikasleek egin duten lanaren eragin soziala maximizatzea da. Horrela, herritar aktibo bihurtuko dira komunitatean, eta tokiko historiari eta oroitzapen-ahaleginari lagunduko diete. Proiektuek eragina izan dezaten, biktimen istorio pertsonalak jasotzen dituen webgune bat argitara daiteke. Halaber, baliozko aukera da emaitzak ikasle gazteagoi edo helduagoi aurkeztea, edo komunitate-zentro edo herriko liburutegi batean ikusgai jartzea. Zure esku dago aukera guztiak aztertzea! Gonbidatu ahalik eta pertsona gehien aurkezpenera: ikasleak, irakasleak, gurasoak, anai-arrebak, lagunak eta komunitateko kideak. Ikasleek oso gogor egin dute lan, eta guztion aitorpena merezi dute.

Tresnak eta jarduerak

- Erakusketaren inaugurazio ekitaldia eskolan
- Erakusketa hainbat leku, komunitate-zentro, museo eta liburutegitara eramatea
- Berdinen arteko ikaskuntza-jarduerak: Emaitzak ikaskideei aurkeztea eta tailerrak antolatzea
- Webgunearen aurkezpen-ekitaldia
- Podcastak igortzea

Inspirazioa

[Belgikako taldea](#)

[Bosnia-Herzegovinako taldea](#)

[Danimarkako taldea](#)

[Eslovakiako taldea](#)

[Espainiako taldea](#)



Proiektua amaitu ondoren, hausnartzeko unea da! Hasieran ikasleak proiektua bideratzeko erabili dituen hausnarketa-galderak (edo antzekoak) berreskura ditzakezu. Oraingoan, ikasleek ikaskuntza-erperientzia osoari buruzko gogoeta egin beharko dute. Horrela, emaitzak Abiarazi fasean identifikatu zenituzten ikaskuntza-helburuekin alderatu ahal izango dituzte. Hartu behar beste denbora honako puntu hauei buruz hausnartzeko:

- Zer ikasi dut proiektuari esker?
- Zer trebetasun garatu ditut?
- Zentzurik izan al du ikerketak?
- Gaiari edo tokiko komunitateari buruz ezer berririk ikasi al dut?
- Zerbait beste modu batera egin behar zenuela uste duzu?

Tresnak eta jarduerak

- Hausnarketa-saio gidatua
- KWL ariketa-orria

Inspirazioa

[Belgikako taldea](#)
[Bosnia-Herzegovinako taldea](#)
[Danimarkako taldea](#)
[Eslovakiako taldea](#)
[Espainiako taldea](#)

TOKIKO HISTORIA-PROIEKTUA-SORTZEN

Nor ziren nazionalsozialisten biktimak? tokiko historia-proiektua hastear zaude. Prozesuan zehar, inguruko biktimen istorioak eta bizipenak ezagutuko dituzu. Agian Historia klaseetan landu duzu gaia. Era berean, baliteke nazionalsozialismoari buruz ikasten duzun lehen aldia izatea. Nolanahi ere, nazionalsozialismoaren eta biktimen historia konplexua da. Zergatik jazarri eta hil zituzten naziek hainbeste pertsona? Zer eragin izan zuen horrek komunitateetan? Nonantzemanditzakegu gaur egun iraganaren aztarnak? Horri buruz ikastea esperientzia hunkigarria izan daiteke. Proiektu honetan, historialari baten larruan jarriko zara, tokiko biktimen istorioetan murgilduko zara eta hainbat leku arakatuko dituzu. Aurkituko dituzun istorioetako batzuk ezagunak dira; beste batzuk, berriz, ez dira hain ezagunak edo ezezagunak ere izan daitezke. Zure esku dago istorio horiek ezagutzea eta zure ikaskideekin, irakasleekin, lagunekin eta komunitatearekin partekatzea.

Europa osoko bost ikasle-taldek tokiko historia-proiektu bana sortudute. Nazionalsozialismoaren biktimen historia ezagutu dute, oroimenerako lekuak bisitatu dituzte eta arrazismoaren, diskriminazioaren eta beste gizarte-bazterketa mota batzuen egungo mekanismoei buruzko gogoeta egin dute. Eman begiratu bat [Belgika](#), [Bosnia-Herzegovina](#), [Danimarka](#), [Eslovakia](#) eta [Espainiako](#), taldeen lanari. Haien sormena aparteko bidelagun izan dezakezu.

Proiektua errazago egituratzeko, ikaskuntza-bidaia hainbat fasetan bana dezakezu:

Abiarazi: Eztabaidatu eta erabaki ikaskideekin zeri buruzko informazio gehiago lortu nahi duzuen, eta aztertu zer trebetasun hobetu nahi dituzuen.

Ikerteta: Ikertzeko unea da! Sakonago aztertu nahi duzun biktima-talde bat hautatuko duzu, ikerketa-galderak prestatuko dituzu, iturriak bilatu eta aztertuko dituzu eta tokiko historiaren proiekturako garrantzitsuak diren lekuak bisitatuko dituzu.


Sortu: Ikertzen amaitu duzu? Sortzeko unea da! Ikerketaren emaitzak proiektuan islatuko dituzu.

Berrikusi: Unetxo bat hartuko duzu orain arte egindako bideari buruz ikaskideekin hausnartzeko. Atal honetan, agian gehiago ikertzea edo azken ekoizpenaeditatzea erabakiko duzue. Kontuan izan gogoeta urrats bakoitzaren zati garrantzitsua dela. Horretarako urrats bakoitzaren ondoren hausnarketa-galdera batzuk aurkituko dituzu, banaka edo taldean erantzuteko.

Partekatu: Zure lana eta proiektuaren emaitzak mundura aurkeztuko dituzu, tokiko komunitatean ahalik eta eragin handiena izan ditzaten.

Hausnartu: Egindako ikaskuntza-ibilbideari begiratu diozu eta Abiarazi fasean identifikatu zenituen ikaskuntza-helburuei buruz hausnartuko duzu.

IKASKUNTZA- BIDAIA





Egin klik beheko irudian eta ikasi Danimarkako kideek nola hasi zuten proiektua!



Nola has dezaket proiektua?

Proiektu hau ohiko historia klaseen, hautazko irakasgai baten edo proiektuen astearen parte izan daiteke; edonola ere, ikerketaren galderatik abiatuta hasiko zara hausnartzen: Nortzuk izan ziren nazionalsozialisten biktimak? Zure ikaskideekin batera, abiarazi ideia-jasa: zer dakizu gaiaz? Alderdiaren bat sakonago aztertu nahi duzu? Zerk erakartzen zaitu? Zerk pizten dizun jakin-mina? Zer dakizu zure komunitateko biktimen historiari buruz? Baliteke trebetasun jakin batzuk garatu nahi izatea, eta leku jakin batzuk bisitatu edo inguruko pertsona batzuekin hitz egin nahi izatea. Zer ikasi nahi duzu? Zu zeu izango zara ikaskuntza-bidaiaren gidaria: zuk aukeratuko duzu zer ikasi nahi duzun, nola ikasi nahi duzun eta zer sortu nahi duzun. Irakaslea hortxe egongo da gidaritza lanetan proiektua prestatzeko laguntza behar duzunean. Bidaia korapilatsua izan daiteke, eta denbora gehiena ikasgelatik kanpo emango duzu. Fase honetan, agian ez duzu zehatz-mehatz jakingo zer egingo duzun, eta hori ondo dago!

AHOLKUA: Ikasitakoaren jarraipena egiteko, ikaskuntza-egunkari bat sor dezakezu, dela adimen-mapa bat, dela ohiko egunkari bat, dela eskema bat. Irakasleek beste adibide batzuekin lagunduko dizute.

Tresnak

- KWL ("Badakit, jakin nahi dut, ikasi egin dut") ariketa-orria (galdetu irakasleari)
- Ikaskuntza-helburuei buruzko talde-egtabaidea
- Ikaskuntza-egunkari bat sortzea (eskatu orientazioak irakasleari)

Hausnarketa-galderak

- Zer dakit nazionalsozialismoaren biktimei buruz?
- Zer jakin nahi dut tokiko komunitateko nazionalsozialismoaren biktimei buruz?
- Zer trebetasun garatu nahi ditut?
- Nola egin nahi dut lan ikaskideekin (taldean edo bikoteka)?
- Zer sor dezaket?

Inspirazioa

- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Belgikako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Bosnia-Herzegovinako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Danimarkako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Eslovakiako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Espainiako taldea



Zer azter dezaket?

Irakaslea proiektuari, egutegiari eta helburu orokorrei buruz mintzatu da. Orain, tokiko historia-proiektuaren ikerketa-faseari ekiteko unea da: Ikertu! Ikerketa prestatzeko, joan informazio-orri hauetara: [Nazionalsozialismoaren historia](#), [Nor dira biktimak?](#) eta [Nor dira kaltegileak, nor lekukoak](#) eta [nor kolaboratzaileak?](#). Orrietan, nazionalsozialismoari eta, oro har, biktimei buruzko informazio historikoa aurkituko duzu. Historialari gisa, denboran zehar bildutako ezagutza-ondarea zein den jakin nahiko duzu, orain arte aztertu gabeko alderdiak identifikatzeko. Era berean, lagungarria izan daiteke [denborra-lerroati](#) eta [mapari](#), begiratu bat ematea, edo Bigarren Mundu Gerrak zure inguruan izan zuen historiari buruzko kronologia bat sortzea. Zure interesen eta tokiko testuinguruaren arabera, -talde bat aukeratzeko eta haien bizipenei buruz gehiago ikasteko unea izango da.

[Informazio-orriek](#) nazionalsozialismoaren biktimei eta [biktimen taldeen arteko elkarguneei](#) buruzko informazio historikoa emango dizute. Ez ahaztu ikerketa-galderak prestatzea: zer jakin nahi duzu aztertzen ari zaren biktimei buruz? Hainbat iturritara jo dezakezu ezagutzak zabaltzeko: liburuak, filmak, podcastak,

[adituei egindako elkarrizketak](#), edo [beste baliabide osagarri batzuk](#). Informazio asko aurkituko duzu bisitatzen dituzun lekuetan: museoak, oroimenezko monumentuak, artxiboak edo komunitate-zentroak, besteak beste. Hitz egin gidariekin, miatu ikusten dituzun objektuak eta ezagutu zure ingurua.

Behar zenuen informazioa bildu duzu. Eta hurrena, zer? Ikerketa-galderetara itzultzeko unea da. Uste duzu galderei erantzun ahal izango diezula bildutako informazioarekin? Hartu behar beste denbora hausnartzeko eta ezagutu dituzun istorioak barneratzeko. Hurrengo fasea prestatzeko, hasi pentsatzen nola antolatuko duzun informazioa. Zer nolako istorioak ezagutarazi nahi dituzu zure komunitatean?

Tresnak

- [Mapa](#)
- [Denbora-lerroa](#)
- [Nazionalsozialismoaren historia](#)
- [Nor dira kaltegileak eta nor lekukoak?](#)
- [Biktima-taldeen arteko elkarguneei](#)
- [Informazio-orriak](#)
- [Irudiak aztertzeko argibideak](#)
- [Material gehigarriak](#)
- [Baliabide gehigarriak](#)
- [Elkarrizketak egiteko argibideak](#)

Hausnarketa-galderak

- Nola antolatuko dut ikerketa?
- Zeintzuk dira ikerketa-galderak?
- Non bila ditzaket iturriak?
- Nola egiten da lan iturriekin?
- Zer ikasi dut bisitatu ditudan lekuetan?

Inspirazioa

- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#)
Belgikako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#)
Bosnia-Herzegovinako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#)
Danimarkako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#)
Eslovakiako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#)
Espainiako taldea



Egin klik irudian Belgikako ikasleek beren gaia nola aztertzen duten ikusteko!



Zer sor dezaket?

Ikerketa amaitu ondoren, sortzeko unea da! Agian argi izango duzu ondorioak nola aurkeztu nahi dituzun. Hala ez bada, eman beste begiratu bat Europako ikaskideen lanei. Zure irakasleak ere adibide batzuk eman diezazkizuke, horien artean aukeratzeko. Ziurtatu lana alde zuzenetik planifikatzen duzula, eta egiaztatu zer material eta baliabide behar dituzun (eta zeintzuk eskura ditzakezun). Aukera ugari daude ikerketaren emaitzak aurkezteko eta aztertu dituzun biktimen bizipenak ezagutarazteko. Pentsatu nola eta non aurkeztu nahi duzun informazioa, eta hartzaileak nortzuk izango diren. Galdera horiei erantzunez, errazagoa izango zaizu proiektuaren emaitza zabaltzea.

Tresnak

- Erakusketak
- Podcastak
- Webguneak
- [Mapa interaktiboak](#)
- Dokumentalak
- Antzezlanak
- Eleberri grafikoak
- Artelanak

Hausnarketa-galderak

- Nola aurkeztu nahi ditut proiektuaren emaitzak?
- Zer behar dut azkeneko proiektua sortzeko?
- Nola antolatuko dut lana?


Inspirazioa

- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Belgikako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Bosnia-Herzegovinako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Danimarkako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Eslovakiako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Espainiako taldea



Eta orain, zer?

Hausnarketa tokiko historia-proiektuaren fase bakoitzean egiten da. Egindako ikerketarekin eta lortutako emaitzarekin gustura zaudela egiaztatzean datza fase honen berrikuspena. Proiektuaren emaitza aztertzen duzun bitartean, baliteke informazio gehiago behar duzula pentsatzea. Ez kezkatu! Prozesuan atzera egin dezakezu eta pixka bat gehiago ikertuproiektuarekin jarraitu aurretik. Baliteke, halaber, beste gai edo biktimatalde bati buruzko informazio berriren bat aurkitu izana (jakin-mina pizten dizun zerbait). Berriz ere, ez kezkatu! Denbora eta gogoia izanez gero, sakonago aztertzen jarrai dezakezu.



Egin klik irudian Eslovakiatik etorritako kideek zer ikasi duten jakiteko!

Hausnarketa-galderak

- Ikerketa-galderei erantzun al diet?
- Nahikoa informazio dut proiektuaren aurkezpena sortzen hasteko?
- Bada sakonago aztertu nahi dudan beste zerbait?

Inspirazioa

- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Belgikako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Bosnia-Herzegovinako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Danimarkako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Eslovakiako taldea
- [Tutoretza](#) & [tokiko historia-proiektua](#) Espainiako taldea



Nola aurkez dezaket proiektua?

Zuk eta zure ikaskideek oso gogor egin duzue lan tokiko historia-proiektua aurrera ateratzeko! Gutxi falta da amaitzeko! Munduari ezagutzera emango diozuen proiektu zoragarri bat sortzen lagundu duzu. Tokiko komunitatearekin konektatzeko, nazionalsozialismoaren biktimen istorioak ezagutarazteko eta elkarrekin hausnartzeko aukera duzu orain. Egindako ikerketari eta horren emaitzari esker, biktimei ahotsa emango diezu. Tokiko historiari ekarpen handia egingo diozu, eta komunitatean eragina izango duzu. Gonbidatu herrikideak iraganeko historiak entzutera, eta hausnartu nola egin diezaiokezuen aurre arrazismoari, diskriminazioari eta bazterkeriari, etorkizunean horiek saihesteko. Ikuspegi praktikotik, eta zure proiektuaren arabera, aztertu zer prestatu behar duzun. Adibidez, podcastak sortu badituzu, pentsatu nola argitaratu nahi dituzun. Erakusketa bat antolatzen ari bazara, bilatu ikusgai jartzeko leku desberdinak. Planifikatu alde aurretik eta eskatu aholkua irakasleari.

Hausnarketa-galderak

- Nortzuk dira proiektuaren hartzaileak?
- Nola irits naiteke haiengana?
- Zein da helarazi nahi dudan mezu nagusia?
- Nola egon naiteke haiekin harremanetan?

Inspirazioa

- [Tutoretza & tokiko historia-proiektua](#) Belgikako taldea
- [Tutoretza & tokiko historia-proiektua](#) Bosnia-Herzegovinako taldea
- [Tutoretza & tokiko historia-proiektua](#) Danimarkako taldea
- [Tutoretza & tokiko historia-proiektua](#) Eslovakiako taldea
- [Tutoretza & tokiko historia-proiektua](#) Espainiako taldea



Nola amai dezaket proiektua?

Fase bakoitzean hausnarketa egin duzun arren, proiektua amaitzeko hausnarketa-ariketa sakonagoa egingo dugu. Hainbat modutan egin daiteke ariketa: banaka, taldeka edo ikasgela osoarekin. Irakasleak aukera batzuk proposa ditzake. Urrats honetan, ikaskuntza-ibilbideari buruz hausnartzea proposatzen dizugu. Horretarako, atzera begiratu beharko duzu, eta Abiarazi fasean identifikatutako ikaskuntza-helburuei erreparatu. Gidagalderek gogoetakegituratzeko lagun diezazukete. Hainbat gauzari buruz hausnar dezakezu: ikaskuntza-helburuak, eskuratu dituzun ezagutzak, ikaskideekin lan egiteko modua eta elkarrekin aurkeztu duzuen proiektua. Zerk eman dizu atentzio gehien? Beste modu batera egingo zenuke zerbait?

Hausnarketa-galderak

- Lortu al ditut ikaskuntza helburuak?
- Nolako gaitasunak garatu ditut?
- Zein izan da proiektuaren zatirik garrantzitsuenak?
- Eta zein zailena?
- Beste modu batera egingo nuke zerbait hurrengoan?

Inspirazioa

- [Tutoretza & tokiko historia-proiektua](#) Belgikako taldea
- [Tutoretza & tokiko historia-proiektua](#) Bosnia-Herzegovinako taldea
- [Tutoretza & tokiko historia-proiektua](#) Danimarkako taldea
- [Tutoretza & tokiko historia-proiektua](#) Eslovakiako taldea
- [Tutoretza & tokiko historia-proiektua](#) Espainiako taldea



Egin klik beheko irudian ikusteko nola hausnartzen duten ikasle espainolek bertako historia proiektuari buruz!

TOKIKO HISTORIA-PROIEKTUAK



T WIL JE VERANDEREN?

Handwritten notes on pink sticky notes under the heading "T WIL JE VERANDEREN?". The notes are scattered and mostly illegible due to blurring and the angle of the shot.

WAT WIL JE VRAGEN?

Handwritten notes on pink sticky notes under the heading "WAT WIL JE VRAGEN?". The notes are scattered and mostly illegible due to blurring and the angle of the shot.

BELGIKAKO TALDEA

Bringing Voices Alive and Becoming One

Zortzi astetan zehar, LAB Gedreven Onderwijs ikastetxeko (Puurs-Sint-Amands, Belgika) ikasleek biktima juduen, ijitueneta ezkutatutako haurren bizipen pertsonalak arakatu zituzten. Lekuko, aurrehartzaileeta eguneroko heroiengan jarri zuten arreta. Nola bilakatzen da norbait aurrehartzaile? Ikasleek elkarrekin lan egin zuten webgune bat sortzeko eta ikerketen emaitzak partekatzeko: [Bringing Voices Alive and Becoming One](#). Ann-Katrien de Clippele irakaslearen eta Isabelle Diependaele [Kazerne Dossin](#) museoko hezkuntza-zabalkunderako koordinatzailearen laguntza izan zuten. Museoa Belgikako Malinas hirian dagoen oroimen-lekua da, eta Holokaustoa eta Giza Eskubideak ikertzea du helburu.

Proiektuaren iraupena: Zortzi aste

Ikaskuntza-helburuak

- Bigarren Mundu Gerraren eta nazionalsozialismoaren historiari buruzko ezagutzak zabaltzea
- Nazionalsozialismoaren biktimei buruz ikertzeko eta lehen mailako iturriekin lan egiteko trebetasunak garatzea
- Kontzientziazioa eta pentsamendu kritikoa sendotzea
- Gorrotoaren, arrazakeriaren, diskriminazioaren eta bazterkeriaren mekanismoak ezagutzea
- "Protestaria" eta "lekuko aktiboa" bezalako kontzeptuak ikastea, egungo bazterkeria-mekanismoen aurka egiteko

Jarduerak

Tokiko historia-proiektuari ekiteko, hizpide dugun gaiari buruzko atariko saio bat egin zen: "Nortzuk izan ziren nazionalsozialismoaren biktimak?" Jarraian, ikaskuntza-helburuei, Bigarren Mundu Gerrari eta Holokaustoari buruz mintzatu ziren partaideak, arreta Belgikan jarri eta denbora-lerro bat erabiliz. Ikasleek Stantonek formulatutako genozidioaren hamar faseak ere aztertu zituzten erreferentzia gisa, eta inklusio-eta bazterketa-egoerei buruzko tailer batean parte hartu zuten. Ikerketa fasea prestatzeko, Kazerne Dossin museoa bisitatu zuten lehen aldiz. Bisitaldia gogoeta-ariketa batekin hasi zen museoaren sarreratik gertu, monumentu bihurtutako tren-bagoi baten ondoan. Kazerne Dossin museoan, bestalde, Regina Sluszny-ren istorioa ezagutzeko aukera izan zuten ikasleek. Holokaustotik bizirik atera zen (ezkutatutako) neska bat izan zen.

Lau astetan zehar, ikasleek nazionalsozialismoaren hainbat biktimen kasuak aukeratuzituzten, horien bizipenak lau taldeetan aztertzeko. Ikerketa-galdera nagusiaz gain, galdera zehatzakegin zituzten kasu bakoitzaren arabera, ikerketa egituratzeko. Ikerketaren funtsezko zati bat artxiboaren iturriak aztertzea izan zen. Analisia errazteko, Ann-Katrienek eta Isabellek ariketa eta galdera orientagarriak prestatu zituzten. Lehen mailako hainbat iturri erabili ziren: irudiak



Regina Sluszyk bere istorioa partekatu zuen LAB Gedreven Onderwijs ikastetxeko ikasleekin, Kazerne Dossin museoan.

eta argazkiak, jaiotza-ziurtagiriak, polizia-txostenak eta ezkontza-ziurtagiriak, esaterako.

Proiektuaren hurrengo urratsa Kazerne Dossin museoan bisita gidatua egitea izan zen. Bertan, ikertzen ari ziren Bigarren Mundu Gerrako biktimen bizipenak tokiko eta Belgikako historiarekin lotzeko aukera izan zuten ikasleek.


Eskolan, Eguneroko heroiak izeneko tailer batean hartu zuten parte, ikerketaren galdera honi erantzuten saiatzeko: nola egin aurre "lekuko efektuari"? Helburua tokiko historia-proiektuak orainarekin lotzea eta iraganari buruz hausnartzea izan zen, egungo gizartean norbait lekuko nola bihur daitekeen aztertzeko, eta arrazismoa, diskriminazioa eta bazterkeria ahalbidetzen dituzten mekanismoak indargabetzeko. Tokiko historia-proiektuaren azken bi asteetan, ikasleek aztertutako kasuen eta bizipen pertsonalen bilduma bat [Bringing Voices Alive and Becoming One](#), sortu zuten ikerketaren emaitzak aurkeztu eta partekatzeko.

Erronkak

Ann-Katrienek eta Isabellek tokiko historia-proiektua garatzean izandako hainbat zailtasun azaldu zituzten. Adibidez, denboraren plangintza. Biek azpimarratu zuten denboraren garrantzia, proiektua, jarduerak eta iturriak behar bezala prestatu ahal izateko. Egutegi orokorrari dagokionez, proiektuen astea antolatzea gomendatu zuten, askotariko jarduerekin, hausnarketa-uneekin eta terapia emozionalarekin. Ann-Katrienen eta Isabelle esanetan, garrantzitsua da ikasleek aukera ugari izan ditzaten, ikerketa-fasean perspektiba hartzeko eta testuinguru historiko orokorra kontuan izateko.

Ann-Katrienek adierazi zuen datorren urtean Nor ziren nazionalsozialisten biktimak? proiektua berriro egiteko asmoa duela. Hala ere, uste du ikasleek denbora gehiago behar dutela jarduerak behar bezala planifikatzeko (adibidez, emaitzak zabaltzeko eta tokiko komunitatearekin partekatzeko).

Gogoeta egiteko jarduera Kazerne Dossin museoan: tren-bagoia arakatzten.



BOSNIA- HERZEGOVINAKO TALDEA

Bosnia-Herzegovinako taldearen tokiko historia-proiektuak naziek eta Ustaše talde kolaboratzaileak Europako hego-ekialdeko eskualde horretan (orduan Kroaziako Estatu Independentea izenarekin ezaguna) jazarri zituzten haur, emakume eta beste biktima zibilengan jarri zuen arreta. Tatjana Jurić eta Branka Ljubojević irakasleen gidaritzapean, Banja Luka hiriko ikastetxeko 18 ikaslek hartu zuten parte eskolaz kanpoko proiektu honetan. Ikerketaren galderarekin lotutako hainbat leku bisitatu zituzten, eta erakusketa (ibiltari) bat sortu zuten. Irakasleek proiektua diziplinarteko ikuspegi batetik garatzea erabaki zuten, honako alderdi hauek barne hartuta: literatura, sormenezko idazketa eta sormenarekin erlazionatutako beste adierazpide batzuk.

Proiektuaren iraupena: 40 lanordu eta sei bilera hiru hilabetez zehar

Ikaskuntza-helburuak

- Biktimekiko enpatia adieraztea eta haien oroimena zaintzea
- Nazismotik bizirik atera ziren pertsonak, biktimak, salbatzaileak eta askatzaileak gogoratzearen garrantziari buruzko kontzientziazioa areagotzea
- Muturreko mugimendu erradikalen eta erregimen totalitarioen mehatxuari buruzko kontzientziazioa areagotzea
- Antisemitismoaren, diskriminazioaren, xenofobiaren eta gaur egun ematen diren beste gorroto-modu batzuen aurka sentsibilizatzea
- Giza eskubideen errespetua sustatzea

- Norbanakoaren erantzukizuna eta herritartasun-zentzua sustatzea
- Pentsamendu kritikoa eta jakin-min intelektuala sustatzea
- Pentsamolde irekia garatzea
- Ikaskuntza autonomorako, ikerketarako eta lankidetzarako trebetasunak garatzea
- Azterketa- eta aurkezpen-trebetasunak garatzea

Jarduerak

Tailerra

Lehenengo tailerra ikastetxean bertan antolatu zen. Ikasle bakoitzak KWL ("Badakit, jakin nahi dut, ikasi egin dut") ariketa-orri bana jaso zuen, proiektu osoan zehar bidelagun izateko. Errendimendua neurtzeko, proiektuaren urrats bakoitzean oharrak hartzea gomendatu zitzaien ikasleei. Taldeak denbora-lerrointeraktibo

Denbora-lerrointeraktiboa eskolan



batekin eta ikuspegi ugari erakusten zituzten iturriekin ere lan egin zuen. Horrela, nazien erregimenaren politiken, Bigarren Mundu Gerraren eta Ustaše taldeak Kroaziako Estatu Independentean ezarri zituen politiken arteko lotura tematikoak antzemateko aukera izan zuten. Diziplinarteko ikuspegia garatzeko, ikasleak gertaera berari buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen zituen rol-joko batean aritu ziren, Jovan Babic egilearen New-Age Draculas liburuan oinarrituta.

Bisitaldia: Banja Luka hiriko Arie Livne kultur zentro judua

Zoran Pejašinović historialariak Banja Luka hiriko kultur zentroan ikusgai dagoen juduen historiari buruzko erakusketa aurkeztu zien ikasleei. Era berean, erakusketa interpretatzeko ideiak eman zizkien, baita hura diseinatu zeneko inguruabar zailak ere. Ikasleek erakusketa bisitatu zuten iturri historikoak eta bizipen edo dokumentu pertsonal hunkigarriena aurkitzeko zereginarekin; gero, aukeraketa azaldu behar izan zuten. Ikasleek gehiago ikasteko historia juduari buruzko filmak ikusteko interesa erakutsi zuten, eta irakasleen iradokizunak jaso zituzten etxean ikusteko.

Bisitaldia: Šargovac herriko lehen hezkuntzako eskola eta Drakulić herriko memoria-lekua

1942an Ustaše taldeak lehen hezkuntzako 52 ikasle serbiar hil zituela jakin zuten Eslovakiako taldeko kideek, eta hildakoak gogoratzeko ekimenak aztertu. Eskolako zuzendariarekin hitz egiteko aukera izan zuten, eskolako oroitzapenezko monumentuari buruzko galderak egiteko. Bisitaren ondoren, ikasleek gertakari historikoari buruzko literatura-testuak kontsultatu zituzten, eta Vladan Vukliš historialariaren hitzaldi bat entzun zuten. Azkenik, galderak egiteko aukera izan zuten.

Bisitaldia: Kozarako memoria-lekua eta museoa

Taldeak Kozarako memoria-lekua eta museoa bisitatu zituen. Bertan, Alemaniako armadak eta Ustaše taldeak gudu



Ikasleak Kozarako museoa

krudela egin zuten 1942an erresistentzia partianoaren eta zibilen aurka. Aztertu nahi zituzten gaiak erabakitzeko aukera eskaini zitzaizkien ikasleei, ikerketa sakonagoa egiteko. Bost taldetan banatu ziren, norberaren interesen arabera: Kroaziako Estatu Independentea eta Ustaše taldea, haurrak, emakumeak, erresistentzia eta artisten espirtua.

Kozaran, ikasleak Bojan Radaković museoko kontserbatzailearekin bildu ziren. Kozarako guduari eta biktima zibilei buruzko gauza gehiago kontatu zizkien. Ondoren, lehen mailako iturriak ikertu zituzten, hala nola argazkiak, bideoak eta literatura-testuak.

Bisitaldia: Jasenovac eta Donja Gradinako memoria-lekuak

Ikasleek Jasenovac hiriko memoria-lekua bisitatu zuten Ivo Pejaković zuzendariaren eskutik. Hemen sarraski-esparru bat izan zen, non batez ere juduak, ijituak, serbiarrak eta antifaxistak hil zituzten. Ikasleek aukeratutako bost gaiekin lotutako galderak jaso zituzten, erakusketa beren kabuz bisitatu ahal izateko. Azkenik, ikasleak elkartu egin ziren emaitzak aurkezteko, eta galdera berriak egiteko aukera izan zuten. Halaber, Uštica ijituen oroimenerako zentroa eta Donja Gradina (Jasenovac hiriko exekuzio-lekurik handiena) bisitatu zituzten. Dunja Jakopović kontserbatzaileak eta irakasleek kontzentrazio-esparruko zelaiak, hainbat plaka eta biktimak gogoratzeko monumentuak erakutsi zizkieten ikasleei.

Erakusketa sortzeko prozesua

Proiektuaren hasieran, ikasleek erakusketa bat sortu nahi zutela erabaki zuten. zken fasean, informazio eta ikerketa guztiak bildu zituzten, eta erakusketarako panelak sortzeko materialak diseinatu, idatzi, margotu, , editatu eta inprimatu zituzten. Erakusketa Banja Luka hiriko Banski Dvor kultur zentroan eta Srpska Errepublikako Batzar Nazionalaren galerian jarri zen ikusgai. Ikasleek emaitzak aurkezteko eta tokiko komunitatearekin hitz egiteko aukera izan zuten.

Erronkak

Gertakari historikoen konplexutasuna komunikatzeko erronkari aurre egin behar izan zion taldeak, gai sentiberak oraindik gainditu ez dituen ingurune batean. Adibidez, Jugoslaviaren historia korapilatsua, Kroaziako Estatu Independentea edota Ustaše taldearen eta Alemania naziaren arteko kolaborazioa. Iraganaren eta orainaren arteko lerro bat "marraztea" gai horietako batzuei heltzeko modu bat izan zen. Brankak eta Tatjanak aukera asko eskaini zizkieten ikasleei gertaera historikoen ikuspegi desberdinak ikertzeko. Horrela, hobeto ulertu zuten historia gizarteak etengabe moldatzen duen kontakizun aldakorra izan daitekeela. Literatura-testuak bezalako iturriak aztertzean, ikasleek ikerketaren jomuga zabaldu zuten, eta gizabanakoek artea nola erabiltzen duten ulertu, historiari buruzko ikuspegi pertsonalak adierazteko.

Erakusketaren inaugurazioaren argazkia, Banski Dvor kultur zentroan (Banja Luka)



DANIMARKAKO TALDEA

Vejen Gymnasium ikastetxeko ikasleen tokiko historia-proiektua hainbat fase eta urratsetan egituratu zen zazpi egunetan zehar. Ikasleek iraganeko eta egungo diskriminazio-moduei buruzko hainbat alderdi aztertu zituzten, eta ikasitakoari buruzko podcastak sortu. Proiektuaren parte gisa, Esbjerg eta Oksbøl-eko (Danimarkako hegoaldea) hainbat leku bisitatu zituzten, film bat ikusi zuten, adituek emandako hitzaldi eta tailerretan parte hartu zuten eta bideo-dei bat egin zuten Eslovakiako taldearekin. Lars Amdisen Bossen zuzendariak eta Mirela Ismaili Redžić irakasleak gidatu zituzten ikasleak.

Proiektuaren iraupena: Zazpi egun oso

Ikaskuntza-helburuak

Tokiko historia-proiektua garatzeko, Danimarkako taldea kultura demokratikorako konpetentzien erreferentzia-markoan oinarritu zen. Horri esker, ikasleek errazago lortu zituzten helburu hauek:

Balioak eta jarrerak

- Giza duintasuna eta giza eskubideak aintzat hartzea
- Kultura-aniztasuna aintzat hartzea
- Demokrazia, justizia, ekitatea, berdintasuna eta zuzenbide-estatua aintzat hartzea
- Adeitasuna
- Beste iritzi batzuekiko irekitasuna

Trebetasunak

- Azterketarako eta pentsamendu kritikorako gaitasuna
- Entzutea eta behatzea

Ezagutza eta ulermen kritikoa

- Pertsonak gizarteratzeko eta baztertzeko mekanismoak modu kritikoan ezagutzea eta ulertzea
- Mundua modu kritikoan ezagutzea eta ulertzea (besteak beste, historia, politika, zuzenbidea, giza eskubideak, kultura, erlijioa, etab.).

Jarduerak

Lehen egunean ikasleek gaiari buruzko oinarrizko ezagutza historikoak eskuratu zituzten, eta orainarekin erlazionatzen ikasi zuten. Halaber, irakasleek adimen-mapak marrazteko eskatu zieten, nazionalsozialismoaren historia nola hautematen zuten ikusteko. The Wave ere ikusi zuten, 1967ko esperimentu sozial batean oinarritutako 2008ko filma. Faxismoaren erakargarritasuna frogatu nahian, edonon eta edozein unetan gerta daitekeela erakusten du pelikulak. Ikasleek bi tailerretan parte hartu zuten: lehenengoan, Aaron Peterer proiektuaren bideo-ekoizlearen gidaritzapean, oroitzapenezko monumentuek Bigarren Mundu Gerraren historia zabaltzeko duten garrantziaz mintzatu ziren; bigarrenetan, Mirela irakasleak, errefuxiatu bosniarra denak, gaur egungo gizarteratze- eta baztertze-prozesuak azaldu zituen. Ikasleek gizarteratze- eta baztertze-



Taldearen bisita Esbjerg hiriko hilerria

bizipen pertsonalei buruz idazteko eta hitz egiteko aukera izan zuten.

Bigarren egunean, taldeak Esbjerg bisitatu zuen. Hiriko museoan, ikasleek nazismoak Danimarkan izan zuten presentziari buruzko hitzaldi bat entzun zuten, eta Danimarkako Alderdi Naziarekin lotutako iturriak aztertu zituzten taldeka. Hilerri bat ere bisitatu zuten, non, soldadu britainiar eta alemaniarrek ez ezik, errefuxiatu alemaniarrek lurperatuta ere dauden. Helburua ikasleei gerra eta gatazkak zein zentzugabeak izan daitezkeen erakustea zen. Ikasleek, lehenik, bisita gidatu batean parte hartu zuten, eta, ondoren, beren kabuz miatu zuten hilerria. Eguna amaitzeko, oroitzapenezko monumentuekin izandako elkarrekintzari eta gertaera historikoen interpretazioari buruzko gogoetak idatzi zituzten, tokiko ikuspegi batetik.

Hirugarren egunean, ikasleek nazionalsozialismoaren eta gaur egungo diskriminazio-adierazpenen arteko loturak ezarri zituzten. Jardueretako bat Auschwitz aditua den Peter Schmidtek emandako hitzaldi bat izan zen, ideologia nazionalsozialistari eta sarraski-eremuei buruzkoa. Ondoren, ikasleek hainbat bideokonferentzia antolatu zituzten Eslovakiako taldeko kideekin. Internet bidezko dei horietan, beren herrialdeetan ideologiak adierazteko moduei buruz eztabaidatu zuten. Denak bilduta, azken egunetan ikasi eta espermentatu zutenari buruz hausnartu zuten, eta ideologia eta pentsaera diskriminatzaileak indargabetzearen garrantziaz eta

moduez eztabaidatu zuten. Eztabaidaren ondorio garrantzitsu bat hauxe izan zen: herrialdeek iragan desberdinak dituzten arren, Europako lurralde desberdinetako gazteak ez direla hain desberdinak, eta erronka komunei egin behar dietela aurre nazionalsozialismoaren historiari ekiteko orduan.

Proiektuaren laugarren egunean Oksbøl hirian ireki berri duten Escape museoa bisitatu zuten ikasleek. Gaur egungo Danimarkan bizi diren mundu osoko errefuxiatuengan jartzen du arreta museoak. Errefuxiatuek uste sendoak partekatzen dituzte, garai desberdinetan eta arrazoi desberdinengatik iritsi baziren ere. Escape museoa Bigarren Mundu Gerraren ondoren Alemaniatik etorri ziren iheslariak hartzeko esparru ohi batean dago. Ikasleek Trine Just Hansen adituaren eskutik bisitatu zuten museoa; esparruaren aurrekari historikoak ezagutzeko, rol joko batean aritu ziren. Segidan, beren kabuz bisitatu zuten museo interaktibo hau, gaur egungo errefuxiatuekin lotutako gaiak arakatzen zituzten bitartean. Horri esker, pertsona behartsuekiko enpatia garatu zuten, eta ulertu zuten antzeko esperientziak edonori gerta dakizkiokela.

Azkenik, ikasitakoari buruzko podcastak sortu zituzten. Podcastak sortzeko, proiektuen alderdiei buruz hausnartu zuten eta gai bat aukeratu zuten. Azkenean, hiriko eskola bateko lehen hezkuntzako ikasleei aurkeztu zizkieten podcastak, eta haiekin partekatu zuten ikasitakoa. Jarduerak proiektuarekin ikasitakoari buruz hausnartzeko prozesua erraztu zuen.

Erronkak

Ikasleek nazionalsozialismoaren ezagutzazuten alde zuzenetik, eta, beraz, erronka handia izan zen proiektua modu interesgarrian diseinatzea eta ikasleei gai "zahar" bat ikuspegi "berri" batetik aztertzen laguntzea. Tokian oinarritutako ikaskuntzak eta adituen parte-hartzeak ikasleen interesa pizten lagundu zuten. Izan ere, beste pertsona batzuk gizarteratzeak edo baztertzeak benetako eragina duela ulertu zuten. Ikasleak motibatuta zeuden eta erantzukizun nabarmena izan

zuten ikaskuntza-prozesuan (ikasitakoa besteekin partekatuz).

Danimarkako taldeak proiektuko beste talde batekin harremanetan jartzeko erronkari ere aurre egin behar izan zion. Eslovakiako taldeko kideekin hitz egin baino lehen, hizkuntza-hesiak elkarrizketa sakonak izatea eragotziko ote zuen beldur ziren Danimarkako ikasleak. Hori konpontzeko, ikasleak talde txikiagoetan banatu ziren, eta, horrela, hainbat gai jorratu ahal izan zituzten. Proiektuak garatzean ikasitakoaz hitz egiteaz gain, "eguneroko" gaiei buruz mintzatu ziren (adibidez, eskola-eguna herrialde batean eta bestean). Bizipen eta esperientzia pertsonalak partekatuz, bi herrialdeetako ikasleek ingurune integratzaile bat sortu zuten, eta ikuspegi ugari adierazteko aukera izan zuten.

Proiektua zati txiki askotan banatuta zegoen, eta hainbat aditurekin jarduerak programatzea eta koordinatzea eskatzen zuen. Erronka gainditzeko, taldekideek malgutasunez antolatu zuten egitaraua, ikasleek une jakin batzuetan proiektuan parte hartu ahal izan zezaten.

activities with different experts. To address this, the team members adopted more flexibility in their programme to facilitate students' participation at certain times.

Tailer birtuala Aaron Peterer proiektuaren bideo-ekoizlearekin.



ESLOVAKIAKO TALDEA

Eslovakiako taldeak bi hiritako historia irakasleen gidaritzapean lan egin zuten: Matej Beláček (C.S. Lewis Bilingual High School, Bratislava) eta Gabriela Maruščáková eta Viera Žajaková (Gymnasium Trebišov, Trebišov hirian). Juraj Vargak eta Tatiana Birešová bi ikastetxeetako irakasle eta ikasleen lana koordinatu zuten. Guztira, hiru ikasmailako 18 ikasle boluntariok hartu zuten parte proiektuan: 15 Bratislavakoak eta 3 Trebišovekoak. Bi hirietako ikasleek lan eta jarduera berdinak egin zituzten eta emaitzak alderatu zituzten.

Proiektuaren iraupena: 30-50 ordu sei astetan zehar

Ikaskuntza-helburuak

Eslovakiako taldearen tokiko historia-proiektua Eslovakiako komunitate juduen historian oinarritu zen Holokaustoaren garaian. Horixe izan zen proiektuan parte hartu zuten bi eskolak lotu zituen elementu tematiko nagusia. Taldea kultura demokratikorako konpetentzienerreferentzia-markoan oinarritu zen, hainbat helburu lortzeko:

Ezagutza eta ulermen kritikoa

- Gizarte juduaren historiari buruzko ezagutzak
- Nazionalsozialisten biktimei buruzko ezagutzak, eta "biktima" izaeraren askotariko interpretaziok eta kontzeptuak ulertzea
- Gizarte-bazterkeriako prozesuak ulertzea

Trebetasunak

- Pentsamendu kritikoa, iturrien azterketa eta interpretazio kritikoa barne
- Ekimena eta jarduerari buruzko erabakiak nork bere kabuz hartzea, ikasleek zuzendutako proiektuaren barruan
- Iraganari buruzko galderak pentsatu eta egitea

Balioak eta jarrerak

- Autonomia proiektuak burutzean
- Akatsetatik ikastea
- Auto-hausnarketa, testuinguru historikoei buruz eskuratu berri diren ezagutzak gaur egungo gizartearekin lotzeko

Jarduerak

Ikasleek beren kabuz lan egin zezaten diseinatu zen proiektua, norberak bere ikaskuntza-prozesuaren gidari bihurtuta. Askatasuna izan zuten interesatzen zitzaizkien gaiei buruz ikertzeko eta proiektuak aurkezteko modurik egokiena diseinatzeko. Ikasleek bi talde-bilera antolatu zituzten proiektuaren hilabete bakoitzaren hasieran, eta oso lagungarriak izan ziren betebeharrak eta zereginak banatzeko. Gainera, Trebišoveko irakasleekin bilerak egin zituzten bi astean behin, informazioa partekatzeko, ikerketari buruz eztabaidatzeko eta proiektuaren martxari buruz hitz egiteko. Horrela, ikasleek beren lanari buruz hausnartzeko eta aldian-aldian informazioa jasotzeko



Ikasleak, irakurtzen eta ikertzen duten bitartean

gune bat izan zuten.

Proiektua aurkezpen ekitaldi hibrido batekin hasi zen Bratislavan. Ekimenean interesa zuten ikasle guztiak bertaratu ziren, elkar ezagut zezaten. Matej eta Tatiana ikasleekin elkartu ziren Bratislavan; Juraj, ordea, Trebišoven egon zen Gabrielarekin, Vierarekin eta ikasleekin.

Bratislavan, Kultura Juduaren Museora joan ziren Matejekin lanean ari ziren ikasleak, eta Michala Lônčíková historialariak Eslovakiako komunitate juduari buruz emandako hitzaldi bat entzun zuten. Bratislavako Holokaustoaren oroimenezko lekua ere bisitatu zuten. Ikasleak elkarlanean aritu ziren Eslovakiako komunitate juduaren historiari (nazionalsozialismoaren garaian) buruzko [mapa](#) digital bat sortzeko. Halaber, argazkiak atera zituzten Bratislavako juduen bizimoduarekin lotutako lekuetan, eta mapan gehitu zituzten, liburutegietan eta artxiboetan aurkitu zuten informazioarekin batera.

Ikasleek hiru taldetan lan egin zuten: lehenengoak Bratislavako komunitate juduaren historia erakusteko bideoak sortu zituen, hiriko sinagoga barne. Bigarrenak, jazarpenarekin (1938tik 1945era) lotutako tokiei buruzko argitalpenak sortu zituen; besteak beste, Gestapoko kuartel nagusia, erresistentzia juduko "Lan Taldea" erakundeak erabilitako eraikina eta biktimak deportatzeko esparruak. Hirugarrenak Holokaustoa oroitzeko monumentuari eta Stolpersteine (estropezu egiteko harriak) deiturikoei

buruzko argitalpenak prestatu zituen (Stolperstein bakoitzak oroitzen duen pertsonari buruzko informazioa barne).

Gabriela eta Vieraren ikasleek Trebišov hiriko museoa bisitatu zuten, eta Dominik Ferenčík eta Nikola Radová historialariekin aritu ziren hizketan. Proiektuan erabil zituzketen iturriei buruz eztabaidatu zuten. Estatuko Ikerketa Liburutegia eta Košice eskualdeko artxiboa ere bisitatu zituzten. Ikasle-taldeak Holokaustoaren garaian Eslovakiako juduek bizi izandako esperientziei buruzko bideo bat sortu zuen, baita gerraostean eraitsi zuten sinagogaren historiari buruzkoa ere.

Proiektuaren amaieran, taldeek bi eskoletan egindako ekitaldi hibrido batean aurkeztu zituzten emaitzak. Azken asteetan ikasitakoa gainerako ikasleekin eta irakasleekin partekatu zuten. Bratislavako ikasleek sarean aurkeztu zituzten emaitzak, sortu zuten mapa digitalari esker. Trebišoveko ikasleek, berriz, hiriko Šum liburu-dendan eta kultur zentroan aurkeztu zuten proiektua; ondoren, eztabaida batean hartu zuten parte.

Erronkak

Proiektuan bi hiritako bi ikastetxek parte hartu zuten, Eslovakiako taldearen erronka nagusia bi taldeak koordinatzea izan zen. Gauzak are gehiago korapilatzen, ikasleak maila eta ikasgeladesberdinetakoak ziren. Ikasketa-planak eta eskola-ordutegiak ezarritako mugak zirela eta, sarritan zaila izaten zen museoetara eta oroitzapen monumentuetara bisitak antolatzea horretarako hainbat ordu behar zirelako. Denbora gehiago behar izan zen lana eta ikerketa garatzeko.

Erronkari aurre egiteko, proiektuaren egitura malgutu zen. Ikasleei proiektuan borondatez parte hartzeko aukera eman zitzaion. Gainera, proiektua notarako baliagarria zen, ohiko azterketekin zailtasunak dituzten ikasleak erakartzeko. Proba pilotu honen arrakasta eta ikasleek tokian-tokiko ikaskuntzarekiko erakutsi duten interesa ikusita, proiektua Batxilergoko bigarren mailako ikasleentzako aukerako ikasgai bihurtzeko asmoa du Matejek (Bratislava). Gabrielak (Třebíšov) tokiko historia-proiektuen metodologia XX. mendeko historiari buruzko mintegi batean erabiltzeko asmoa du. Gainera, Hungariako irakasleekin batera garatzeko duen nazioz gaindiko proiektu berri batean txertatu nahi ditu emaitzak.

Ikasleak, ikerketa- eta ikaskuntza-espereziak hitz egiten



ESPAINIAKO TALDEA

Espainiako taldearen tokiko historia-proiektuak Alemania naziaren, Francoren Espainiaren eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren (GEAU) arteko loturak nabarmendu zituen. Proiektuaren ardatza giza eskubideak izan ziren, iraganaren eta orainaren arteko lotura gisa. Iraganeko diskriminazioari eta giza eskubideen urraketari buruzko ikerketa abiapuntu hartuta, gaur egungo diskriminazioari, gizarte-bazterketari eta eskubideen urraketari buruz hausnartu zuten ikasleek. Harri Beobide eta Amaia Lamikiz Jauregiando irakasleen gidaritzapean, Donostiako (Euskal Herria) Aiete parkeko oroitzapenezko monumentuak bisitatu zituzten Santo Tomas Lizeoko ikasleek; horretaz gain, udal liburutegi batean ikusgai jarri zen erakusketa bat sortu zuten.

Proiektuaren iraupena: Lau egun, erakusketaren aurkezpena barne

Ikaskuntza-helburuak

Irakasleen laguntzarekin, kultura demokratikorako konpetentzienerreferentzia-markoan oinarritu ziren, helburu hauek lortzeko:

Ezagutza eta ulermen kritikoa

- Testuinguru historikoei buruzko ezagutzak eskuratzea
- Giza eskubideei buruzko ezagutzak eskuratzea

Trebetasunak

- Pentsamendu kritikoa, iturrien azterketa eta interpretazio kritikoa barne
- Gertaerak hainbat ikuspegitik aztertzea
- Empatia
- Bazterkeria- eta diskriminazio-egoerak saihesteko tresnak garatzea
- Sormena

Balioak eta jarrerak

- Gizalegea
- Giza duintasuna, giza eskubideak, berdintasuna eta aniztasuna errespetatzea

Jarduerak

Espainiako taldeak GEAU erabili zuen tokiko historia-proiektuaren abiapuntu gisa. Gaiari dagokionez, taldeak Alemania naziaren eta Espainia frankistaren arteko antzekotasunetan jarri zuen arreta; izan ere, erregimen horietan gertatutakoak giza eskubideei buruzko diskurtsoak moldatu zituen mundu osoan. Ikasleek giza eskubideei eta duintasunari buruz eztabaidatu zuten, eta balio horiek gizarte demokratiko eta integratzaile batean defendatzeko beharra aldarrikatu zuten.

Espainiako taldeko tokiko historia-proiektua lau etapa nagusitan banatu zen, lau egunetan zehar.



Ikasleak elkarlanean

Leku historiko bat bisitatzea

Ikasleek Aiete parkea bisitatu zuten hiru monumentu aztertzeko: diktadura frankistaren biktimen aldekoa, Holokaustoaren biktimen aldekoa eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren aldekoa. Hausnarketa-galderak jaso zituzten, monumentu bakoitzaren esanahia eta hiru monumentuek elkarren artean duten lotura hobeto ulertzeko. Ikasgelan, elkarlanean aritu ziren kolektibo diskriminatuengan eragina izan zuten gertaera eta lege esanguratsuei buruz ikertzeko. Horrekin, hainbat denbora-lerrosortu zituzten, talde jakin batzuek pairatu zituzten diskriminazioaren, bazterkeriaren eta deshumanizazioaren arteko loturak ezartzeko. Besteak beste, Alemania nazian baztertutakoak, nazien kontzentrazio-esparruetara deportatu zituzten preso politiko espainiarrak edo Francoren diktaduraren garaian jazarritako eta erreprimitutako beste kolektibo batzuk.

"Gu eta besteak" dinamika ulertzea

Ikasleek hainbat jardueratan parte hartu zuten "gu eta besteak" dinamikaren eraikuntza-prozesua aztertzeko eta horri buruz hausnartzeko. Horri esker, iraganeko eta oraingo diskriminazio-moduen arteko loturak errazago ezarri ahal izan zituzten. Jarduera horien artean, hauek nabarmendu ziren: norberaren aurreiritziak identifikatzeko irudiak behatzea,, eta eguneroko bizitzan estereotipoak eta aurreiritziak eraikitze moduari buruz eztabaidatzea. Horretarako, ikasleek "Gorrotaren piramidea" hartu zuten erreferentzia gisa gorrotoak eragindako indarkeria-motak ezagutzeko.


Ezagutzak aplikatzea

Ikasleek "bestetasuna" eraikitze prozesuen eta "gu eta besteak" dinamiken bila ibili ziren egunero erabiltzen dituzten hedabideetan, hala nola sare sozialak, aplikazioak, jokoak eta musika. Iturri horien bitartez helarazitako mezu diskriminatzaileak aztertzean, beren inguruan diskriminazioa adierazteko moduez jabetu ziren. Ondoren, beraiek sortutako erakusketarako gaiak aukeratu zituzten, eta giza eskubideei, duintasunari eta errespetuari buruzko zein mezu partekatu nahi zituzten erabaki.

Erakusketa sortzea

Tokiko historia-proiektuaren azken fasean, ikasleek udal liburutegian bi astez ikusgai

Ikasleek sortutako denbora-lerroa



egon zen erakusketa bat sortu zuten. Erakusketak ikasleek sare sozialetan aurkitutako mezu diskriminatzaileen azterketak erakusten zituzten panelen bidez. Mezu horiek nazionalsozialismoaren hainbat biktima-talderekin lotuta zeuden, eta horiei aurre egiteko proposamenak jasotzen zituzten. Ikasleek beste ikaskide batzuei aurkeztu zieten proiektua. TikTokerako bideoak ere grabatu zituzten, proiektuan bizitakoikus-entzunezko formatu batean partekatuzeko.

Erronkak

Espainiako taldeak aurre egin beharreko erronka bat ikasleen autonomiaren eta irakasleen gidaritzaren arteko oreka aurkitzea izan zen. Alde batetik, ikasleek gaia eta beren interesak modu independentean aztertzeke askatasuna

zutela bermatu behar zuten irakasleek. Bestalde, erreferentzia-esparru bat eman zieten, proiektua gauzaten laguntzeko. Horretarako, ikasle bakoitzak portfolio bana zuen, osatu beharreko jarduerekin eta sareko iturri eta material osagarrietarako estekak zituen dokumentuekin. Horrela, jarduerak aukeratu eta informazio gehiago aurkitu ahal izan zuten, norberaren beharren eta interesen arabera. Ikasleek ideiak eta galderak ohar itsaskorretan idazteko aukera ere izan zuten, sortutako denbora-lerroanitsasteko. Horrek lagundu zien gaien arteko loturak ezartzen eta ikaskuntza-prozesua gidatzen.

Ikasleek udal liburutegian aurkeztu zuten erakusketa



NORTZUK IZAN ZIREN NAZIONALSOZIALISTEN BIKTIMAK?

Zaila izan daiteke tokiko historiaren proiektuaren gai nagusia erabakitzea eta behar duzun informazioa biltzea. Lana errazteko, biktima-taldeei buruzko informazio-orri batzuk prestatu ditugu. Horrela, nondik hasi aukeratu ahal izango duzu.

Sakonago aztertu nahi duzun talde jazarria aukeratu ondoren, informazioa hiru ataletan banatzen dela ikusiko duzu: nazionalismoaren aurreko garaia, nazionalismoaren garaian eta nazionalsozialismoaren ondorengo garaia. Informazio-orri bakoitzaren amaieran, aukeratu duzun taldearen bizipenei buruz hausnartzen lagunduko dizuten galderak aurkituko dituzu. Era berean, ikerketarako baliagarriak izan daitezkeen testigantzak, artxiboak, liburuak eta filmak zerrendatu ditugu.

Hitz batzuk kolore ezberdinetan azpimarratuta daudela ikusiko duzu. Zergatik? Demagun berdez azpimarratutako hitzak sakatzen dituzula. Kasu horretan, beste informazio-orri batera bideratuko zaitugu, zuk aukeratutako taldearekin agian intersekzioak elkarguneak dituzten beste biktimei buruzko informazio gehiago lor dezazun. Horrela, batzuen eta besteen bizipenak nola gainjartzen diren ulertuko duzu, bai iraganean, bai gaur egun.

Morez azpimarratutako hitzetan klik eginez gero, glosariora joango zara. Bertan, sakatutako hitzaren esanahia aurkituko duzu. Urdinez azpimarratutako hitzak, bestalde, nazionalsozialismoaren errepresio-lekuak dira; adibidez, kontzentrazio- eta sarraski-esparruak edo ghettoak. Horietan klik eginez gero, mapa batera bideratuko zaitugu, kokapen zehatza ikus dezazun.

Informazio-fitxei ekin baino lehenago, kontuan izan honako hauek:

Gogoan izan informazio-orriak ikaskuntza-prozesuaren abiapuntu direla. Informazio-orriek ez dizkizute zalantza guztiak argituko, baina zer biktima-talde aztertu nahi duzun eta nondik hasi erabakitzen lagunduko dizute.

Ez da beharrezkoa orri guztiak irakurtzea; aukeratu zure interesekin eta proiektuaren eremuarekin bat datozenak. Jakina, biktima bihurtutako beste taldeei buruzko informazio gehiago lortu nahi baduzu, dagozkien orriak kontsulta ditzakezu. Informazio-orri batzuek taldeek pairatutako jazarpenari eta errepresioari buruzko datu gogorrak ematen dituzte. Hunkituta sentitzea guztiz normala da; hala gertatzen bada, irakasleari laguntza eska diezaiokezu gai zail horiei buruz mintzatzeko.

Konturatuko zara informazio-orri hauetan aipatzen diren termino batzuk kaltegeleek (nazionalsozialistek, alegia) erabiltzen dituztela. Kontuan izan hori. Irakurri glosarioan emandako definizioa, eta ez erabili hitzok ikasgelatik edo testuingurutik kanpo, nazien erregimenean biktima-taldeen pairatutako diskriminazioa eta jazarpena betikotzen baitituzte.

Informazio-orrien amaieran, agian lagungarri izango zaizun material gehigarria ere aurkituko duzu. Lehenik eta behin, gertakarien kronologia ikusiko duzu, jazarpenak eta nazionalsozialismoak denboran zehar izan zuten bilakaera uler dezazun denbora-lerroa, mapa eta glosarioa agertzen dira. Jarraian, adituak eta nazismotik bizirik atera ziren pertsonak elkarrizketatzeko adibideak aurkituko dituzu, eta garaiko irudiak ikuspuntu kritiko batetik aztertzen ikasiko duzu (proiekturako jarduera horiek burutu nahi badituzu). Azkenean, baliabide-zerrenda luze bat aurkituko duzu, zapaldutako taldeei buruzko informazio gehiago lortzeko.

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN HISTORIA

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN GORALDIA

1919an, Karl Harrer eta Anton Drexlerrek eskuin muturreko Alemaniako Langileen Alderdia sortu zuten Münchenen. Urte horretan bertan, Adolf Hitler alderdian sartu zen, eta 1920an alderdiak Alemaniako Langileen Alderdi Nazional Sozialista (Nazien Alderdia) izena hartu zuen. Hitlerrek asaldatzaile eta alderdiko bozeramaile gisa zuen trebakuntza faktore garrantzitsua izan zen alderdiko buruzagi berri (edo [Führer](#)), gisa horren azkar boterera iristeko 1921ean.



Sturmabteilung (SA) indar paramilitarren desfilea Brunswicken, 1932an. Argazkia: Bundersarchiv, Bild 102-13377 / CC-BY-SA 3.0

Orduko Alemaniako gainerako alderdi politikoak ez bezala, Alderdi Nazia ez zen talde zehatz batengana zuzentzen, eta gizarte-klasearen edo erlijioaren mugak gainditzen zituzten gaietan jartzen zuen arreta. Alderdiaren joera politikoa eskuin-muturrekoa zen oro har: [arrazista](#), antisemita, antidemokratikoa, [antikomunista](#), inperialista eta militarista, besteak beste. Hala ere, jarrera horiek eta elementu ideologiko sozialistak bateratzen zituen. Horretarako, nazionalista eta sozialista gisa definitu zuten alderdia, eta [sozialismoarekin](#) lotutako eskakizunak gehitu zituzten programan (adibidez, bidezko soldaten aldarrikapena). Alderdiaren irudi publikoaren ezaugarri nagusietako bat erretorika oldarkorra zen, indar fisikoaren eta mehatxuen erakustaldiekin batera. Adibidez, nazien [eraso-tropak](#) babes-indar gisa aritzen ziren alderdiaren ekitaldietan. Indarkeria erabiltzen zuten aurkari politikoen kontra, eta kaleetan barrena ibiltzen ziren indarra erakusteko.

1923an, [Weimarko Errepublika](#) krisian sartu zen. Alemania Lehen Mundu Gerrako ordainak ordaintzeko beharra urratzen ari zenez, Frantziako eta Belgikako tropek Ruhr eskualdea okupatu zuten. Horrek Alemaniako [erresistentzia nazionalista](#) suspertu zuen. Egoera ezegonkorraz baliatuz, Hitler eta bere jarraitzaileak estatu-kolpea (Municheko edo Garagardotegiko Putscha izenez ezaguna) ematen saiatu ziren 1923ko

azaroaren 8an eta 9an. Bavaria estatuko Poliziak estatu-kolpearen saioa geldiarazi zuen biharamunean. Hitler goi mailako traizioagatik epaitu zuten, baina bost urteko espetxe zigor arina jaso zuenez, bederatzi hilabete besterik ez zituen bete. Kartzelan egon zen bitartean, Mein Kampf liburuaren lehen zatia idatzi zuen, non bere agenda politikoan txertatuko zituen eragin ideologiko ezberdinak adierazten zituen. Estatu-kolpe saiakerak porrot egin ondoren Alderdi Nazia ofizialki debekatu bazuten ere, espetxetik irtetzean Hitlerrek zuzenbidezko estatua errespetatuko zuela agindu zuen eta horri esker alderdia berriz eratu ahal izan zuen 1925ean. Segidan, Schutzstaffel (SSak) talde paramilitarra sortu zuen alderdiak.

Garrantzi eskasa izan zuten naziek hurrengo urteetan, baina aldarrikapen politikoei ekin zieten alderdia herrialde osoan hedatzen saiatu bitartean. 1929ko Depresio Handia gertakari onuragarria izan zen nazionalsozialistentzat, krisialdiak langabezia eta pobrezia zabala eragin baitzituen, eta tentsio sozialak areagotu. Giro politiko ezegonkorraz baliatuz, boto-emaeleentzako talde anitzetara bideratu zituzten aldarrikapenak, eta babes handia aurkitu zuten populazio osoan. 1932ko uztailan, Alderdi Naziak beste ezein alderdik baino aukeri gehiago lortu zituen Parlamentu nazionalan. Hauteskundeetan lortutako arrakasta itzelaren ondorioz, Adolf Hitler Reicheko kantziler izendatzeko erabakia hartu zuen Paul von Hindenburg Reicheko presidenteari 1933ko urtarrilaren 30ean.

DIKTADURAREN EZARPENA

Boterea hartu eta hurrengo hilabeteetan, nazionalsozialistek [*Gleichschaltung*](#) (sinkronizazioa edo koordinazioa) izeneko prozesua abiarazi zuten. Horren ondorioz, oinarrizko askatasun zibilak indargabetu zituzten, aurkari politikoak bortizki jazarri, eta erakunde demokratikoak deuseztatu. Helburua zera zen: aurreko egitura sozial eta politiko pluralisten ordezkari nazionalsozialismoa ardatz izango zuten gizarte eta gobernu uniformeak ezartzea. Horrela, ideologia hori estatuaren



Alderdi Naziaren mitina Nurenbergen, 1934an, Argazkia: Bundesarchiv, Bild 183-2004-0312-504 / CC-BY-SA 3.0

indarkeria erradikalaren oinarri bihurtu zen.

Nazionalsozialistek hainbat lege onartu zituzten demokrazia bertan behera uzteko eta Alemanian diktadura ezartzeko. 1933ko otsailaren 27an sute bat gertatu zen Parlamentuan. Naziek komunistei egotzi zieten errua, eta oposizioko kideak espetxeratzeko, Alderdi Naziarekin kritiko ziren argitalpenak zentsuratzeko eta oinarrizko askatasun zibilak (esaterako, adierazpen- eta prentsa askatasuna edo bilera-eskubidea) indargabetzeko agindu zuten dekretuz. 1933ko martxoaren 24ko [*Lege Gaitzailearekin*](#) nazionalsozialistek legeak onartzeko eskumena bereganatu zuten, Parlamentuaren adostasuna eta presidenteari berrespena lortu beharrik gabe. Horrela, Alemaniako legebiltzarra eta erakundeen arteko botere-banaketa indargabetu zituzten. Hurrengo hilabeteetan, nazionalsozialismoaren aldeko pertsonak ordezkatu zituzten erregimenarekin kritiko ziren ministroak eta parlamentu-ordezkariak Alemania

osoan. Gainerako alderdi politikoak legez kanpo utzi zituzten, eta Alemania alderdi bakarreko estatu totalitario bihurtu zen, Alderdi Nazia legezko indar politiko bakarra zelarik. 1934an, Paul von Hindenburg presidentearen heriotzaren ondoren, Hitlerrek kantziler eta Führer karguen funtzioak hartu zituen, Alemaniako diktadore bilakatuz.

1933ko martxoan, Alderdi Naziak lehen [kontzentrazio-esparruak](#) sortu zituen aurkari politikoak espetxeratzeko eta biztanleriaren gaineko kontrola sendotzeko. 1934an, Hitlerrek SSen zuzendaritzapean jarri zituen kontzentrazio-esparruak. Orduz geroztik, [SSek](#) soilik administratu zituzten Alemaniako kontzentrazio-esparru guztiak (eta, gerra hasi ondoren, baita Alemaniak okupatutako lurraldeetakoak ere). Hasiera

batean, preso gehienak [aurkari politikoak](#) ziren, baina denborak aurrera egin ahala, jazarritako beste -talde batzuk espetxeratu zituzten nazionalsozialistek eskala handian (esaterako, [juduak](#), [LGBTQIA+ pertsonak](#) eta Jehovahen Lekukoak).

Diktadura nazionalsozialistaren helburu nagusietako bat pertsonen bizitzako alderdi guztiak estatuaren kontrolpean jartzea zen, eta Alemanian [Volksgemeinschaft-en](#) interesen mende egongo zen. Ondorioz, eta orenen gaintik, ezinbestekoa zen Führerrarekiko leialtasun hautsezina erakustea eta erregimen naziaren helburu sozial eta politikoak babestea. [Volksgemeinschaft](#). In practice, this meant, first and foremost, unwavering loyalty to the Führer and support for the Nazi regime's social and political goals. The concept of the [Volksgemeinschaft](#) nonahiko kontzeptua bihurtu zen Alemaniako gizartean, eta agerian jarri

Kristal hautsien gauaren ondorengo argazkia, 1938ko azaroaren 10ean. Argazkia: Mike Licht Flickr CC BY 2.0





Akusatuen aulkia Nurenbergeko epaketetan, 1945ean. Agazkia: Artxibo Nazionalak (HD-SN-99-02955-DOD/NARA). 1.0 domeinu publikokoa.

zen masa-erakundeak sortuz-. Adibidez, Hitleriar Gazteria gazte-erakundeak eta horren adar gisa sortutako Alemaniar Neskaxen Ligak gazteek ikuskera nazionalsozialistaren arabera hezkuntza jasoko zutela bermatzen zuten.

Volksgemeinschaft komunitatearen parte izateko, ezinbestekoa zen [“ariar”](#), izatea. Naziek termino hori erabiltzen zuten "goragokotzat" hartzen zuten "arrazia alemaniarra" izendatzeko. "Ariar" kontzeptuaren definizioa zehaztugabea zen, baina argi zegoen [juduak](#) eta naziek "beheragokotzat" jotzen zituzten beste talde batzuk kategoria horretatik kanpo geratzen zirela. Oro har, erregimenak Volksgemeinschaft kontzeptuaren kanpo uzten zituen nazionalsozialismoaren aurka zeuden eta komunitate nazionalerako parte izateko ezgaitzat jotzen zituzten pertsonak, haien arraza edozein zela ere. Besteak beste, aurkari politikoak ([komunistak](#), sozialdemokratak eta erresistentziaren borrokalariak) eta "kriminaltzat" edo [“asozialtzat”](#) hartzen ziren pertsonak.

BIKTIMEN JAZARPENA

Boterean egon ziren bitartean, nazionalsozialistek [Volksgemeinschaft](#) kuserarekin bat ez zetozen pertsonak jazartzeko legeak onartu eta aplikatu zituzten. 1933tik aurrera, hainbat lanbidetatik baztertzen hasi ziren legez (herri-administrazioetik, adibidez) nazien arabera ariarrak ez ziren herritarrak (juduak, jatorri afrikarreko alemanak, ijituak). Aldi berean, Alemanian bizi ziren juduen ongizate ekonomikoaren oinarriak erasotzeari ekin zioten, haien denda boikotatuz. Urte horretako uztailan, alderdiak gaixotasun heredagarriak zituzten pertsonen ugalketa saihesteko legea onartu zuen. Ondorioz, [buruko gaixotasunak eta dibertsitate funtzionala](#) zituzten emakumeek antzute behartuak pairatu zituzten. Esterilizazio horiek naziek aldarrikatzen zuten eugenesiaren funtsezko elementu bilakatu ziren,

erregimenaren eutanasia-programaren oinarriak ezarri baitzituzten.

1935ean, [Nurenbergeko arraza-legeek](#) "ariar" eta "ez ariarren" arteko ezkontzak eta sexu-harremanak debekatu zituzten, eta nazien arabera odol ariarra edo "ariarrekin erlazionatutako odola" zuten pertsonetara mugatu zuten herritartasuna. Xede nagusia [juduak](#) jazartzea bazen ere, naziek [Volksgemeinschaft](#), komunitatearen arraza-etsaitzat jotzen zituzten beste gizarte-talde batzuen aurka ere zuzendu zituzten lege horiek ([ijituak](#) edo [jatorri afrikarreko alemaniarrek](#), esaterako).

Urte horretan, erregimenak [LGBTQIA+](#) pertsonen aurkako diskriminazioa areagotu zuen; horretarako, Alemaniako zigor kodearen [175. artikulua](#) aldatu zuten, homosexualitatearen aurka jada existitzen ziren zigorrak gogortuz. Jazarpena are gehiago areagotu zen 1938ko azaroaren 9an eta 10ean gertatutako [pogroman](#). Talde paramilitar naziek negozio eta sinagoga juduak kaltetu edo suntsitu zituzten Alemania osoan, eta dozenaka mila gizon judu atxilotu eta kontzentrazio-esparruetara eraman zituzten. Halaber, gobernuak estrategia administratiboak areagotu zituen juduak emigratzera behartzeko.

Bien bitartean, nazionalsozialisten kanpo-politika gero eta erasokorrago bilakatu zen Alemaniako Reicha hedatzeko ahaleginean. 1938ko martxoan, Reichak Austria beretu zuen bertako biztanleriaren zati handi baten oniritziarekin. Urte horretako irailean, Alemaniak Txekoslovakiako Sudeteak anexionatu zituen, Alemaniak, Britainia Handiak, Frantziak eta Italiak sinatutako akordio bati jarraikiz. Hitlerrek lurralde-eskari gehiagorik ez zituela ziurtatu zuen arren, Alemania naziak Txekoslovakiako gainerako lurraldeak inbaditu zituen eta Lituaniako Memelen (Klaipėda eskualdea) kontrola hartu zuen 1939ko martxoan. 1939ko irailaren 1ean, Alemaniak Polonia inbaditu zuen eta Bigarren Mundu Gerra hasi zen. Alemaniak Europa kontinentalaren zatirik handiena eraso eta okupatu zuen 1940an eta 1941ean.

BIGARREN MUNDU GERRA ETA ALEMANIA NAZIAREN ERORIALDIA

Gerraren hasierak jazarpena biziagotzeko baldintzak ahalbidetu zituen. Esaterako, [Aktion T4](#) programa abiarazi zuten naziek, hau da, buruko gaixotasunak edo dibertsitate funtzionala zituzten pertsonen erailketa. Gas bidezko lehen hilketa sistematikoak izan ziren Alemanian. Ekialdeko Europa okupatuan, nazionalsozialistek [ghettoak ezarri](#) zituzten [juduak](#) gainerako biztanleengandik bereizteko. Gerraren eremu geografikoa zabaldu egin zen Alemaniak 1941ean [Sobietar Batasuna](#) inbaditu ondoren. [Naziek hiritareta gerra-presosobietarrak](#) hil zituzten eskala handian. Einsatzgruppen izeneko eskuadroi paramilitarrek zibil asko hil zituzten, bereziki juduak. Batez ere tiro egiten zieten, baina gas bidezko hilketak egiteko furgonetak ere erabili zituzten.

Gerrak aurrera egin ahala, nazionalsozialistek kontzentrazio-eta [sarraski-esparru](#) gehiago ezarri zituzten Alemaniak okupatutako Europako herrialdeetan. Erregimenak esparru horietara deportatzen zituen jazarpenaren biktimak, eta berehala erailtzen zituzten, edo [bortxazko lanak](#) egitera behartzen. Esparruetako baldintza latzen ondorioz, ehunka mila lagun hil ziren gaixotasunek, goseak edo hotzak jota. 1941eko abenduan, naziek lehen sarraski-esparrua ireki zuten Chelmno herrian, Alemaniak bereganatutako Poloniako zonaldean. 1942ko urtarrilean [Wannseko konferentzian](#) erabakitakoa betez, erregimena "[Juduen Auziko Azken Konponbidea](#)" delakoa ezartzen hasi zen. Helburua zen judutar populazio osoa Alemaniak okupatutako Poloniara deportatzea eta bertan desagerraraztea. 1942ko ekainean, naziak modu masiboan hasi ziren juduak erailtze [Auschwitz-Birkenau](#) esparru erraldoian. 1943ko martxoan, [ijituak](#) ere hara eramaten hasi ziren, sistematikoki hiltzeko. Gas bidezko hilketek sarraskia azkartu zuten: Auschwitz, esaterako, naziek [gas-](#)

[ganbera](#) handiagoak erabili zituzten egunean milaka pertsona hiltzeko, eta gorpuak espresuki diseinatutako [errausketa-labeetan](#) errausten zituzten.

Gerraren egoera aldatzen hasi zen Alemaniak Stalingradeko guduan (1943ko otsaila) izandako porrotarekin eta tropa aliatuen Normandiako lehorreratze masiboarekin 1944ko ekainaren 6an ([E Eguna](#)). Alemaniaren posizioaren ahultzea zela-eta, nazionalsozialistek kontzentrazio-esparruetako presoak leku batetik bestera eraman zituzten. Milaka pertsona hil ziren [“heriotzaren martxa”](#) horietan. Aurrera egin ahala, indar aliatuek nazien kontzentrazio-esparruak askatu zituzten Europa osoan. Hitlerrek 1945eko apirilaren 30ean bere buruaz beste egin zuen, eta 1945eko maiatzaren 8an Alemania naziak baldintzarik gabe amore eman zuen. Horrela amaitu zen gerra European.

Hainbat epaiketa izan ziren 1945eko azaroa eta 1949ko apirila bitartean, [Nurenbergeko](#) eta [Dachauko epaiketak](#) barne. Nurenbergen, aliatuek nazioarteko auzitegi militar bat deitu zuten Alemaniako 22 gerra-kriminal epaitzeko. Ondoren, lau herrialde garaileek banaka epaitu zituzten alemaniarrok eta haien kolaboratzaileak. Ankerkeria masiboak eta beste gerra-krimen batzuk leporatu zizkieten. Epaiketa horiek sarritan kritikatu izan dira, akusatu batzuk absolbitu egin baitzituzten; beste batzuei, berriz, espetxe-zigor luzeak edo heriotza-zigorra ezarri zizkieten, baina gero zigorraldia murriztu zieten edo aske utzi zituzten. Gainera, erregimen nazionalsozialistaren kaltegile gehienak ez zituzten inoiz epaitu. 1945etik epaiketak egin dira Alemanian eta Europako beste hainbat herrialdetan, batzuetan Bigarren Mundu Gerra amaitu eta urte askotara. Gaur-gaurkoz, ez da itxi Holokausto garaiko krimenak epaitu eta tratatzeko moduari buruzko eztabaida.

NOR DIRA BIKTIMAK?

Gaur egun, biktima nor den zehazteko, [giza eskubideei buruzko legerian](#) eta [justizia trantsizionaleko neurrietan](#) asotako eta aldarrikatutako irizpideak hartzen dira erreferentziatzat. Hala ere, biktima-izaera kontzeptua irekia da, eta gogoeta egin behar da pertsona horiek behar bezala identifikatzeko

1. Biktimak figura anbiguoak dira, haien [agentzia](#) (munduan eragiteko gaitasuna) pasiboa omen delako. Biktimgengan pentsatzen dugunean, zoritxarreko pertsonak etortzen zaizkigu burura, okerreko unean eta tokian zeudenak. Testuinguru horretan, pertsonaia unibertsal bihurtzen dira, eta horrek biktimismoaren alderdi politikoak baztertzen ditu. Biktimak [testuingurutik ateratzeak](#) haien oroitzapenen despolitizazioa eragiten du.

Familia erromani bat Kolonia hirian, 1937an. Argazkia: Bundesarchiv, BILD146-1997-019-27A. CC-BY-SA 3.0.



2. Biktimei buruz oro har hitz egiteak, haien testuinguru lokalak, sozialak, historikoak eta politikoak kontuan hartu gabe, biktima-izaeraren homogeneizazioa eragiten du, indarkeriaren bizipen eta ondorio anitzak gauza bera bihurtuz. Gehienetan, biktimak irudikatzen diren argazkiak eta erreferentziak jazarpenaren unekoak dira, eta ez biktimizazio-prozesuaren aurrekoak edo ondorengoak. Ondorioz, prozesu horretan harrapatuta geratzen dira.
3. Biktimen elkarteak iritzi publikoari helarazi nahi dizkioten mezuen bozeramaile bilakatu dira. Horrek ahots bakar bihurtu du biktima guztien ahotsa eta, beraz, baliteke beste ahots batzuk isilaraztea.
4. Biktima-talde batzuek besteek baino pribilegio eta errekonozimendu handiagoak omen dituzte, eta horren ondorioz [sufriendu-hierarkiak](#) Tezartzen dira. Hori gertatzen da, esaterako, biktimen izaera oso anitza denean. Adibidez, LGTBQIA+ pertsonen aurkako diskriminazioak nazionalsozialismoa amaitu eta askoz geroago jarraitu zuen; beste talde batzuk ("asozialak", besteak beste), ordea, ez dira biktimatzat hartu oraintsu arte; eta ijituekk jazarpena pairatzen dute oraindik ere.

Hortaz, interpretazio hori zalantzan jarri eta deseraiki behar dugu. Asmoa ez da biktimen existentzia ukatzea, haien testuinguruak ulertzea eta biktima-izaeraren ohiko ikusmoldearen mugak zalantzan jartzea baizik.



Juduen erresistentzia-taldea Bielorrusian, 1943an. Argazkia: egile ezezaguna Wikimediaren bidez. 1.0 domeinu publikokoa.

NOLA HITZ EGIN BIKTIMEI BURUZ HAI EK ERABILI GABE?

1. "Biktima" kontzeptua birpentsatzeko beharrezkoa da [testuinguru historikoa](#) ulertzea eta biktimen esperientzia anitzetan eragina izan duten diskurtsoak, jakintzak, erakundeak eta baldintzak azaltzea. Horretarako, beharrezkoa da [kaltegile eta lekukoei](#) buruz mintzatzea eta biktimizazio-prozesua ulertzea. Testuinguruafuntsezkoa da arduradunen motibazioak aztertzeke eta delituak nola legeztatu ziren ulertzeke. Halaber, biktimak ez ditugu "babesgabetzat" jo behar une jakin batean bizi izan zuten egoera hobeto ulertzeke.
2. Hainbat ikuspuntu eta material hartu behar ditugu kontuan biktima-izaeraren [ikuspegi anitzak](#) erakusteko. Biktimaren kontzeptua birpentsatzeko, beharrezkoa da ulertzea beste pertsona batzuek beren burua biktima gisa identifika dezaketela une eta leku desberdinetan. Adibidez, baliteke biktimatzat hartzen dugun norbaitek bere burua halakotzat ez hartzea, eta alderantziz.
3. Funtsezkoa da biktimen arteko [intersekzioak](#) kontuan hartzea. Biktima-izaera prozesu jarraituen eta interaktiboen emaitza dela ulertzen badugu, baliteke hainbat biktimizazio-esperientzia egotea. Era berean, biktimek identitate ugari dituztela ulertu behar dugu. Beraz, artifiziala da biktimak haien identitateak murrizten dituen kategoria

bakar batean sailkatzea. Beste identitate horiek biktimen erresistentzia-gaitasuna edo haien arteko elkartasuna zein neurritan ahalbidetu zuten ulertzen saiatu behar dugu.

4. Biktimen identitatea ez dugu ez pasibotzat ez homogeneotzat hartu behar. Biktimak ez dira soilik zorigaitza gainditzen eta haien bizitzak berreraikitzen saiatzen diren gizabanakoak. Biktimek oso aukera gutxi zituzten erreakzionatzeko, baina sarritan aktiboki jardun zuten eta beren egoera edo besteena hobetzen saiatu ziren. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, horietako batzuk biktimen komunitateetako kide egin ziren, eta bozeramaile eta politikari ezagun bihurtu. Beren bizipenak partekatu zituzten, gertaera historiko horiek errepika ez zitezten. Eragile politikoak ziren batzuk nazionalsozialismoaren garaian (aurkari politikoak eta komunistak, besteak beste), eta beren ideologia eta aktibismoagatik jazarriak izan ziren. Aldi berean, beste batzuek politikari uko egin zioten eta beren bizitzarekin jarraitzea erabaki zuten.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Aztertu biktima desberdinen jazarpena oharatzen duten politikak. Eztabaidatu politika horietako batzuen izaera, nazien ideologiarekin duten harremana eta Bigarren Mundu Gerrako gertaerak. Halaber, hausnartu zergatik nazionalsozialistek talde espezifikoko jazarri zituzten, eta talde horiek nola karikaturizatu zituzten.

Buruko gaixotasunak eta aniztasun funtzionala dituzten pertsonen aurkako jazarpenak [eugenesian](#) eta [arrazismo zientifikoaren teorian](#) du jatorria. Eugenesia oinarri zientifikorik gabeko sinesmen- eta praktika-multzoa da. Ikuskera horren arabera, giza ezaugarriak (adimena eta portaera soziala, esaterako) heredagarriak dira; beraz, populazio-taldeen hautespen artifizialaren bidez gizakien kalitate genetikoa "hobe" daitekeela aldarrikatzen du. Eugenesia XIX. mendearen amaieran agertu zen, eta buruko gaixotasunak edo dibertsitate funtzionala zituzten pertsonen eta portaera "desbideratua" ("[asozialak](#)"). zutenen aurka zuzendu zen bereziki. 1920ko hamarkadan, eugenesia mundu mailako mugimendu bilakatu zen jada, eta babes zabala zuen Alemanian, Estatu Batuetan, Erresuma Batuan, Italian, Mexikon edo Kanadan, besteak beste.

Hartheim gaztelua, 1940an. Argazkia: NARA/Dokumentationsstelle Hartheim.



NAZIONALSOZIALISMOAREN GARAIAN

Naziek boterea hartu eta ia berehala hasi zen jazarpena. 1933ko uztailan, gaixotasun heredagarriak zituzten pertsonen ugalketa saihesteko legea onartu zen, buruko gaixotasunak eta dibertsitate funtzionala zituzten pertsonen [nahitaezko antzuteen](#) hasierari bide emanaz 1939ko abuztuan, desgaitasun mental edo fisiko larria zuten jaioberrien eta hiru urtetik beherako haurren identitatearen berri emateko agindu zien dekretuz Reich-eko Barne Ministerioak mediku, erizain eta emagin guztiei. Ondoren, horietako nor hil behar zuen erabakitzen zen ("[Kindereuthanasie](#)" izeneko prozesua)., 1939ko urritik, ezintasun mental edo fisikoak zituzten pertsonak erailtzen hasi ziren, naziek [Aktion T4](#) izenez ezagutzen zuten programari jarraikiz. Sarraskia ezartzeko arduraren zuzen erakundearen egoitza Tiergartenstraße kaleko 4. zenbakian zegoen, eta hortik izena.

Aktion-T4 programa ezartzeko, hilketetan zuzenean parte hartu zuten mediku eta erizain askoren lankidetzaren behar izan zen. Izan ere, pazienteen historia klinikoa aztertzen zuten, eta horietako nor hil behar zuen erabakitzen. 1939ko udazkenean, nazien erregimena osasun publikoko langile guztien artean galdetegiak banatzen hasi zen ospitaleetan, erietxe psikiatrikoetan eta gaixo kronikoentzako eta zaharrentzako egoitzetan. Pazienteak kategoriatan hauen arabera ebaluatzen eta aukeratzen zituzten:

- Eskizofrenia, epilepsia, dementsia, entzefalitisa eta beste nahasmendu psikiatriko edo neurologiko kroniko batzuk zituztenak.
- "Arraza zitalekoak" edo ariar odolik ez zutenak.
- Arazo psikiatrikoak zituzten gaizkile edo kriminalak.
- Ospitalean bost urte edo gehiago zeramatzatenak.

Ospitaleek edo erietxe psikiatrikoek trabak jartzen bazituzten edo galdetegiak osatzeko luzatzen baziren,, agintariek "aholkulari-taldeak" bidaltzen zituzten nork hil behar zuen erabakitzeko. Biktimak Alemania eta Austriako sei zentrotara eraman zituzten: Brandenburg, Berlindik gertuHavel ibaiaren arroan ; Grafeneck, Alemaniako hego-mendebaldean; Bernburg, Saxonia-Ahalten; Sonnenstein, Saxonian; Hartheim, Linz hiritik gertu, Austrian; eta Hadamar, Hessenen. [Gas-ganberetan](#) hiltzen zituzten, eta, ondoren, gorpuk [errausketa-labe](#) handietan errausten zituzten.

1941ean, jende asko eutanasia-programaren jakinaren gainean zegoen (ustez sekretua izan arren), eta haren aurkako protestak izan ziren Alemanian eta Austrian. Esaterako, Münster hiriko Clemens Abuztu Graf von Galen gotzainaksarraskiak salatu zituen 1941eko abuztuaren 3an emandako sermoi sonatu batean. Beste pertsona ospetsu eta kleriko batzuek ere gaitzetsi zituzten hilketak.

Iritzi publikoaren kritiken ondorioz, T4 programa zentralizatua 1941eko abuztuan eten zen. Ordurako, 70.000 biktima zeuden. Nolanahi ere, programak modu deszentralizatuan jarraitu egin zuen. Pazienteak gosez hiltzen utzi zituzten, edo droga-dosi hilgarriak injektatuz hil. Lurralde okupatuetan ere gertatu ziren hilketak. Ssek eta haibat polizia-unitatek 30.000 paziente inguru hil zituzten Poloniako eta Sobietar Batasuneko lurralde okupatuetan, haien orde zauritutako soldaduak artatzeko. 1945era arte, 250.000 eta 300.000 pertsona artean erail zituzten nazien eutanasia-programaren barruan.

Aktion T-4 juduak, ijituak eta beste herri batzuk sarraskitzeko eredu bihurtu zen. Naziek 1941ean eta 1942an ireki zituzten esparru eta gas-ganberetan gertatu ziren hilketa masiboak.

NAZIONALSOZIALIS-MOAREN ONDOREN

Gaixotasun mentala eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen aurkako aurreiritziak ez ziren 1945etik aurrera desagertu. Esterilizazio eta instituzionalizazio behartua bezalako praktikak ohikoak dira oraindik herrialde askotan. Zientziaren aurrerapenarekin haurdunaldian informazio genomikoa biltzeko aukera ematen duten teknologia berriak garatu dira. Bilakaera horrek, fetuak nahasmendu genetikoak izateko arrisku handia duen kasuetan, haurdunaldien amaierari buruzko eztabaidak piztu ditu.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Nazionalsozialistek buruko gaixotasunak eta dibertsitate funtzionala zituzten pertsonetara jarrera bat al zetorren gainerako munduaren iritziekin?

Nola aldatu zen gaixotasun mentalak eta dibertsitate funtzionala zituzten pertsonen jazarpena nazionalsozialismoaren garaian?

Bilatu Aktion T4 programaren aurkako oposizio publikoari buruzko informazioa. Zer eskatzen zuten? Nola izan zuten programaren berri?

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZEKO MATERIALAK

Sareko baliabideak.

<https://lebensspuren.schloss-hartheim.at/>

<https://www.mauthausen-memorial.org/en/Gusen/The-Concentration-Camp-Gusen/Extermination/Aktion-14f13-Death-by-Gas-at-Hartheim-Castle>

EMAKUMEAK ETA NAZIONALSOZIALISTAK

Nazionalsozialismoaren garaian gizonen eta emakumeen bizipenak erabat desberdinak izan ez baziren ere, sexuaren arabera diskriminazioa eta jazarpena pairatu zituzten sarritan emakumeek. Batzuetan, umiliazioak generoaren arabera ziren; adibidez, emakumeak kaleak barruko arroparekin garbitzera edo gizonen aurrean biluztera behartzen zituztenean. Biktima batzuen kasuan, diskriminazioa larriagotu egin zen jazarritako beste kolektibo batzuen parte izateagatik (hala nola emakume ijituak eta juduak, edo buruko gaixotasunak eta dibertsitate funtzionala zituztenak). Naziek esperimendu medikoak egin zituzten emakume juduekin eta ijituekin; emakume asko [indarrez antzuteaz](#) gain, etikaren aurkako saiakuntza klinikoak egin zituzten haiekin.

NAZIONALSOZIALISMOAREN GARAIAN

Propaganda naziak segurtasunarekin eta amatasunarekiko errespetuarekin lotutako promesa faltsuak egin zituen. Horregatik, emakume askok alderdiari eman zioten botoa. 1933an boterera iritsi zirenean, ordea, emakumeen hainbat eskubide bertan behera utzi zituzten. Oro har, emakumeek beren autonomia mugatzen zuten garaiko gizartearen mende zeuden. 1933tik aurrera, nazien propaganda eta moda-aldizkariak begi txarrez ikusten hasi ziren galtzak, gona motzak eta jendaurrean erretzea. Batzuek eta besteek Alemaniako arau sozial tradizionalak jarraitzeko eskatu

zieten emakumeei. Emakume askok ez zuten gizarte-eskakizun horiekin bat egin, eta euren guneak eta ibilbideak eraiki zituzten.

Emakumeak komunitate ariar ideala sortzeko helburua zuten genero-politiken biktima izan ziren. Nazien arabera, etxean egon behar zuten, ama-lanetan eta haurrak zaintzen. Hala ere, arrazaren eta gizartearen aldetik "baliotsuak" ziren emakumeek soilik zuten ginekologia-arreta eta gizarte-prestazioak jasotzeko eskubidea. Jaiotzen aldeko neurri horiei kontrajarrita, Nurenbergeko arraza-legeak aplikatuz jazarritako pertsonen ugalketaren aurkako politikak ere bazeuden. 1934an, arrazaren "garbitasuna" babesteko, haurdunaldi "akastunak" etetea baimentzen zuen legea onartu zen. 1942an, emakume juduei ospitaleetan edo etxean erditzea debekatu zitzaizen Theresienstadteko ghettoan, haurdun zeuden emakumeak abortatzera

Ofizial naziak eta emakumezko kolaboratzaileak egurrezko zubi batean, Solahütten. Argazkia: United States Holocaust Memorial Museum.



behartzen zituzten; erditzen zirenak, Auschwitzera bidaltzen zituzten jaioberriarekin batera. Gainera, emakume haurdunak, haur txikien amak eta [haurrak](#) heriotzara bidali zituzten kontzentrazio-esparruetara iritsi bezain pronto, ez omen baitziren [langile gatibu](#) gisa aritzeko gai.

Emakumeak ere borondatezko kolaboratzaileak eta nazien erakundeetakokide izan ziren. Askok beren burua ahalduntzeko eta pobreziatik eta ordaindu gabeko zainketa-lanetik ihes egiteko aukera ikusi zuten. Gerraren amaieran, 500.000 emakume laguntzaile zeuden Alemaniako armadan; horietatik 3.700 inguruk kontzentrazio-esparruetako zaindari gisa lan egiten zuten. Emakumeak SSetako ofizialen idazkariak edo [eutanasia](#)-programako erizainak ere izan ziren, Irmgard Huber, esaterako, Hadamar eutanasia-zentroko erizain burua izan zen.

Ghettoetako emakumeak

Oro har, [ghettoetako](#) emakumeak bizirik irauten eta beren familiak babesten saiatu ziren. Askok uste zuten besteei laguntzea nazien erregimenaren etsipenaren eta deshumanizazioaren aurkako arma eraginkorra zela. Adibidez, laguntza-batzordeak sortu zituzten Varsoviako ghettoan. Bertan, ongizate-jantokiak ireki zituzten, arreta medikoa eskaintzen zuten eta eskola ematen zieten haurrei.

Emakumeak kontzentrazio-esparruetan

Kontzentrazio-esparru batzuk emakume presoentzat ziren soilik. 1939ko maiatzean [Ravensbrück](#) inauguratu zen, emakumeentzako kontzentrazio-esparruen sare baten ardatza izan zelarik. 1945ean, Ravensbrück askatzean, 100.000 emakume baino gehiago zeuden preso bertan. [Auschwitz](#) eta [Bergen-Belsen](#) aesparruek ee gune bereziak zituzten emakume presoentzat.

Emakumeak ere [bortxazko lan-sistemaren](#) parte ziren. Arropa konpontzen eta garbitzen zuten, sukaldetan aritzen ziren, etxeak garbitzeko destakamentuetan parte hartzen zuten eta inguruko fabriketan lan egiten zuten. Batzuk [prostituitzera](#) behartu zituzten, beste kontzentrazio-esparruetako gizonentzat



Hannah Szenes Palestinan, 1939an. Argazkia: egile ezezaguna, Wikimediaren bidez. 1.0 domeinu publikokoa.

sortutako burdeletan. Emakume askok elkartasun-sareak eratu zituzten kontzentrazio-esparruetan biziraupena errazteko informazioa, elikagaiak eta arropa partekatuz.

Erresistentziako emakumeak

Emakumeek eguneroko erresistentzian parte hartu zuten. Gerraren hasieran, gehienek uste zuten naziek ez zietela kalterik egingo emakumeei eta [haurrei](#). Gizonak ezkutatu egin behar izan ziren, atxiloteta arbitrarioak saihesteko; emakumeak, ordea, jatorrizko lekuetan geratu ziren, eta azalpenak eskatu zizkieten poliziarri, SSei eta udalei. Senideen atxiloteten aurka protesta egiten zuten eta atxilotuak askatzen saiatu ziren.

Emakumeek ere berebiziko garrantzia izan zuten [erresistentzia](#) antolatuan. Askok mandatarri gisa jardun zuten ghettoetara informazioa, dokumentuak, armak eta sendagaiak eramateko. Beste batzuk,

berriz, ghettoetako erresistentzia-taldeen buru izan ziren (Vitka Kempner kasu). Hannah Szenes Palestinara emigratu zuen judu hungariar bat izan zen. Handik Europara itzuli zen paraxutista gisaerresistentzia juduarekin bat egiteko, eta nazien aurka borrokatu zuen. Azkenean, tamalez, traizionatu eta exekutatu egin zuten.

NAZIONALSOZIALISMOAREN ONDOREN

Eskubide zibilen eta emakumeen aldeko mugimenduek aurrera egin ahala, emakumeek Holokaustoan izan zuten eginkizuna berraztertu da. Emakume juduei buruzko ikerketak baztertu egiten dira batzuetan; izan ere, batzuek diote ideologia naziak emakume juduak judu izateagatik jazarri zituela, eta ez emakume izateagatik. Hala ere, genero-ikuspunturik jasotzen ez duten nazismoaren historiari buruzko ikerketek emakumeei gertatu zitzaizkien azalpen mugatua baino ez dute ematen.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Zertan bereizi ziren gizonen eta emakumeen bizipenak nazionalsozialismoaren garaian?

Aukeratu emakume baten biografia eta egin gogoeta bizi izan dituen bizipenei buruz. Zergatik jazarri zuten? Zer gertatu zitzaion?

Hausnartu zure eguneroko bizitzari buruz. Bururatzen al zaizu zuk zeuk ikusi edo bizi izan duzun sexu-diskriminazioaren adibiderik? Zer gertatu zen? Nola erantzun zenuen? Nola erantzun zuten beste pertsona batzuek?

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZEKO MATERIALAK

Filmak:

<https://www.centropa.org/en/centropa-cinema/lilli-tauber-suitcase-full-memories>

<https://www.centropa.org/en/centropa-cinema/rosa-rosenstein-living-history>

<https://www.centropa.org/en/centropa-cinema/dagmar-lieblova-bohemia-belsen-and-back-again>

<https://www.centropa.org/en/centropa-cinema/renee-molho-bookstore-six-chapters>

Sareko testigantzak::

<https://vhaonline.usc.edu/login?returnUrl=/search>

<https://www.youtube.com/watch?v=LLXBGy5AGZY&list=PLj1tRCohZq83YAu-3OdyUyv3ZBB04E3g8>

<https://www.youtube.com/watch?v=K-bu8cqBdNtg&list=PLj1tRCohZq80gM-1Vu1r9W2GBPoweYwaXZ>

<https://www.centropa.org/en/centropa-cinema/elena-drapkina-jewish-partisan>

Bizipenak:

<https://www.jewishpartisans.org/content/jewish-women-partisans>

<https://jwa.org/encyclopedia/article/kashariyot-couriers-in-jewish-resistance-during-holocaust>

<https://msmagazine.com/2020/09/02/seven-indomitable-women-of-world-war-ii/>

<https://www.youtube.com/watch?v=V7NkyJlqpQ>

EUGENIA ETA EU-TANASIA NAZIONAL-SOZIALISMOAREN GARAIAN

Frida Richarden erretratua, Hadamar esparrutik bizirik atera zena. Askapenaren ondoren, jasotako tratu krudelen xehetasunak eman zituen gutun batean. Argazkia: United States Holocaust Memorial Museum.



NAZIONALSOZIALISMOAREN AURRETIK

Eugenesia nazionalsozialisten "eutanasia" bidezko erailtzailen oinarri ideologikoetako bat izan zen. Francis Galton XIX. mendeko antropologoak (eugenesiaren lehen ikertzaileetako bat izateagatik ezaguna) zera esan zuen: "Eugenesiaren xedea klase edo talde bakoitza, eredu onenekin irudikatzea da". [Eugenesia](#) oinarri zientifikorik gabeko teoria bat da, "arrazazurrerapena" eta "hautespen artifiziala" aldarrikatzeko garatu zena. Jarrantzaile asko izan zituen Estatu Batuetan eta Europan XX. mendearen hasieran.

Doktrina honen arabera, gizarte modernoaren arazo sozialak, hala nola delinkuentzia, alkoholismoa eta pobrezia, heredagarriak ziren, zenbait gaixotasun bezala. Beraz, eugenesiaren aldekoen helburu nagusiak honako hauek ziren: arazo horiek eragiten zituzten ezaugarri heredagarriak identifikatzea, irtenbide biologikoak garatzea eta osasun publikoko neurriak hartzea, ezaugarri horien hedapena geldiarazteko. Helburu horiek lortzeko, "arrazazitaleko" pertsonak [indarrez antzutu](#) zituzten.

Lehen Mundu Gerraren ondoren, Alemaniak krisi ekonomiko larria bizi zuen, eugenesiaren ospea bultzatu zuena. Jende asko eugenesiaren aldeko hitzaldiak begi onez ikusten hasi zen, eta maila

beheragokotzat, ahultzat, gaixotzat edo endekatutzat hartzen ziren pertsonen aurkako gorrotoa zabaldu zen. Egoera sozialaz, pertsona horien egoera fisikoa ere arriskutsua omen zen komunitatearentzat. 1933an, ideia horiek erabat zabaldua zeuden.

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN GARAIAN

[Arraza-higienea](#) deituriko doktrinak nazionalsozialisten arraza-politika asko moldatu zituen. Politika horiek medikuntzako profesionalek aplikatzen ohi zituzten "herentziaz gaixotzat" jotzen zirenen aurka. Herrialdearentzat zama genetiko eta finantzarioa zirela esaten zen. Eugenesiaren aldeko lehen neurrietako bat gaixotasun heredagarriak zituzten pertsonen ugalketa saihesteko legea izan zen, 1933an onartu zena. Ondorioz, 400.000 alemaniar inguru indarrez antzutu zituzten gerra amaitu aurretik. Estimazioen arabera, kasuen erdiak diagnostiko soziala zuten. 1935eko ezkontza-legeak ([Ehegesundheitsgesetz](#)) osasun publikoko bulegoak emandako ziurtagiri bat aurkezteko betebeharra ezarri zuen ezkontzeko. Gainera, "pertsona osasuntsuen" eta "herentziaz gaixotutakoen" arteko ezkontzak debekatu ziren.

1939an, Reicheko erakunde medikoetan barneratutako pazienteen hilketa sistematikoa planifikatzen hasi ziren naziak. Hala ere, prozedura legez kanpokoa zen nazional-sozialisten legeriaren arabera, eta, beraz, isilpean jardun behar izan zuten. "Sonderaktion" edo "T4" bezalako ezkutuko terminoak erabiltzen zituzten talde arduradunaren bulego nagusia izendatzeko (Berlingo [Tiergartenstraße 4](#) kalea). Hala ere, "Aktion T4" terminoa ez zen erabili gerra amaitu arte. Nazionalsozialisten mundu-ikuskerak pertsona sendoen eskubideak loriatzen zituen, ahulezia mespretxatzen zuen bitartean. Eugenesiak piztutako gorrotoazbaliatu ziren naziak. Izan ere, [Aktion T4](#)" delakoa Alemaniako eutanasia-programaren giltzarria izan zen. Edonola ere, paziente psikiatrikoen hilketa 1939ko udazkenean hasi zen Polonian. Bertan eraiki ziren lehen [gas-ganberak](#), Poznań hirian. Geroago, Philipp Bouhler eta Karl

Brandt medikuaren zuzendaritzapean, gas bidezko hilketak gauzatzeko sei zentro ireki ziren Alemaniako Reichean: [Brandenburg an der Havel](#) Berlindik gertu; [Grafeneck](#) Ulm hiriaren aldamenean; [Bernburg](#) Saxonia-Anhalt landerrean; [Pirna-Sonnenstein](#) Dresdenetik gertu; [Hartheim](#) Linz (Austria) inguruan; eta [Hadamar](#) Limburgen. 70.000 pertsona baino gehiago hil zituzten sei esparru horietan 1941eko abuztura arte, "Aktion T4" eten zen arte.

"Aktion T4" programa indarrean egon zen bitartean, biktimak hautatzeko eta hiltzeko ardura zuten pertsonak desberdinak ziren. Gainera, bi prozesuak leku berezietan garatzen ziren Urteak igaro ahala, berriz, eutanasia bidezko hilketak zentroetako eguneroko errutinan integratu ziren, eta biktimak hautatzeko arduradunak heriotzen egileak berak izaten ziren. Gerra amaitu arte, pertsona gehiago hil ziren gosez eta medikamentuen gaindosiz "Aktion T4" programaren ondorioz baino (paziente geriatrikoak, bonbardaketen biktimak eta [langile gatibuak](#) barne). Estimazioen arabera, 300.000 pertsona inguru hil zituen guztira eutanasia-programak Alemanian eta lurralde okupatueta.

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN ONDOREN

Aliatuen garaipenaren ondoren, "eutanasia-programaren" egileen aurkako epaiketak egin ziren (batzuetan, krimenen eszenan bertan). [Kaltegile](#) nagusietako batzuk Nurenbergeko epaiketetan epaitu zituzten: Karl Brandt heriotzara kondenatu zuten, eta Philipp Bouhlerrek bere buruaz beste egin zuen atxilotu eta gutxira.

Gerraostean, ia inork ez zuen krimen horiei buruz hitz egin nahi, ezta biktimen senideek ere. Behartutako antzutzeeen eta erailketen arduradun izan ziren mediku eta legegileek aurrera egin zuten unibertsitatean edo zerbitzu publikoan, inongo oposiziori aurre egin gabe. "Eutanasia" bidezko hilketetan parte hartu zuten mediku eta funtzionario gehienak zigorrik gabe atera ziren.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Eugenesiaren aldekoek "irtenbide biologikoak" proposatu zituzten arazo sozialei aurre egiteko, eta babes zabala lortu zuten. Zergatik?

Zergatik uste duzu "eutnasiaren" biktimen senide eta indarrez antzutu zituzten pertsona asko isilik geratu zirela gerraostean?

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZEKO MATERIALAK

Hartheim gazteluko dokumentazio-zentroa:

<https://www.schloss-hartheim.at/en/research/documentation-centre-hartheim/hartheim-memorial-book>


Sareko erakusketak eta artxiboak:

<https://www.schloss-hartheim.at/en/>

<https://www.gedenkstaette-hadamard.de/en/history/the-t4-programme-and-the-hadamard-killing-centre-1941/>

ERBESTEA NAZION- ALSOZIALISMOAREN GARAIAIN

Setty Sondheimer andrearen pasaportea, Ekuadorko bisa batekin. Argazkia: United States Holocaust Memorial Museum.



NAZIONALSOZIALIS- MOAREN AURRETIK

[Erbesteratzea](#) norbaitbere herrialdea edo jaioterra uztera behartua izatea da. Historian zehar eta gaur egun, askok egoera ekonomiko edo politikoengatik erbesteratu behar izan dute, edo jazarpenetatik ihes egiteko. Erbesteratzeak min emozionala eragin dezake, jaioterra uzteak familiarekiko, komunitatearekiko eta [ondare kulturalarekiko](#) loturak haustea baitakar.

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN GARAIAIN

Jazarritako taldeentzat eta beste biktima batzuentzat, nazionalsozialismoak Alemanian izan zuen gorakadak erabaki zaila ekarri zuen: kontrako giro zalantzarri batean geratzea, edo atzerrira joatea eta bere erroekin haustura pairatzea, familiaratik urrun. XX. mende hasierako judu nabarmenetako batzuk, Albert Einstein zientzialaria eta Arnold Schoenberg konpositorea kasu, atzerrian erbesteratu ziren. Erbesteratuek nazionalsozialisten biktimak defendatzen eta nazien erregimena salatzen jarraitu zuten. Esate baterako, 1933an [juduak](#) Alemaniako unibertsitateetatik kanporatu

zituzten, eta horren aurka aldarrikatzeko New Yorkeko Gizarte Ikerketa Eskolak Erbesteko Unibertsitatea sortu zuen.

Nazien okupazioaren ondorioz, zibil askok jaioterritik ihes egin behar izan zuten, eta herrialde seguruagoetan erbesteratu. Askok ez zuten helmugarik buruan bidaiari ekiteko orduan; ez zuten kontingentzia-planik, eta ez zeuden prestatuta bidai luzetarako. Horixe izan zen beste herrialde batzuetara ihes egiten saiatu ziren poloniar askoren patua; izan ere, haien jaioterritik Sobietar Batasunera deportatu zituzten horietako asko, 1939an SESBak Poloniako zati bat okupatu ondoren. 1941ean unitate militar bat sortu zen Sobietar Batasunean, Andersen Armada izenarekin ezaguna. 1942an, Sobietar Batasuna uzteko eta britainiarrek Iranen kontrolatzen zuten lurraldera joateko baimena eman zieten unitateko kide batzuei, milaka zibilekin batera.

Sarritan, hainbat faktorek oztopatu zuten erbesteratzea. Askorentzat, emigrazio-baimenak eta Alemania nazitik ateratzeko ordaindu beharreko zerga oztopo gaindiezinak izan ziren. Nazioarteko errefuxiatu-olotua 1938an eztabaidatu zen Frantziako Evian hirian egindako konferentzia batean. Hala ere, bildutako estatu gehienak ez zeuden immigrazioari jarritako murrizketak leuntzeko prest, eta horrek nazismotik ihes egin nahi zutenen aukerak are gehiago mugatu zituen.

Okupatutako lurraldeetako juduak etengabe ihes egiten saiatu ziren. Milaka errefuxiatu ihes egin zuten Bulgariako eta Errumaniako Itsaso Beltzeko portuetatik, eta [Palestina](#) jo zuten, garai hartan britainiarren menpe. Beste asko Lituaniatik ihes egin, eta Japoniara trenez iristen saiatu ziren, Transiberiar Trenbidea hartuz. Leku batzuetan errefuxiatu juduen komunitate handiak kokatu ziren (adibidez, Shangaiko ghettoa, Txinan). Askorentzat, berriz, erbesteratzea ez zen inoiz aukera egingarria izan. European harrapatuta gelditu ziren.

Erbesteko gobernuak

Nazionalsozialismoa European zehar hedatu ahala, [herrialde okupatuetako](#) gobernu eta politikari demokratikoek ihes egin behar

izaten zuten eta okupatu gabeko Europako lurraldeetan kokatu ziren. Londres [erbestean zeuden](#) Europako gobernu eta politikari askoren egoitza bihurtu zen; besteak beste, Polonia, Norvegia, Herbehereak, Belgika, Luxenburgo, Txekoslovakia eta Greziakoenak. Horren ondorioz, Erresuma Batuko Parlamentuak 1941eko pribilegio diplomatikoen legea zabaltzea berretsi zuen, herrialde askotako [erresistentzia-mugimenduetako](#) kideei babesa emateko. Erbesteko gobernuak euren herrialdeen independentzia mantentzen saiatu ziren, gerra-ahaleginari laguntzen, eta euren biztanleei okupazioaren eta gerraren ondorioei aurre egiten laguntzen.

Erreskate-misioak

Gobernuek eta itzel handiko pertsonak Europatik ihes egiten lagundu zieten jazarritako taldeetako kideei. Esaterako, 1944an, Budapestean, Raoul Wallenberg eta Carl Lutz diplomatiko suediarrek, Giorgio Perlasca italiarrarekin batera (espainiar diplomatikogisa aurkezten zuten bere burua),

Jan Karski in 1914. Image by Międzynarodowy Instytut Dialogu i Tolerancji im. Jana Karskiego



herrialde neutralen babes-ziurtagiriak eman zizkieten milaka pertsonari. Ziurtagiri horiei esker, politika antisemita askotatik babestuta zeuden. Beste pertsona batzuek, hala nola Jan Karskik, Poloniako erbesteko gobernuaren mezulariak, ghettoetan eta kontzentrazio-esparruetan pairatutako baldintzei buruz kontzientziatzea zuten helburu. 1942an, Karski [Varsovia](#) eta [Izbicako](#) ghettoen liderrarekin bildu zen, eta [Betżec](#) kontzentrazio-esparruko hilketa masiboetako buruzko txostenak helarazi zizkien agintari aliatuei, eta AEBetako presidenteari ere.

NAZIONALSOZIALISMOAREN ONDOREN

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, bizirik atera ziren askok aliatuek administratutako [errefuxiatu-esparruetan](#) aurkitu zuten babesa. Milioika europar erbestean bizi ziren.

Horien artean, Espainiatik eta Francoren diktaduratik ihes egin zuten errefuxiatuak zeuden, Sobietar Batasunak kontrolatutako lurraldeetako biztanle ohiak, eta Ekialdeko Europako herrialdeetara itzuli ezin ziren alemaniarak. Bereziki judu askok ez zuten itzultzeko lekurik. 1948an Israel sortu zen arte, Palestina britainiarrean legez kanpo sartzen saiatzen ziren judu europarrak Zipreko atxilotze-esparruetan sartzen zituzten.

Bigarren Mundu Gerran ihes egin zuten askok ezin izan zuten inoiz etxera itzuli. Isolamenduari, [xenofobiari](#), [antisemitismoari](#), [arrazakeriari](#) eta segurtasun ekonomikorik ezari egin behar izan zieten aurre. Immigrazio-prozesu luze korapilatsua igaro behar izan zuten harrera-herrialdeetan geratzeko edo hirugarren herrialdeetara joateko. Adibidez, Estatu Batuetan babesa aurkitu zuten askok dokumentu ugari lortu behar izan zituzten bisa lortzeko. Besteak beste, nortasun-agiriak, polizia-ziurtagiriak, irteera- eta igarotze-baimenak eta finantza-egoerari buruzko zinpeko adierazpenak; jakina, ez zen erraza gerra ostean agiriok eskuratzea. Munduan gatazkak nagusi diren bitartean, Ukraina eta Siria bezalako herrialdeetako biztanleek antzeko egoerei aurre egin behar diete gaur egun ere.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Zer betebeharrak dituzte herrialdeek errefuxiatuei laguntzeko?

Zer zailtasuni egin behar diete aurre beste herrialde batera ihes egiten dutenek?

Ba al dago iraganeko eta gaurko errefuxiatuen arteko antzekotasunik?

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZEKO MATERIALAK

Bizipenak eta sareko testigantzak.

<https://collections.ushmm.org/search/catalog/irn504341>

<https://encyclopedia.ushmm.org/content/en/oral-history/miriam-lewent-describes-deportation-to-a-village-near-tomsk-siberia?parent=en%2F7045>

<https://encyclopedia.ushmm.org/content/en/article/jan-karski>

<https://encyclopedia.ushmm.org/content/en/oral-history/charlene-schiff-describes-difficulties-in-gaining-entry-to-the-united-states-in-the-aftermath-of-the-holocaust?parent=en%2F2419>

<https://holocaustmusic.org/resistance-and-exile/composers-in-exile/>

Sareko bildumak:

<https://collections.ushmm.org/search/catalog/irn502051>

<https://mjhnyc.org/blog/new-beginnings-jewish-refugees-after-the-holocaust/>

Erbesterako bideen mapa animatua.

<https://encyclopedia.ushmm.org/content/en/animated-map/rescue>

ESLAVIARRAK ETA NAZIONALSOZIALISTAK

NAZIONALSOZIALISMOAREN AURRETIK

Eslaviarrak Erdialdeko, Ekialdeko eta Hego-ekialdeko Europan, herrialde baltikoetan eta Erdialdeko Asian bizi izan diren talde etnolinguistikoak dira. Ilustrazioaz geroztik, Mendebaldeko Europan askok uste zuten Ekialdeko Europa eta Europako Hego-ekialdea kontinenteko gainerako herrialdeen azpitik zeudela. Hala pentsatzen zuten industrializazioa geroago gertatu zelako lurralde horietan, eta sistema sozioekonomiko feudalei berandu arte eutsi zirelako. XIX. mendeko

Ljubica Gerovac, Jugoslavia okupatuan erresistentzia antifaxistaren mugimenduko kidea. Argazkia: Partizanske novine, 1. svibnja 1942 (Wikimediaren bidez). 1.0 domeinu publikokoa.



arrazismo zientifikoaren gorakadarekin, pentsalari europar nabarmenek (adibidez, Arthur de Gobineau frantziarra) eslaviarrak maila beheagoko zurriz hartu zituzten. Alemanian, diskurtso horiek XIX. mendearen amaieran Prusiak okupaturako Polonian ezarritako politiketan islatu ziren, besteak beste. Tokiko kulturaren aurka egitea zuten ezaugarri.

Lehen Mundu Gerran herri eslaviarren aurkako iritzi arrazistekin bat zetozen erasoak gertatu ziren. Austria-Hungariako armadak arpilatzeak, bortxaketak, hilketa arbitrarioak eta zibil serbiarren exekuzio masiboak egin zituen. Gerraostean, Alemaniaren lurralde-galeren eta Erdialdeko eta Ekialdeko Europan estatu-nazio berriak sortzearen ondorioz (hala nola Txekoslovakia, Jugoslavia eta Polonia), are gehiago areagotu zen eslaviarren aurkako sentimendua.

NAZIONALSOZIALISMOAREN GARAIAN

Nazionalsozialistek "behe mailako gizakitzat" jotzen zituzten eslaviar herriak, bereziki Polonia, Jugoslavia eta Sobietar Batasunekoak, naziek goragokotzat hartutako "ariar" arrazakoak ez baitziren. Nazionalsozialisten kanpo-politika hedatzaileak Ekialdeko eta Hego Ekialdeko Europan [garbiketa etnikoa](#) egitea zuen ardatz. Erregimenak eslaviarren aurkako iritzi arrazistak ekintza politiko bihurtu



Tadeusz Boy-Żeleński. 1941ean Lviv hirian hil zuten idazlea eta itzultzailea, akademiko poloniarren aurkako sarraski batean. Argazkia: Narodowe Archiwum Cyfrowe (Wikimediaren bidez). 1.0 domeinu publikokoa.

zituen; adibidez, [Generalplan Ost](#), planak, Ekialdeko Europako lurraldeak kolonizatzea eta "germanizatzea" helburu zituen. Horretarako, beharrezkoa zen lurralde berriak espoliatzea, milioika pertsona lekualdatu eta kanporatzea eta langile gatibuen esparruak sortzea. Era berean, Ekialdeko Europan okupatutako lurraldeak "germanizatze"ko, [haur eslaviarrak](#) bahitu zituzten, umeok "ariar" gisa hezteko edo langile gatibu bihurtzeko asmoarekin.

Alemania naziaren eta eslaviar populazioa zuten herrialdeen arteko harremanak ez ziren beti berdinak izan. Herrialde horietako batzuek naziekin kolaboratu zuten. Adibidez, Ukrainak independentzia berreskuratzeko helburuarekin kolaboratu zuen. Horrekin batera, erregimenak herrialde horietako batzuk okupatu zituen, eta bertako biztanleak jazarpen eta indarkeria masiboaren mende jarri zituen. Polonian, nazionalsozialistek bertako eliteko milaka kide hil edo espetxeratu zituzten, alemaniarren okupazioaren

aurkako [erresistentziaren](#) buru izango ziren beldur. Halaber, gutxienez 1,5 milioi poloniar deportatu zituzten Alemaniako lurraldeetara, baldintza kaskarretan [bortxazko lanak](#) egiteko, eta ehunka mila gehiago [kontzentrazio-esparruetan](#) Trespexeratu zituzten. Naziek ehunka gizon poloniar hil zituzten emakume alemanekin sexu-harremanak izateagatik, "arraza ariarrarentzat" mehatxua zelakoan.

Europako hego-ekialdean, nazionalsozialistek ekintza oso bortitzak egin zituzten tokiko biztanleen aurka. [Wehrmacht](#) milaka zibil serbiar hil zituen alemaniar okupazioaren aurkako erresistentzia mendekatzeko eta zigortzeko. Sarraski horietako bat [Kragujevac](#) hirian gertatu zen 1941eko urrian. Alemaniako soldaduek 2.800 zibil serbiar hil zituzten, eskola-umea eta haien irakasleak barne.

Eskualdeko herrialde batzuk nazionalsozialistekin aliatu ziren edo erregimenaren [estatu txotxongilo](#) bihurtu ziren. Adibide bat Ustaše taldeak ezarri zuen erregimena izan zen (Kroaziako Estatu Independentea, alegia). 1941etik 1945era okupatutako Jugoslaviako lurralde batzuetan izanzen, egungo Bosnia-Herzegovina, Kroazia, Serbia eta Eslovenian, hain justu. Ustaše talde faxista eta ultranazionalista nazien arraza-ideologian oinarritu zen, eta beste eslaviar batzuk (serbiarrak bereziki), juduak eta erromaniak "behe mailako gizakitzat" jotzen zituen. Jatorri horietako ehunka mila pertsona hil zituzten.

Askotan, eslaviarren aurkako arrazakeria bat zetorren antikomunismoarekin. Nazionalsozialistek "piztiak" eta "animaliak" deitzen ohi zieten errusiarrei.

Leningradeko setioan (1941eko irailetik 1944ko urtarrilera), Alemania naziak eta bere aliatuek gosearen mende utzi zituzten hiriko biztanleak, "germanizazio" estrategiaren barruan. Sentimendu antikomunista orokorra zen garaiko Alemanian; horregatik, errusiarrek "behe mailako gizakitzat" jotzeaz gain, Europako gizartearentzat mehatxu "judu-boltxebikea" zirela zioen propaganda naziak. Komunista askok aktiboki parte hartu zuten Alemania naziaren aurkako eskualdeko erresistentzian, Jugoslaviako partianoak barne, 1941ean



Antzezlana partisoentzako ospitale batean. Argazkia: Znaci, Wikimediaren bidez. 1.0 domeinu publikokoa.

Josip Broz Titoren gidaritzapean elkartu zirenak. Erresistentzia-mugimenduen baloraziohistorikoa lan konplexua da: Jugoslaviako partisoek Alemaniak okupatutako lurralde batzuk arrakastaz askatu zituzten arren, gerra garaian eta ondoren zibilak ere hil zituzten (adibidez, nazien [kolaboratzailetzat](#) edo jarraitzailetzat hartzen zituzten herritarrak).

NAZIONALSOZIALISMOAREN ONDOREN

[Gerra Hotzaren](#) garaian, sentimendu antikomunista orokorra zen Mendebaldeko Europan eta estatu aliatuetan. Horren ondorioz, Ekialdeko eta Hego-ekialdeko Europako biztanleei buruzko estereotipoak betikotu ziren, bloke sozialistaren mende baitzeuden gehienbat. Gerra Hotza amaitu ondoren, mendeetan zehar herri eslaviarrek elkarren aurka pilatutako tentsioek gatazka handiak sortu zituzten, hala nola Jugoslavia desegin ondoren Europa hego-ekialdean izandako gerrak 1991 eta 2001 artean,.

Gaur egun, eslaviarren aurkako arrazismoa aurreiritzietan eta estereotipoetan islatzen da Europan, baita mespretxuzko hitz eta txisteetan ere. Populistek eta eskuin muturreko nazionalistek xenofobia, arrazakeria eta iritzi antidemokratikoak hedatzeko erabiltzen dituzte tirabirak.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Beste talde batzuek pairatutako jazarpenerekin alderatuta, zer antz eta zer ezberdintasun zituen eslaviarren aurkako arrazismoak?

Zein da eslaviarren egungo egoera zure herrialdean? Zer jarrera arrazista eta xenofobo mantendu dira eslaviarren aurka Mendebaldeko Europan, eta zeintzuk desagertu dira?

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZEKO MATERIALAK

Sareko baliabideak

<https://encyclopedia.ushmm.org/content/en/article/documenting-numbers-of-victims-of-the-holocaust-and-nazi-persecution>

<https://www.hmd.org.uk/learn-about-the-holocaust-and-genocides/nazi-persecution/non-jewish-oles-and-slavic-pows/>

<https://neu.org.uk/media/2811/view>

www.het.org.uk

<https://digitalcollections.library.gvsu.edu/document/42462>

<http://www.jhmf.org.uk/>

<https://documenta.hr/en/slana-concentration-camp-1941/>

GUTXIENGO ERLIJI- OSOAK NAZIONALSO- ZIALISMOAREN GARA- IAN

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN AURRETIK

Alemanian gutxiengo erlijiosoak (adibidez, [musulmanak](#), [Jehovaren Lekukoak](#) edo [kuakeroak](#)) nazionalsozialismoa baino askoz lehenago zeuden. Judaismoa ere erlijio minoritarioa zen, baina jasan zituzten jazarpenaren eta diskriminazioaren berezitasuna dela eta, [biktima juduek](#) berezko atala dute azalpen honetan. Jehovaren Lekukoak Estatu Batuetan sortu ziren 1872an, eta 1890eko hamarkadan hasi ziren predikua egiten Europan. Hasieran, Bibliako Ikasleak izena hartu zuten eta, geroago, Bibliako Nazioarteko Ikasleen Elkarte (alemanez, Internationale Bibelforscher-Vereinigung edo IBV). Alemanian Jehovaren Lekukoak 25.000-30.000 erlijio-kide inguru zeuden 1930eko hamarkadaren hasieran. Nazionalsozialismoaren aurretik ere diskriminazioa pairatu zuten, fededun gehien zituzten erlijioek (talde luteranoak eta Eliza Katolikoa, alegia) [heretikoak](#) zirela salatzen baitzuten.

Lagunen Elkarte, Kuakero izenez ere ezaguna, duela mende askotatik gizarte-mugimenduetan parte hartu duen erlijio-talde txiki bat da. Esklabutzaren aurka agertu ziren Estatu Batuetan. Kuakeroak XVII. mendean sortu ziren Ingalaterran, baina azkar hedatu ziren Europan eta

Karl-Heinz Kusserow Jehovaren lekukoa Alemaniako Dachau eta Sachsenhausen kontzentrazio-esparruetan preso sartu zuten bere sinesmenengatik. Argazkia: United States Holocaust Memorial Museum.



britainiar kolonietan. Bakezaleak izan arren, sorospen-jarduerak eginez eta [laguntza humanitarioa](#) eskainiz mundu-gerretan parte hartu zuten.

NAZIONALSOZIALISMOAREN GARAIAN

Jehovaren Lekukoak

Jehovaren Lekukoak aurkako jazarpena 1933tik 1945era arte luzatu zen. Naziek zelatatu egin zituzten haien sinesmenengatik, alderdiko erakundeetako kide egiteari edo hauteskundeetan parte hartzeari uko egin baitzioten. Naziak boterera iritsi eta hilabete batzuetara, estatu federatuetako gobernuak (batez ere Bavaria eta Prusiakoak) Jehovaren Lekukoak jazarpen hasi ziren. Esaterako, erlijio-kideen bilerak desegin, eta haien bulegoak arpilatu eta okupatu zituzten. [Gestapoko](#) unitate berezi batek Jehovaren Lekukoak ustezko kideen erregistroa egin zuen, talde erlijioso horren jardura gehienak erregimen berriaren politiken eta ideologiaren aurka zeudelako. Adibidez, 1935eko martxoan, derrigorrezko soldadutza berriz onartu ondoren, Jehovaren Lekukoak uko egin zioten errekrutatua izateari edo armadan lan egiteari. Debekatuta ez egon arren, talde erlijiosoaren jardura asko ez zetozen bat erregimen berriaren politikekin, eta horregatik naziek disidentetzat hartu zituzten. Jazarritako beste talde batzuek ez bezala, Jehovaren lekukoak jazarpenetik libratzeko aukera zuten, fedeari uko egin eta armadan sartzen baziren. Hala eta guztiz

American Friends Service Committee elkarteak ordezkaritza kuakeroak. Sorospen- eta erreskate-operazio bat jarri zuten abian Tolosa Okzitanian, Frantzia, 1941eko urtarrilean. Argazkia: United States Holocaust Memorial Museum.



ere, oso erlijio-kide gutxi onartu zituzten baldintza horiek.

Estimazioen arabera, 1939an 6.000 Jehovaren lekuko zeuden espetxeetan eta [kontzentrazio-esparruetan](#). [Triangelu moreen](#) bidez identifikatzen zituzten. Beste askok ihes egin zuten, edo ihes egiten saiatu. Gutxienez 1.400 Jehovaren lekuko hil zituzten esparruetan. Beste 273, berriz, hiltzera kondenatu zituzten auzitegi militarrek, soldadutzari uko egiteagatik.

Kuakeroak

Nazionalsozialismoaren hasieratik, kuakeroen nazioarteko zentroek sorospen-lanei ekin zieten (jantoki sozialak, haurtzaindegiak, etab.). 1938ko azaroko [Kristallnacht sarraskiaren](#) ondoren, gehiago inplikatu ziren errefuxiatuei Europatik Estatu Batuetara ihes egiten laguntzen. 1939an, 3.000 kasu berri hartu zituzten beren gain. Laguntza-erakunde gehienek errefuxiatu-talde jakin batzuetan arreta jarri zuten bitartean, kuakeroek inolako sustengurik jasotzen ez zutenei laguntzen zieten. Adibidez, ariarrak ez ziren kristauei (haien burua judutzat hartzen ez zuten [ustezko juduak](#)) eta juduen eta ez-juduen arteko ezkontza mistoetako bikoteei. Gainera, beste erakunde batzuekin koordinatu ziren, ahalik eta pertsona gehienei laguntzeko (besteak beste, Errefuxiatuen Zerbitzu Nazionala, Etorkinei Laguntzeko Elkarte Hebrearra edo Emakume Juduen Kontseilu Nazionalarekin).

Musulmanak

Gutxi baziren ere, musulmanak ere kontzentrazio-esparruetan sartu zituzten. Zenbait erregistroren arabera, musulmanak Auschwitzeko 400.000 presoetatik 53 baino ez ziren; beste ikertzaile batzuek, aldiz, gutxienez 1.000 biktima izan zirela diote. Naziek ez zituzten musulmanak jazarri erlijio- edo arraza-arrazoiengatik, erregimenak Afrikako iparraldean zuen interesagatik baizik. Biktima gehienak armada sobietarreko kideak edo aurkariak ziren.

Erresistentzia espirituala

Nazionalsozialismoaren aurkako [erresistentziak](#) forma asko hartu zituen, armatuak zein baketsuak. Hona hemen adibide batzuk: ghettoetatik eta kontzentrazio-esparruetatik ihes egiteko saiakera antolatuak, erregimenaren jarraibideak ez betetzea, legez kanpoko kontrabandoa [ghettoetan](#) eta erresistentzia espirituala. Erresistentzia espirituala gizabanakoek gizatasunari, zuzentasunari, duintasunari eta zibilizazioari eusteko ahaleginak hartzen ditu barne, erregimen naziak eragindako deshumanizazioaren eta degradazioaren aurrean. Horretarako, kultura- eta hezkuntza-jarduerekin jarraitu zuten, komunitatearen usadioak dokumentatu zituzten eta erlijioa edo bestelako sinesmenak ezkutuan praktikatu zituzten. Jehovaren Lekukoek kontzentrazio-esparruetan biltzen eta otoitz egiten jarraitu zuten. [Buchenwald](#), inprimategi klandestino bat sortu zuten eta erlijio-panfletoak banatu zituzten.

NAZIONALSOZIALISMOAREN ONDOREN

Gaur egun, Europan gutxiengo erlijiosoen aurkako diskriminazioak ez du indarkeria fisikorik eragiten eta, beraz, ezin da alderatu nazionalsozialismoaren garaiarekin. Gaur egun, diskriminazioa beste modu batzuetan agertzen da; adibidez, hitzezko eraso bidez edo sinbolo erlijiosoak agerian daramatzatenak jazarri. Hala ere, ukalezina da gutxiengo erlijiosoak diskriminatuak eta jazarriak izaten jarraitzen dutela munduko herrialde askotan.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Zergatik jazartzen dituzte gobernuek eta ideologiek erlijio-taldeak? Nola egin dakioke aurre jazarpenari?

Sarritan, lehenik (edo soilik) erresistentzia bortitzean pentsatzen dugu erregimen zapaltzaile bati aurre egiteko. Zein da erresistentzia espiritualaren garrantzia?

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZEKO MATERIALAK

Informazio gehiago.

<https://www.jw.org/en/jehovahs-witnesses/faq/jw-holocaust-facts-concentration-camps/>

<https://encyclopedia.ushmm.org/content/en/article/nazi-persecution-of-jehovahs-witnesses>

Sareko artxiboa.

<https://www.ushmm.org/collections/the-museums-collections/curators-corner/the-nazi-persecution-of-jehovahs-witnesses-the-kusserow-collection>

Sareko testigantzak.

<https://www.hmd.org.uk/resource/simone-arnold-liebster/>

HAUR LAPURTUAK NAZIONALSOZIALIS- MOAREN GARAIAN

Amentzako etxea Steinhöringen, Lebensborn programaren babespean. Argazkia: Bundesarchiv B 145 Bild-F051638-0059 / CC-BY-SA 3.0.



NAZIONALSOZIALIS- MOAREN AURRETIK

Estatuak antolatutako haurren bahiketak ez ziren praktika berriak 1930 eta 1940ko hamarkadetan. Haurrak lapurtzeko sistema nazionalsozialista ezarri baino urte batzuk lehenago, [Espainia frankistak](#) sistema zabal bat sortu zuen familia ezkertiarrei eta langile klaseko familiei haurrak lapurtzeko, erregimen faxistarekiko leialak ziren familiek adopta zituzten. Beste leku batzuetan (esaterako, Australian, Kanadan, Estatu Batuetan eta Groenlandian), haur indigenak beren familietatik aldentuz, jatorrizko kulturak eta komunitateak desagerrarazteko ahaleginean.

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN GARAIAN

Nazionalsozialistek milaka haur bahitu zituzten [Alemaniak okupatutako lurraldeetan](#). 1944an, Heuaktion (belarra) deituriko operazioan, nazionalsozialistek poloniar etniako milaka haur bahitu zituzten, eta Alemaniara eraman, bertan langile gatibu gisa jardun zezaten. Beste haur batzuk bahitu egin zituzten arrazaren aldetik "desiragarriak" zirelako.

Haurren bahiketa errazteko programa nagusietako bat [Lebensborn](#), delakoa izan zen. Nazien arraza-ideologia zabaltzeko helburua zuen, haur "ariarren" kopurua handituz, bai Alemanian bertan eta baita Alemaniak okupatutako lurraldeetan. Lebensborn programaren instalazioak (SSen Arraza eta Asentamendu Bulegoaren mendekoak), arrazaren aldetik "desiragarritzat" jotzen ziren emakumeek

beren seme-alabak isilpean erditzen zituzten lekuak ziren; segidan, beste familia batzuek adoptatzen zituzten jaioberriak. Ariarren jaiotza-tasa handitzeko helburua lortzeko gai ez zirela ohartzean, SSak "arrazariarren" antzeko ezaugarriak zituzten haurrak bahitzen hasi ziren Ekialdeko Europan eta Norvegian okupatutako lurraldeetan: begi urdinak, ile horia edo azal argia zuten umeak bahitzen zituzten.. Izen alemaniarrek jartzen zizkieten, eta Alemaniara bidaltzen zituzten hango familiei adopzioan emateko; batzuetan, haurtzaindegi, ama-eskola edo etxe berezietara eramaten zituzten. Germanizazio-kanpainari jarraikiz, naziek haurren jaiotza-datak aldatzen zituzten askotan, benetako nortasunak ezkutatzeko eta inork aurkitu ez zituzten. Sarritan, haurrak lurraldeen arteko bidaietan hiltzen ziren.

Haurrak hautatzeko prozesua haur-hezkuntzako guneetan egiten ohi zen ([Kindererziehungslager](#)), arrazaren aldetik "desiragarriak" ziren ala ez zehaztu ondoren. Horretarako, hainbat ezaugarri fisiko hartzen zituzten kontuan, hala nola gorputzaren proportzioak, begien eta ilearen kolorea edo garezurraren forma. Baztertutako haurrak kontzentrazio-esparruetara bidaltzen zituzten, bai hiltzeko, bai haiekin esperimendu medikoak egiteko.

NAZIONALSOZIALISMOAREN ONDOREN

Haurrak beren etxeetara itzuli ziren 1945. urtearen ondoren familiak bizirik bazeuden, adingabe bakoitzaren nortasuna egiaztatu ondoren. Nazioarteko Bilaketa Zerbitzuko Haur Sailak ahalbidetu zuen lan hori. Ume asko, bereziki familia biologikoa gogoratzen ez zuten haur txikienak, Alemanian geratu ziren adopziozko familiekin, eta ez ziren inoiz itzuli. Poloniako agintarien arabera, 200.000 haur inguru lapurtu zituzten Polonian. Oraindik ez dakigu zenbat ume lapurtu zituzten beste herrialde batzuetan.

Geraubte Kinder - Vergessene Opfer (Haur lapurtuak, biktime ahaztuak) Alemanian jarduten duen erakundea da. Nazionalsozialistek bahitutako biktimek ordainak eta justizia eskura ditzaten lan egiten du. 2022an, Baden-Württemberg

estatuko parlamentuari nazionalsozialistek bahitutako haurrentzako kalte-ordainak ordaintzea lortu zuen.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Bilatu gerretan lapurtutako haurren beste kasu batzuei buruzko informazioa (adibidez, Espainian, Txilen edo Argentinan). Zer antzekotasun dituzte? Zertan bereizten ziren naziek lapurtutako haurren kasuak eta beste herrialdeetakoak?

Irakurri haur lapurtuen testigantzak. Zertan bereizten dira haien eta beste biktime batzuen bizipenak?

Zerikusirik al zuen nazien arraza-ideologiak ezaugarri "ariarrak" zituzten haurrak aukeratzearekin?

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZEKO MATERIALAK

Filma. Stolen Children - The Kidnapping Campaign of Nazi Germany. 42 min.

Sareko testigantzak:

<https://www.jewishvirtuallibrary.org/stolen-children>
<http://geraubte.de/biografien.html> (in German)

Lehen mailako dokumentuen sareko artxiboa.

<https://arolsen-archives.org/en/news/sacher-israeler-and-the-child-search-branch/>

Liburuak:

Ingrid von Oelhafen & Tim Tate. Hitler's Forgotten Children: My Life Inside the Lebensborn (London: Elliott and Thompson Limited, 2015).

Aharon Appelfeld. The man who never stopped sleeping. (Schocken Books, 2017).

HAURRAK ETA NAZIONALSOZIALISTAK

Naziek ez zituzten haurrak biktimizatu bihurtu haur izateagatik, talde jakinetako kide izateagatik baizik. Haur batzuk [juduak](#), [jituak](#) izateagatik jazarri zituzten; beste batzuk, arrazoi biologikoengatik (adibidez, [buruko gaixotasunak eta dibertsitate funtzionala zituztenak](#)). Haurrak ziren heinean, bereziki zaugarriak ziren jazarpenaren aurrean, eta biziraupen-tasarik txikiena zuten [kontzentrazio-](#) eta [sarraski-esparruetan](#). Naziek eta beren kolaboratzaileek 1,5 milioi haur judu inguru hil zituzten, hamarnaka mila haur ijitu eta buruko gaixotasunak edo dibertsitate funtzionala zituzten 5.000-7.000 haur.

NAZIONALSOZIALIS-MOAREN GARAIAN

Haurren patua nazientzat baliagarriak izatearen mende zegoen. Lan egiteko gai ez zirenez, haur txikiak [gas-ganberetan](#) sartzen zituzten [sarraski-esparruetara](#) iritsi bezain pronto, adinekoekin, haurdun zeuden emakumeekin eta [gaixotasun mentalak edo dibertsitate funtzionala zituzten pertsonekin batera](#), erabe batzuk [bortxazko lanen esparruetara](#) bidaltzen zituzten, baina haurrak jaiotzean bertan hiltzen zituzten [ghettoetan](#) eta esparruetan. Kontzentrazio- eta [trantsizio-esparruetan](#), [SSetako](#) doctors performed medical experimenmedikuek esperimentu medikoak egiten zituzten haurrekin, eta sarritan hil egiten ziren horienondorioz. Bikiekiko interesa zuten bereziki.

[Ghettoetan](#), helduek gazteak erabiltzen zituzten elikagaien, botiken eta bestelako horniduren kontrabandoa egiteko; beraz, nolabait nerabeek eta haur txikiagoek ere parte hartu zuten [erresistentzia](#)-jarduera klandestinoetan. Ghettoak ez ziren seguruak haurrentzat, eta asko gaixotasunak edo goseak jota hiltzen ziren, edo arropa eta aterpe egokirik ez zutelako.

Erreskate-misioak

Herrialde batzuk, erakunde humanitarioak eta norbanakoak haurrak nazionalsozialismotik erreskatatzen saiatu ziren, lurralde arriskutsuetatik kanpo eramanez. 1938an, kristal hautsien gauaren ([Kristallnacht](#)) ondoren, [Kindertransport](#), izeneko plana abian jarri zen, laguntzarik gabeko e17 urtetik beherako haur juduei Erresuma Batuan errefuxiatu gisa sartzea ahalbidetzeko. Horretarako, herritar partikularrek edo ongizate-erakundeek haurren zaintza, hezkuntza eta Erresuma Baturako bidaiaren gastuak ordaindu behar zituzten. Lehen [Kindertransport](#) ekimenari esker (1938ko abenduaren 2a), Berlingo pogroman suntsitutako umezurztegi judu batean bizi ziren 200 haur inguru salbatu zituzten. 1940. urtera arte, 10.000 haur inguru eraman zituzten Erresuma Batura, eta gehienak harrera-familiekin bizi izan ziren uhartean; beste batzuk, berriz, haur-etxe berezietara eraman zituzten.

Ongi antolatutako ekimen humanitarioez gain, gizabanako batzuek haurrak ere erreskatatu zituzten beren kabuz. Adibidez, Gilbert eta Eleanor Kraus Estatu Batuetako senar-emazteak Vienara joan ziren 1939an 50 haur salbatzeko asmoz.

Tehrango haurrak

1939atik aurrera, poloniar askok Sobietar Batasunean aurkitu zuten beren burua, Sobietar Batasunak okupatu berri zuen Poloniako lurraldeetan jada bizi zirelako edota indar inbaditzaileetatik ihesi zihoazelako. Sobietarrak iritsi ondoren, poloniar asko Siberiara eta Sobietar Batasuneko Erdialdeko Asiara deportatu zituzten, eta beste batzuk bizi-baldintza gogorren ondorioz hil ziren. Ondorioz, haur judu poloniar asko gurasoengandik banandu zituzten edo umezurtz geratu ziren. 1942an, Sobietar Batasuneko agintariek Iranera bizitzera joateko baimena eman zieten 24.000 poloniarri. 730 haur inguru zeuden horien artean, gehienak umezurtzak. Haur horiek umezurztegietatik eta harrera-zentroetatik atera zituzten Iranera eramateko, eta [Teherango Haurrak](#) izenez ezagutzen ziren. Teheranera iristean, buruzagi [sionistek](#) eta Poloniako Gobernuak haur hauek Palestinara eramatea adostu zuten.

Ezkutatutako haurrak

Ihes egin ezin zuten haurrak ezkututzen saiatu ziren bizirik irauteko. Ez zen prozesu erraza izan. Juduen eta kristauen erakunde humanitarioek boluntarioak bilatu behar izan zituzten haurrak ezkutatzeke, eta hori oso arriskutsua zen; bestela, familiek beren kontaktuetara jo behar zuten. Haur batzuk bere gurasoekin edo anai-arrebekin ezkutatu ziren. Batzuek eskolara joateko eta beste hurrekin aritzeko aukera izan zuten; zoritxarrekoenak, ordea, ezkutuan egon behar izan zuten. Familia berriek hartzen bazituzten, nortasun faltsua erabili behar zuten, izen berri bat aukeratu, iragana ahaztu eta agian hizkuntza berri bat ikasi. Haur batzuk maitasunez tratatu zituzten, eta beste batzuk, berriz, modu krudelean. Askok urteak eman zituzten ezkutuan naziek bilatzen zituzten bitartean. 1945era arte, salatariek 2.000 haur inguru agerian utzi zituzten.

NAZIONALSOZIALIS-MOAREN ONDOREN

Gerra amaitu ondoren, gurasoek galdutako seme-alabak bilatu zituzten, eta alderantziz, Gurutze Gorria eta Nazioarteko Bilaketa Zerbitzua bezalako erakundeen laguntzarekin. Milaka umezurtz [errefuxiatu-esparruetara](#) eraman zituzten. Bizirik atera ziren haur judu askok Israelera ihes egin zuten Ekialdeko Europatik, batez ere Gazteen Aliya erakundeari esker. [Kindertransport](#) zerbitzua erabili zuten haur ugariErresuma Batuan geratu ziren. Beste batzuek Estatu Batuetara, Kanadara eta Australiara emigratu zuten ahaideekin, harrera-familiekin edo haurren etxeetan bizitzeko.

Jazarpena jasan zuten edo ezkutuan egon ziren haur batzuek, eta kontzentrazio-esparruetara deportatu zituztenek ere, gaur egunera arte iritsi diren egunkariak idatzi zituzten. Ospetsuena, ziurrenik, Anne Franken egunkaria da, baina badira beste batzuk ere; adibidez, Poloniako Miriam Wattenberg neskatoarena edo Łódź hiriko haurrena.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Zergatik ziren haurrak bereziki ahulak nazien jazarpeneren aurrean?

Nola erreskatatu zituzten umeak nazionalsozialismotik? Zertan bereizten ziren haur batzuen eta besteen esperientziak?

Nola egokitu ziren haurrak nazionalsozialismoaren garaiko bizi-baldintza zailletara eta ondorengo bizitzara?

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZEKO MATERIALAK

Sareko testigantzak:

<https://holocaustlearning.org.uk/stories/>

<https://www.centropa.org/en/centropa-cinema/zahor-remember>

<https://encyclopedia.ushmm.org/content/en/oral-history/theresia-seible-and-rita-prigmore-describe-research-on-twins?parent=en%2F2562>

<https://www.yadvashem.org/holocaust/this-month/Otsail/1943-2.html>

<https://www.holocaustchild.org/2000/12/marcelle-b/>

<https://www.holocaustchild.org/2000/12/helen-b/>

<https://www.youtube.com/watch?v=I5ut-p9lDAs0>

Terezíngo ghattoko haurren arte-laginak biltzen dituen artxiboa.

<https://www.jewishmuseum.cz/en/collection-research/collections-funds/visual-arts/children-s-drawings-from-the-terez-in-ghetto/>

Film laburrak:

<https://www.centropa.org/en/centropa-cinema/jewish-life-krakow-and-kazimierz>

<https://www.centropa.org/en/centropa-cinema/lilli-tauber-suitcase-full-memories>

Filma: Au Revoir les enfants (1987), 1 h 44 min.

Ikasgai-planak:

<https://www.ushmm.org/m/pdfs/USHMM-Rescue-Hiding-Online-Lesson.pdf>

<https://www.het.org.uk/teaching-resources>

<https://www.adl.org/education/educator-resources/lesson-plans/children-of-the-holocaust-a-discussion-guide>

Sareko erakusketa:

<http://jewishchildsurvivors.org/>

<https://www.yadvashem.org/yv/en/exhibitions/childrens-survivors-homes/index.asp>

IJITUAK NAZIONALSOZIALISMOAREN GARAIAN

[Ijituak](#) Europan mendeetan zehar bizi izan diren gutxiengoak dira. Hamabi milioi lagun dira, gutxi gorabehera. India eta Pakistan artean dauden ipar-mendebaldeko lurraldeetan dute jatorria. Mendeetako migrazioen ondorioz, talde heterogeneoetan banatu ziren: erromaniak, sintiak, kaleak, manushak edo lovariak, besteak beste. [Erromaniera](#), hizkuntza hitz egiten dute, denboran zehar beste hizkuntza batzuekin elkarreragin du, eta horrek hizkera asko ekarri ditu.

Erromani eta sintiei "ijito" deitzen zaie, askok gutxiesgarritzat jotzen duten terminoa. Erromani eta sintien aurkako arrazakeriari [ijitufobia](#) esaten zaio.

NAZIONALSOZIALISMOAREN AURRETIK

Gauegun Europan bizi diren ijituakmende batzuk lehenago emigratu zutenen ondorengoak dira. India atzean utzi, eta antzinako Persia, Turkiako eskualde batzuk, Afrikako iparraldea eta ekialdeko Mediterraneoan zeharkatu zituzten. Jazarpenetik ihesi omen zihoazen.

Ijituak XIV. mendetik behintzat jazarriak izan dira Europan. Haien aurka hartutako neurriak era askotakoak izan ziren. Adibidez, XV. eta XVI. mendeetan, Europako lurraldeek ijituakdebekatzeko, indarrez kanporatzeko, espetxeratzeko edo exekutatzeke legeak onartu zituzten. XVIII. eta XIX. mendeetan, Habsburgotar Inperioak asimilazio-politikak onartu zituen; esaterako, haurrakeuren familietatik banandu zituzten, erromaniak ez ziren familiekin hezteko. Gaur egun, praktika

Hiru emakume erromaniren erretratua, 1930eko hamarkadan. Argazkia: Jan Yoors (United States Holocaust Memorial Museum).



hori genozidio-ekintza da nazioarteko zuzenbidearen arabera. Ehunka urtez, XIX. mendearen erdialdera arte, ijituakesklabo bihurtu ziren Errumaniako lurraldeetan.

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN GARAIAN

1933an boterera iritsi ondoren, Alderdi Naziak ojotiak (beste talde batzuek gain) jazartzeko neurriak ezarri zituen, eta [eugenesia](#)-politiken helburu bihurtu. "Arraza zitalekoak" eta "[asozialak](#)" zirela aitzakiatzat hartuta, talde hau zelatatzen eta alemaniar gizartetik are gehiago baztertzeko moduak bilatu zituzten. Eugenesia-programaren xedea talde etniko batzuen populazioa kontrolatzea zen, batez ere "zitaltzat" hartzen zirenak, [Nurenbergeko arraza-legeak](#) bezalako legeria murriztaile baten bidez. Eugenesiak [antzute behartuak eta antzeko praktikak barne hartzen zituen](#), ijituen aurka arreta bereziz aplikatu zituztenak. Erregimena gero eta totalitarioagoa bihurtu zen, eta pertsonak kontrolatzeko beste modu bat [kontzentrazio-esparruen](#) istema izan zen; hala gertatu zen [Alemaniaren menpe zeuden lurraldeetan](#). 1935 eta 1945 artean, naziek giza eskubiderik oinarritzkoenak kendu zizkieten ijituei kontzentrazio-esparruetara deportatu zituztenean.

1940an, naziek Europa osoko ijituak Polonia okupatuko kontzentrazio-esparruetara eramaten hasi ziren, eta han [bortxazko lanak egitera behartu zituzten](#). 1942ko abenduaren 16an, "[Auschwitz dekretua](#)" argitaratu zuten, Reicheko ijituguztiak [Auschwitz-Birkenau](#) kontzentrazio- eta sarraski-esparrura deportatzea agintzen zuena. Bertara iristean, deportatu berriak "ijituen esparrura" eramaten zituzten, eta "Z" eta zenbaki bana tatuatzen zizkieten gorputzean. 1944ko uztailan, horietatik % 70 inguru gosearen, hotzaren, bortxazko lanen, indarkeriaren, fusilamendu masiboen, esperimendu medikoen edo gaixotasunen ondorioz hil ziren. Beste milaka [gas-ganberetan](#) hil ziren.

Alemania naziak eta bere aliatuek okupatutako lurraldeetan ere genozidioak izan ziren; ijituak kontzentrazio-

esparruetara eta ghettoetara deportatu zituzten, edo sarrasketan hil. Errumanian, adibidez, erregimen faxistak 25.000 ijitubidali zituen Ukrainian zeuden esparruetara eta ghettoetara; deportatuen erdia baino gehiago hil zen, bizi-baldintza kaskarren eta tratu bortitzaren ondorioz. Nazien estatu [txotxongiloek](#) aktiboki hartu zuten parte ijituen hilketetan: Kroaziako Estatu Independentea deiturikoan, Ustaxen erregimen faxista eta ultranazionalista nazien arraza-ideologian oinarritu zen ijituak "azpigizakitzat" izendatueta horietako milaka hiltzeko. Baltikoko herrialdeetan, erromaniak kontzentrazio-esparruetara deportatu ohi zituzten, eta gero hil; zenbaitetan, berriz, preso hartu eta fusilamendu masiboetan exekutatu zituzten. Estimazioen arabera, nazionalsozialistek eta haien laguntzaileek gutxienez 500.000 ijituhil zituzten.

Ijitu askok jazarpen- eta sarraski-politikei aurre egin zieten. Adibidez, 1944ko maiatzaren 16an, 6.000 ijito baino gehiagoko talde batek aurre egin zien Auschwitzeko guardiei "ijituen esparruaren" likidazioa atzeratzeko. Beste batzuk [partisanoekin](#) borrokatu ziren nazien aurka lurralde okupatuetan. Erromaniak eta sintiek era askotara egin zieten kontra kaltegileei; asko ihes egiten edo ihes egin zutenei laguntzen saiatu ziren.

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN ONDOREN

Erregimen nazionalsozialistaren amaierak ez zuen ekarri biktimen (ijituak barne) aitorpena, ezta kalte-ordainen ordainketa ere. Gogoan izan euren familietatik aldenduzituztela, jabetzak kendu zizkietela eta Alemaniako herritartasuna berreskuratzea eragotzi zietela. Orduetik, ijituek genozidioa ofizialki aitortzea eskatu dute, eta ordainak lortzeko eta kaltegileak epaitzeko borrokatu dute. Abuztuaren 2an ijituen Holokaustoa oroitzeko Europako eguna ospatu da 2015etik. Egun horretan, 1944an, nazionalsozialistek Auschwitzeko azken 4.300 ijitoak hil zituzten.

Ijituekoraindik bazterketa eta diskriminazio maila handiak pairatzen dituzte oraindik Europa osoan. Ia % 80 pobrezian bizi da, Europar Batasuneko datuen arabera. EBk ijitufobia aurre egiteko ahaleginak egin dituen arren, azken hamar urteetan aurrerapausoak motelak izan dira. Ijituek jazartzea pairatzen jarraitzen dute; askotan, hezkuntzarako, osasunerako, etxebizitzarako eta enplegurako sarbidea ukatzen zaie. Ezbeharrak gorabehera, ijituek beren eskubideak defendatzen jarraitu dute.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Zure ustez, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, zergatik behar izan zen hainbeste denbora ijituen aurkako genozidioa ofizialki aitortzeko?

Ijituen omenezko ekitaldirik egiten al da zure udalerrian? Zer egingo zenuke inguruko erromanien historiari eta kulturari buruz gehiago ikasteko?

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZEKO MATERIALAK

Filmak eta dokumentalak

<https://youtu.be/cVtfm2fLRkA>.
<https://www.cinemapolitica.org/film/how-i-became-a-partisan/>

<https://www.roma-sinti-holocaust-remembrance-day.eu/education/films-about-the-holocaust-of-sinti-and-roma/>

Sareko baliabideak

<https://www.sintiundroma.org/en/>

<https://www.romasintigenocide.eu/en/home>

<https://www.gdw-berlin.de/en/recess/topics/172-resistance-by-sinti-and-roma/>

<https://www.facinghistory.org/resource-library/targeting-sinti-and-roma>

<https://c.holocaust.cz/files/old/pdfs/ThePersecutionofRomaandSintiintheProtectorateofBohemiaandMoravia.pdf>

<https://kampwesterbork.nl/en/history/second-world-war/persecution-of-sinti-and-roma>

<https://digitales-heimatmuseum.de/vom-waller-friedhof-zum-alten-schlachthof-auf-den-spuren-der-sinti-und-roma-im-bremer-westen/>

Sareko testigantzak

<https://www.zwangsarbeit-archiv.de/en/zwangsarbeit/ereignisse/sintiundroma/index.html>

www.Tajsa.eu

JUDUAK ETA NAZIONALSOZIALISTAK

NAZIONALSOZIALISMOAREN AURRETIK

Juduak p diskriminazioa, jazarpena, ghettoak eta hilketak jasan dituzte historian zehar. Kaltegileak gizarte, erregimen eta talde erlijioso ugari izan dira. Europa osoan komunitate juduak XX. mendea baino askoz lehenago zeuden. Hiri batzuetan juduak erabat integratuta zeuden. Europako beste leku batzuetan, berriz, herri eta hirietako eremu berezietan bizitzera behartu zituzten, eta pogromen eta indarkeriaren biktima izan ziren.

Juduen aurkako estigmatizazioa eta jazarpena (hau da, antisemitismoa) boladetan eta intentsitate ezberdinarekin gertatu dira mendeetan zehar. Juduen aurkako jazarpenak denbora luzez oinarri erlijiosoan izan bazuen ere, egoera hori XIX. mendean aldatu zen, eta jatorri kristauko antisemitismoak arrazan oinarritutako antisemitismoari eman zion bidea. European gero eta gehiago zabaldu zen arraza judu bat zegoela zioen ideia. Gero eta jende gehiagok ez zuen uste judu izatea erlijioan oinarritzen zenik, leinuan baizik. XX. mendearen hasieran, antisemitismoa areagotu egin zen Europako leku askotan. Giro hori oso lagungarria izan zen Alderdi Naziak lehendik zeuden sentimenduak zirikatzeke.

Klase eta maila sozial guztietako juduak zeuden. Asko pobrezian bizi ziren; beste batzuek boterea eta ospea zituzten. Nolanahi ere, askotariko joera politikoak zituzten. Era

berean, desberdintasunak zeuden judu integratuen eta ortodoxoen artean. Juduen bizipenak, nazionalsozialismoaren aurretik zein bitartean, askotarikoak izan ziren, eta ezin dira homogeneizatu.

NAZIONALSOZIALISMOAREN GARAIAN

Naziek, besteak beste, juduek arraza "ariarra" "zikintzen" eta kaltetzen zutela zioten. Haien ideologiaren oinarrietako bat izan zen. 1933an boterea lortu bezain laster, naziek juduen aurkako legeak ezartzen hasi ziren. Beste horrenbeste gertatu zen 1938an, Reichak Austria bereganatu zuenean. Propagandak antisemitismoa areagotu zuen Alemaniako gizartean, juduei gizatasuna kenduz eta haien aurkako gorrotoa zabalduz.

Atleta juduak Berlingo Grunewald estadioko kirol-ekitaldi batean, 1934an. Argazkia: Bildarchiv Preussischer Kulturbesitz.



Erradikalizazio horrek estatuaren babespean juduen hilketa masiboa eragin zuen Europa osoan Bigarren Mundu Gerran. Wannsee Konferentzian eztabaidagai izan zuten ["Juduen Auziko Azken Konponbidea"](#) Tdelakoa. "Azken Konponbidearen" esanahia denborarekin aldatu egin zen. Juduak indarrez deportatu zituzten [Terezín \(Theresienstadt\)](#) edo [Varsoviako ghettoetara](#), besteak beste, eta asko gaixotasunez gosezedo botika faltagatik hil ziren. Bortxazko lanen, kontzentrazio- ([Dachau](#), [Auschwitz](#)) eta sarraski-esparruetara ([Auschwitz-Birkenau](#), [Belzec](#), [Sobibor](#) and [Treblinka](#)), eraman zituzten; lehenengoetan, [gatibu-lanen](#) ondorioz hil ziren asko, eta, [bigarrenetan](#), gas-ganberetan hil zituzten. Sobietar Batasunaren aurkako erasoaren ondoren alemaniarren kontrolpean geratu ziren lurraldeetan, pertsona asko tiroka hil zituzten [Einsatzgruppen](#), izeneko eskuadroi paramilitarrek, kontzentrazio-esparruetara eraman ere egin gabe. Gerraren amaieran, naziek milaka preso judu lekualdatu zituzten kontzentrazio-esparru batzuetatik beste batzuetara, [heriotzaren martxak](#) deiturikoetan. Askok baldintza penagarrietan hil ziren. Guztira, naziek eta haien kolaboratzaileek sei milioi judu inguru hil zituzten Europa osoan.

Juduen erresistentzia

[Erresistentzia](#) oso zaila izan zen garaiko murrizketen ondorioz; adibidez, ez zuten armak eskuratzeko aukerarik, ezta mugitzeko askatasunik ere. Hala eta guztiz ere, judu asko nazien jazarpenaren aurkako erresistentzian aritu ziren borrokan, hainbat modutara. Adibidez, askok aktiboki parte hartu zuten erresistentzia armatuan, eta beste batzuk elkartasun-sareetako kide izan ziren kontzentrazio-esparruetan eta ghettoetan. Askok erresistentzia kultural eta espirituala izan zuten jazarpenari aurka egiteko modu bakarra. Jarduera horien artean, erlijio-ohiturei eustea, egunkari klandestinoak inprimatzea eta banatzea, kontzertuak antolatzea eta artelanak sortzea nabarmendu ziren. Idazle eta poeta juduek idazten jarraitu zuten espetxeratuta zeuden bitartean, eta haietako askok ghetto eta esparruetako bizitza dokumentatu zuten. Haiei esker, leku horietako historia ezkutuansakontzeko aukera dugu.

Polonia, Lituania, Bielorrusia eta Ukraina okupatuetoako ghetto askotan erresistentzia armaturako ezkutuko sareak eratu ziren. Haien helburua ghettoen altxamendua antolatzea zen, edo ihes egineta partisoekin basoetan elkartzea. Juduen altxamendurik garrantzitsuenetako bat [Varsoviako Ghettoaren Matxinada](#) izan zen, 1943ko apirilaren 19tik maiatzaren 16ra gertatutakoa. SSek zapaldu zuten errebolta, eta kontzentrazio- eta sarraski-esparruetara deportatu zituzten bizirik atera zirenak. Preso juduak beste esparru batzuetan ere matxinatu ziren (Sobibor, Treblinka eta Auschwitz, besteak beste), baina bortizki zanpatu zituzten.

NAZIONALSOZIALISMOAREN ONDOREN

Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, nazismotik bizirik atera ziren juduek indarkeria pairatu zuten, antisemitismoa oso zabalduta zegoen eta. Adibidez, 1946ko uztailaren 4an, komunitate juduaren aurkako indarkeria-eztanda gertatu zen Kielce hirian (Polonia), [Kielceko pogroma](#) izenez ezagutu zena.

Bizirik atera ziren asko Europan geratzeko beldur ziren. Britainiarrek eta estatubatuarrek Europaren askapenean izan zuten parte-hartzeari esker, judu askok [Palestinara \(garai hartan britainiarren agindupean zegoena\)](#) edo Estatu Batuetara emigratzeko aukera izan zuten. [Errefuxiatu-esparruetan](#) Europako hainbat herrialdetako juduak elkartzeko ziren nora joango ziren jakin gabe, askotan beren senideak aurkitzen ahaleginetan.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Aztertu Europa osoko juduen bizitzak 1939a baino lehen, nazionalsozialismoaren aurretik izan zituzten bizipenak eta kultura hobeto ulertzeko. Nola erantzun zioten jazarpenari? Sareko testigantzak eta irudi-artxiiboak erabil ditzakezu informazio gehiago lortzeko.

Zer ikas dezakegu Holokaustoaren eskala eta irismen handiei buruz?

Antisemitismoa ugaritzen ari da mundu osoan gaur egun, Holokaustoaren ukazioari eta errebisionismoari bide emanez. Nola jazartzen zaie juduei gaur egun? Bilatu antisemitismo-adibideak sare sozialetan eta egungoalbisteetan, eta alderatu nazionalsozialisten propaganda-mezuekin.

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZEKO MATERIALAK

Sareko baliabideak

<https://www.holocaustremembrance.com/resources/educational-materials/how-teach-about-holocaust-schools>

<https://www.yadvashem.org/exhibitions.html>

<https://wienerholocaustlibrary.org/exhibition/jewish-resistance-to-the-holocaust/>

<https://www.facinghistory.org/resource-library/jewish-partisans-resistance>

<https://iwitness.usc.edu/home>

<https://www.testifyingtothetruth.co.uk/viewer/>

Sareko Artxiboak

<https://pmj-documents.org/>

<https://photos.yadvashem.org/>

<https://documents.yadvashem.org/>

<https://arolsen-archives.org/en/search-explore/search-online-archive/>

KOMUNISTAK ETA NAZIONALSOZIALISTAK

Komunismoa ideologiaren muina zera da, sistema kapitalistak langileak esplotatzen dituela haien lanarekin etekinak lortzeko. Horren ondorioz, gizartea gizarte-klaseetan sailkatzen da, eta aberastasuna modu desberdinean banatzen da. Komunistek diote klase gabeko gizarte justua sortzeko ezinbestekoa dela ekoizpen-bideen jabetza pribatua desagerraraztea. XIX. mendean zehar eta XX. mendearen hasieran, ideologia komunistak ezkerreko langile eta intelektual batzuk erakarri zituen.

NAZIONALSOZIALISMOAREN AURRETIK

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, komunismoak Europan beste inon baino jarraitzaile gehiago aurkitu zituen; hala ere, munduko lehen estatu komunista Errusian ezarri zen. 1917ko urrian, Vladimir Leninek eta beste iraultzaile batzuek Errusia XVII. mendetik gobernatzen zuen Romanov dinastia boteretik kendu zuten. Segidan, Lenin herrialdeko agintari bihurtu zen eta Sobietar Batasuna ezarri zuen, ideologia komunistan oinarritutako estatura. Beste herrialde askotan, itzal handiko mugimendu komunistak zeuden eta garaiko erregimenen aurka zeuden. Elite kontserbadoreek uste zuten komunismoa arriskutsua zela haien kontrol politiko eta ekonomikorako. Alemanian, Alemaniako Alderdi Komunista (KPD) 1918n sortu zen eta Lehen Mundu Gerra ondoren arrakasta mugatua izan zuen.

Frantziako FTPF erresistentzia komunistaren taldeko 108. konpainiako kideak, 1944an. Argazkia: United States Holocaust Memorial Museum.



NAZIONALSOZIALIS- MOAREN GARAIAN

Komunismoak klase sozialeiarrazaren gainera lehentasuna ematen zionez, erregimen nazionalsozialistak legez kanpokotzat jo zuen, eta [judu-boltxebismoa](#) deitu zion. Nazien ustez, komunismoa munduaren aurkako konplot judua zen (berezi arriskutsua, Sobiet Batasunaren gertutasun geografikoagatik). 1933an alderdi politiko guztiak debekatu ziren, NSDAP izan ezik; segidan, atxiloteta masiboak izan ziren eta komunistak eta beste [aurkari politiko](#) batzuk lehen kontzentrazio-esparruetara deportatu zituzten. 1939an, 150.000 komunista inguru preso zeuden nazien kontzentrazio-esparruetan, eta horietatik 30.000 inguru exekutatu edo era ezberdinetara hil ziren. Jazarpena eta espetxeratzea saihesteko, askok Europatik ihes egin zuten eta atzerrian erbesteratu ziren.

1933an, preso politikoentzako lehen [kontzentrazio-esparrua](#) ireki zuten [Dachau](#)n. Handik gutxira, [Buchenwald](#) eta [Sachsenhausen](#) kontzentrazio-esparruak eraiki zituzten. Bigarren Mundu Gerra Europan hasi ondoren, naziek komunistak eta beste [aurkari politiko](#) iaskojazari zituzten Alemaniak okupatutako lurraldeetan. Preso komunistek jarduera politikoei ekin zieten kontzentrazio-esparruetan, erresistentzia sare klandestinoak eta sabotajeak, ihesak, [kontrabandoa](#) edo matxinadak antolatuz. Batzuek naziekin ere kolaboratu zuten eta kapo (hau da, preso kartzelazain) bihurtu ziren.

Espainiako komunistek berezi pairatu zituzten [aurkari politiko](#)en atxiloteta masiboak. Askok [Francisco Franco](#) jeneralak Espainian ezarritako diktaduratik ihes egin zuten lehenbizi. Alemania naziak Frantzia inbaditu ondoren, Frantziako errefuxiatu-esparruetatik nazien kontzentrazio-esparruetara deportatu zituzten komunistak. Esaterako, 7.728 [preso politiko](#) espainiar espetxeratu zituzten [Mauthausenen](#); horietatik 2.979 baino ez ziren bizirik atera.

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN ONDOREN

Bigarren Mundu Gerrari buruzko kontakizunak komunisten deportazioak kontzentrazio- eta sarraski-esparruetara gutxietsi ohi dituzte. Arrazoi nagusia Bigarren Mundu Gerraren ondorengo banaketa politikoak izan ziren. Gerra Hotzaren hasierarekin (Ameriketako Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren arteko mundu mailako lehia), mendebaldeko historiografiak komunistek nazien eskutik pairatutako jazarpena eta erresistentzian izan zuten garrantzia alde batera utzi zutensarritan.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Nola islatzen du komunistei emandako tratuak nazien ideologia?

Nazien ustez, zer nolako zerikusia zuten komunismoak eta judaismoak?

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZeko MATERIALAK

Filmak:

El fotógrafo de Mauthausen, 2018. 1h 50.
Francisco Boix. A photographer in hell,
2000. 55 min.


Sareko baliabideak.

<https://www.facinghistory.org/resource-library/outlawing-opposition>

LGBTQIA+ PERTSONAK ETA NAZIONALSOZIALISTAK

[LGBTQIA+](#) laburdura bat da, eta termino orokor gisa erabiltzen da. LGBTQI+ terminoak sexualitate eta [genero-identitate](#) asko biltzen ditu: [lesbianak](#), [gayak](#), [bisexualak](#), [transexualak](#), [queerrak](#), [intersexualak](#) etab. XXI. mendean, identitateen eta sexualitateen ñabardurak hobeto ulertzen ditugu; duela 100 urte, ordea, gizarteak bestelako ulermena zuen, eta jendeak beste hitz batzuk erabiltzen zituen bere burua deskribatzeko. LGBTQI+ pertsonak gizarte guztien parte izan dira historian zehar. LGBTQI+ pertsonak diskriminazioa eta indarkeria beti pairatu duten arren, nazien jazarpena homosexualen aurkako indarkeria-kasu larrienetako bat izan zen.

Magnus Hirschfeld (erdian) eta Bernhard Schapiro sexologoak Tao Lee ikaslearekin. Leku eta data ezezagunak. Argazkia: United States Holocaust Memorial Museum.



NAZIONALSOZIALISMOAREN AURRETIK

XIX. mendearen amaieran, mendebaldeko herrialde askok homosexualitateaz zigortzeko legeak onartu zituzten (gizonezkoena, batez ere). 1872an, Alemaniak [175. artikulua](#) sartu zuen Zigor Kodean, gizon [zizgeneroen](#) arteko sexu-harremanak zigortzeko. Aldi berean, diziplina zientifiko berri bat agertu zen (sexologia), eta homosexualen eskubideen aldeko lehen erakundeak eratu ziren. Europako beste hiri handi batzuetan bezala, Berlin (azpi)kultura gay eta lesbikoaren erdigune bihurtu zen, eta homosexuali zuzendutako erakunde eta taberna ugari zeuden.

NAZIONALSOZIALISMOAREN GARAIAN

Nazionalistek 1933an boterea lortu zutenean, LGBTQI+ pertsonen aurkako neurriak hartzen hasi ziren, gay eta sexulangileen espazioei eraso eginez. Generoak baldintzatzen zituen homosexualen aurkako politikak nazionalsozialismoaren garaian. Alde batetik, homosexualitate maskulino zizgeneroa mehatxua omen zen [Volksgemeinschaft](#), komunitatearentzat; izan ere, harreman intimo homosexualak

gizonen arteko adiskidetasuna eta estatua bera suntsituko zituztela uste zuten naziek. Aldiz, emakumezkoen homosexualitatea ez zegoen zigortuta, Austrian izan ezik (naziek anexionatua 1938tik 1945era). Legedian zigortuta ez egon arren, emakume homosexualak bestelako diskriminazioa jasaten zuten: ez zuten beren sexu-identitatea jendaurrean adierazteko eskubiderik, ezta aukerarik ere. Askotan gizonekin ezkondu behar ziren eta seme-alabak izan.

1935ean, Zigor Kodeko 175. artikulua gogortu zuten; 1936an, berriz, Reichak Homosexualitatea eta Abortuaren Aurkako Bulego Nagusia ezarri zuen. Horren ondorioz, homosexualen kontrako jazarpena areagotu egin zen. Ondoren, kondenatuen eta espetxeratuen kopurua izugarri handitu zen. Zigorak oso gogorrak ziren, eta nazionalsozialistek "homosexual" gisa sailkatutako asko kontzentrazio-esparruetara bidali zituzten, eta asko hiltzera kondenatu zituzten. Gainera, LGBTQI+ pertsona batzuk antzutu eta zikiratu zituzten. 1945era arte, polizia 100.000 gizon inguru atxilotu zituen [175. artikulua](#) hausteagatik.

Gerraren hasierak poliziaren lehenetsunak aldatu zituen, eta 30eko hamarkadaren amaierako neurri zorrotzak apur bat lasaitu ziren. Nazionalsozialistek queer pertsonak jazartzen jarraitu zuten anexionatutako lurraldeetan, baina ez Alemaniak okupatutako Europako lurralde guztietan. Nazionalsozialistek "homosexual" terminoa erabiltzen zuten gizon homosexualak edo bisexualak aipatzeko. Sailkapen horren barruan sartzen ziren gaur egun beren burua deskribatzeko trans, [genero ez binario](#) edo [genero queer](#) hitzak erabiltzen dituzten pertsonak. Horregatik, garrantzitsua da azpimarratzea 175. artikuluari jarraituz atxilotu eta kondenatu zituzten guztiak ez zirela [homosexualak](#). Hala ere, Alemanian beste gizon batekin sexu-harremanak zituen edozein gizon espetxeratzeko arriskuan zegoen, sexualitatea ulertzeko ñabardurak alde batera utzita. Kontzentrazio-esparruetan, 175. artikuluari jarraikiz jazarritakoek [triangelo arrosa](#) eraman behar zuten. Geroago, gayen eskubideen aldeko aktibistek ikur hori bereganatu zuten politika zapaltzaileen aurkako erresistentzia bistaratzeko.

Batzuetan, LGBTQI+ biktimak kontzentrazio-esparruetan sartzen zituzten beren sexualitateaz bestelako arrazoiengatik: [aurkari politiko](#), [juduak](#), edo beste biktimatalde batzuetako kide izateagatik, hain zuzen ere. Kasu horietan, bere sexualitatea kartzelaratzeko bigarren mailako arrazoitzat jotzen zen, espetxeratzearen arrazoi nagusia ez bezala. Kasu horietan triangelu arrosaren orde, presoaren kategoria ofizialari zegokion ikurrazeramen. Horregatik, biktima izan ziren LGBTQI+ pertsonen guztizko kopurua ezezaguna da oraindik.

LGBTQI+ pertsonak babes eskasa jaso zuten, Europako gizarteak eta ingurune kulturala [homofoboak](#) baitziren nagusiki garai hartan. Medikuek eta psikiatru askok LGBTQI+ pertsonen aurkako jazarpena eta diskriminazioa sustatu zuten. Psikiatru eskuindarrek denbora asko eman zuten homosexualitatea aztertzen eta haren kausak zehazten. Psikiatru ugari eta nazionalsozialistek elkarrekin lan egin

Gerd Katter, Magnus Hirschfeldeko paziente transeualetako bat. 1929 inguruan. Argazkia: United States Holocaust Memorial Museum.



zuten queer pertsonak jazartzeko eta haiekin esperimenduak egiteko. Adibidez, SSetan aritzen zen Carl Værnet mediku danimarkarrak hainbat esperimendu egin zituen homosexualitatea tratatzeko moduak aurkitzeko. Ahalegin horretan, hormona sintetikoak injektatu zizkien [Buchenwald](#) kontzentrazio-esparruan triangelu arrosa zeramaten presoek. Aitzitik, beste doktore batzuek, Magnus Hirschfeldek kasu, sexualitateari buruzko teoria aitzindariak garatu zituzten, eta ukatu egin zuten sexu bereko pertsonenganako erakarpena patologikoa, perbertsioa edo bizioa zenik.

NAZIONALSOZIALISMOAREN ONDOREN

Alemanian eta Austrian, homosexualitateak delitu izaten jarraitu zuen Bigarren Mundu Gerraren ondoren. Naziak ezarritako zigorren zilegitasuna onartzen ez zenez, preso homosexualek berriro kartzelan igaro behar izan zuten 1933 eta 1945 artean betetako denbora. Homosexualitateagatik kondenatutako pertsonen kopuruak handia izaten jarraitu zuen. [Ekialdeko Alemaniak](#) helduen arteko homosexualitatea despenalizatu zuen 1968an; Austriak, 1971n; [Mendebaldeko Alemaniak](#), berriz, 1994an.

Hamarkada askotan, LGBTQI+ pertsonak ez ziren naziak jazarritako taldetzat hartu. 2002an, Alemaniak biktima gisa aitortu zituen nazionalsozialismoaren garaian Zigor Kodearen 175. artikulua aplikatuz jazarritakoak, eta, ondorioz, indultua eman zien.

Era berean epe luzez, LGBTQI+ pertsonen bizipenak ez ziren oroimen kolektiboaren parte izan. LGBTQI+ aktibistak, mugimenduak eta erakundeak izan dira oroitzapena bultzatzeko eragile nagusiak. Azken urteotan areagotu egin da gai horren inguruko kontzientziazioa. Europako zenbait lekutan LGBTQI+ pertsonak eskubide gehiago dituzte gaur egun, batez ere, XX. mendearen lehen erdialdean jasan zuten jazarpenarekin alderatuta, baina egoera lazgarria da oraindik herrialde askotan. Leku askotan, LGBTQI+ pertsonen aurkako gorrotoa ohikoa da, eta queerrak ez dira seguru sentitzen.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Alderatu nazien homosexualekiko politikak 1933 baino lehenagoko eta 1945 baino geroagoko politikekin.

Zertan bereizi ziren 1945aren ondoren LGBTQI+ komunitatearen eta beste biktimatalde batzuen bizipenak?

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZEKO MATERIALAK

Argazki, bideo eta testigantzen sareko artxiboa.

<https://encyclopedia.ushmm.org/tags/en/tag/gay-men-under-the-nazis>

Dokumentalak eta filmak.
Paragraph 175, 2000. 1 h 21 min.

<https://www.youtube.com/watch?v=q-Bln6ymTVdM>

NAZIONALSOZIALISMOAREN AURKARI POLITIKOAK

Erregimen nazionalsozialista berriaren aurkari politiko asko zeuden Alemanian. Horien artean [komunistak](#), [sindikalistak](#), [sozialdemokratak](#), eta ezkerreko beste alderdi batzuetako kideak, alderdi liberalak eta Alderdi Katoliko zentrista zeuden. Aurkari politikoak nazien jazarpen sistematikoaren lehen biktimak izan ziren..

NAZIONALSOZIALISMOAREN AURRETIK

Europar oposizio politikoa egiteko tradizio luzea dago. Estatu demokratikoetan, oposizioak askatasunez adierazi ahal izaten ditu desadostasunak. Ez da hala gertatzen erregimen autokratikoetan, hala nola Errusia tsaristan edo XIX. mendeko Alemanian. Hala eta guztiz, orduan ere, ez zen ohikoa aurkari politikoak haien ideia politikoengatik exekutatzea. Egoera aldatu egin zen totalitarismoaren gorakadarekin Errusia sobietarrean eta Alemania nazian. Aurkari politikoen jazarpen sistematikoaren hasiera izan zen.

NAZIONALSOZIALISMOAREN GARAIAN

1933an, nazifikazio-prozesuari ekin zion nazien erregimen berriak, eta horren bidez, Alemaniako gizartearen alderdi guztiak

kontrolatzeko sistema totalitario bat ezarri zuen. Prozesu hori [Gleichschaltung](#) (koordinazioa) izenarekin ere ezagutu zen. Naziek talde osoak aurkari politiko gisa sailkatu zituzten; besteak beste, [masoiak](#),

Walter Lande Alderdi Sozialdemokratako kidearen erretratua, 1930. Argazkia: United States Holocaust Memorial Museum.





Ployhar jaunaren erretratua. Preso politiko txekiarra izan zen eta, gerra ostean, Txekoslovakiako Osasun ministro izendatu zuten. Argazkia: United States Holocaust Memorial Museum.

konspiraziojudu-masonikobaten parte zirela uste baitzuten. [Sindikatu](#) independenteak galarazi zituzten, eta naziek zuzendutako Alemaniako Lan Frontea (Deutsche Arbeit Front) sortu. Era berean, erregimen berriaren aurkako oposizioa koordinatzea eragotzi zieten naziek langileei. Ondorioz, alderdi politiko guztiak legez kanpo utzi zituzten.

Hitler boterera iritsi eta ia berehala, aurkari politikoak atxilotzen hasi ziren, eta espetxeetara eta [kontzentrazio-esparruetara](#) eramaten. [Reichstag](#) legebiltzarrak [Praktika Maltzurren Legea](#) onartu zuen 1933ko martxoaren 21ean, gobernu berriaren aurka egitea edo agintariak kritikatzeko delitu bihurtuz. Desadostasunik txikiena adierazteak ere legea haustea zekarren. Marmarrean aritzea edo agintariei iseka egitea nahikoa arrazoi izan zitekeen atxilotua izateko eta espetxean edo kontzentrazio-esparru batean amaitzeko. Bi egun geroago, martxoaren 23an, Parlamentuak [Lege Gaitzailea](#) onartu zuen,

kantzilerrari Alemaniako legebiltzarrari eta presidenteari kontsultatu gabe legeak ezartzeko aukera ematen zion. Horrek demokraziaren amaiera formala ekarri zuen Alemania nazira.

Talde batzuek lege berrien aurka egin zuten. Oposiziogileek liburuxkak eta eskuorriak idatzi, inprimatu eta banatu zituzten leku askotan, herritarrak nazien [propaganda](#) eta ikuskeraren aurka kontzientziatzeko. Naziek Alemanian ireki zituzten [bortxazko lanen](#) eta [kontzentrazio-esparruetara](#) ieraman zituzten aurkari politiko asko (adibidez, Dachau eta Sachsenhausenera). Aurkari politiko batzuk nazien kartzeletara bidali zituzten, Berlingo [Columbia-Haus](#) sonatura, esaterako. Preso hartu zituzten aurkari politikoen artean, Carl von Ossietzky kazetari bakezalea zegoen, nazien erregimena aho betean kritikatzeko zuena. 1933ko erdialdera arte, naziek ia 27.000 aurkari politiko atxilotu eta Alemania osoko espetxe edo kontzentrazio-esparruetara bidali zituzten. Hurrengo urteetan, espetxeko edo kontzentrazio-esparruko arropetan jositako triangelu gorriak eramatera behartu zituzten.

NAZIONALSOZIALISMOAREN ONDOREN

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, nazismotik bizirik atera ziren aurkari politiko askok jardura politikoarekin jarraitzea erabaki zuten. Preso komunista ohiak [Ekialdeko Alemania](#) k omunistaren (Alemaniako Errepublika Demokratikoa, alegia) sortzaileetako batzuk izan ziren. Mendebaldeko Alemanian, Kurt Schumacher Alemaniako Alderdi Sozialdemokratako (SPD) buruzagi izan zen gerraosteko lehen urteetan. Politikaria hamarkada batez baino gehiagoz egon zen espetxeratuta nazien kontzentrazio-esparruetan, eta horri zor zion hein handi batean bere legitimazioa. Beste preso ohi batzuk Alemaniako gazteen artean balio demokratikoak sustatzen aritu ziren.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Zure ustez, zer presiok eta motibaziok bultzatu zituzten zure herrikideak errepresio politikoari aurre egitera? Faktore horiek garai jakin batekoak al dira edo, aitzitik, unibertsalak? Zertan datza erresistentzia? Marmarrean aritzea erresistentziaren parte da? Zergatik?

Ba al dago aurkari politikorik zure herrialdean gaur egun? Nor dira? Diskriminazioa jasaten al dute?

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZEKO MATERIALAK

Sareko baliabideak.

[https://www.mauthausen-memorial.org/
en](https://www.mauthausen-memorial.org/en)

[https://www.gedenkstaette-flossenbuerg.
de/en/history/flossenbuerg](https://www.gedenkstaette-flossenbuerg.de/en/history/flossenbuerg)

[https://www.kz-gedenkstaette-dachau.de/
en/](https://www.kz-gedenkstaette-dachau.de/en/)

[https://arolsen-archives.org/en/search-
explore/search-online-archive/](https://arolsen-archives.org/en/search-explore/search-online-archive/)

[https://www.weisse-rose-stiftung.de/
white-rose-foundation/](https://www.weisse-rose-stiftung.de/white-rose-foundation/)

Sareko testigantzak

[https://vhaonline.usc.edu/viewingPage?-
testimony ID=26431&returnIndex=0](https://vhaonline.usc.edu/viewingPage?-testimony ID=26431&returnIndex=0)

<https://vimeo.com/705719594>

Liburuak eta artikuluak
Hans Fallada. Every Man Dies Alone
(1946)

NAZIONALSOZIALIS- ISMOAREN GER- RA-PRESOAK

[Gerra-presoa](#)k gatazka armatu batean edo ondoren hartutako gizabanakoak dira, normalean borrokalariak.

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN AURRETIK

1929ko uztailaren 27an, [Genevako Konbentzioa](#) sinatu zen, gerra-presoen egoera eta tratua arautzeko. Lehen Mundu Gerraren ondoren adostu zen, gerra horretako presoek emandako tratua, sarritan kaskarra, ez errepikatzeko. Mundu osoko herrialdeek sinatu zuten, baita Alemaniak ere. Aitzik, hitzarmena ez zen nahikoa izan Bigarren Mundu Gerrako presoek gatibutasun-baldintza duinak eskaintzeko, sarritan modu murriztailean interpretatzen baitzen, edo alde batera uzten.

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN GARAIAN

Nazionalsozialistek harrapatutako gerra-presoa, nagusiki, herrialde [aliatuetakoak](#) ziren (Frantzia, Erresuma Batua, Sobietar Batasuna edo Estatu Batuak, batik bat). Sarritan, gerra-presoei tratu desberdina jasotzen zuten nazionalitatearen eta etniaren arabera, baita jatorrizko herrialdeek [Genevako Konbentzioa](#) sinatu bazuten ere. Adibidez, Alemaniako armadak Poloniako hainbat gerra-presoa hil zituen 1939tik aurrera, ea Frantziaren alde borrokan ari

ziren milaka soldadu [beltz](#) sarraskitu zituen 1940ko maiatzean eta ekainean, horiek harrapatu ondoren. Hala ere, agintari naziek [Genevako Konbentzioa](#) errespetatu zuten: mendebaldeko armadetako gerra-presoa [juduak](#) hil ez zituzten neurrian eta gerra-presoa gaixo asko askatu zituzten.

1945eko urtarrila eta apirila bitartean, Ekialdeko Europako nazien esparruetan atxilotutako milaka gerra-presoa aliatu mendebalderantz eraman zituzten [heriotzaren martxak](#) deituriko "deportazioetan". Horrela, presoek askapena atzeratu nahi zuten. Milaka gerra-presoa hil ziren hotzez, gaixotasunez, gosez edo akiduraz.

Soldadu sobietarren talde-erretratu, 1942an. Argazkia: United States Holocaust Memorial Museum.



Sobietar gerra-presoa

Alemania naziak tratu txar bortitzak eman zizkien sobietar gerra-presoei, eta haietako asko sarraskitu zituen Sobietar Batasuneko inbasioaren lehen urtean. Nazionalsozialisten [antikomunismoagatik](#) judu-boltxebismoaren [mitoagatik](#) eta arrazaren aldetik [eslaviarrak](#) alemaniar ariarrak baino maila-beheragotzathartzeagatik gertatu zen hori. Sobietar Batasunak [Genevako Konbentzioa](#) sinatu ez izanaren aitzakia erabili zuten naziek sobietar gerra-presoen aurkako jazarpena eta hilketak masiboak justifikatzeko.

Sobietar gerra-presoa batzuk goseak jota hil ziren. 1941aren ondoren, askok 700 kaloria baino ez zituzten jaten egunero eta ondorioz sobietar gerra-presoa batzuk goseak jota hil ziren. Gainera, haietako ugari fusilatu egin zituzten. 1941ean Alemaniak Sobietar Batasuna inbaditu baino

Kola eta Pinkus Edelsber partisanso judu-sobietarren erretratuak, 1945ean. Argazkia: United States Holocaust Memorial Museum.



lehentxeago, naziek komisario politiko gisa identifikatutako sobietar preso guztiak fusilatzeko agindu zieten dekretuz indar armatuei (Komisarioen agindua). Sobietar gerra-presoa [gas-ganberetan](#) eta [Zyklon B](#) erabiliz eraildako lehen biktimetako batzuk izan ziren. Nazionalsozialistek 5,7 milioi sobietar preso harrapatu omen zituzten Bigarren Mundu Gerran; horietatik 3,3 milioi inguru gerra amaitu aurretik hil zituzten.

NAZIONALSOZIALISMOAREN ONDOREN

[Nurenbergeko epaiketetan](#) 1945eko azaroa eta 1946ko urria bitartean, gerra-presoei jasan zituzten baldintzak frogatzeko dokumentuak eta frogak bisualak aurkeztu ziren. Nazionalsozialistek preso hartutako militar aliato guztiak ez zuten zorte bera izan; batzuek desagertuta jarraitu zuten gerra amaitu ondoren. Era berean, aske utzi zituzten eta etxera itzuli ahal izan ziren askok egoera zailei egin behar izan zieten aurre, hala nola etxebizitzarik faltari, langabeziari eta trauma psikologikoari.

Askapenaren ondoren, Sobietar Batasuneko gobernuak erregimen naziarekin kolaboratzea leporatu zien gerratik bizirik atera ziren sobietar soldatu askori. Sobietar Batasunera aberriratu ondoren, militar asko galdekatu eta epaitu egin zituzten. Gerra-presoa ohi batzuk erruduntzat jo zituzten, [gulag](#) izenez ezagutzen ziren bortxazko lanen esparruetan sartu, edo "traizio" akusaziopean exekutatu.

EZTABAIDARAKO GALDERAK

Nola islatzen du gerra-presoei emandako tratuak nazien ideologia?

Zergatik tratatu zituzten alemaniarrek sobietar gerra-presoa beste herrialde batzuetakoak baino indarkeria gehiagorekin?

Aztertu gerran harrapatutako militarrei eman beharreko tratua, nazioarteko jokabide-kodeen arabera. Nazioarteko zer hitzarmenek arautzen dute gerra-presoei eman beharreko tratua? Nola aldatu dira hitzarmen horiek Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik?

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZEKO MATERIALAK

Sareko artxiboak.

[https://encyclopedia.ushmm.org/
content/en/series/soviet-prisoners-of-
war?parent=en%2F10135](https://encyclopedia.ushmm.org/content/en/series/soviet-prisoners-of-war?parent=en%2F10135)

[https://encyclopedia.ushmm.org/content/
en/article/nazi-persecution-of-sovi-
et-prisoners-of-war](https://encyclopedia.ushmm.org/content/en/article/nazi-persecution-of-soviet-prisoners-of-war)

[https://www.chronicsofterror.pl/dlibra/
results?action=AdvancedSearchAction&-
type=-3&search_attid1=62&search_val-
ue1=Soviets+in+German+captivity](https://www.chronicsofterror.pl/dlibra/results?action=AdvancedSearchAction&type=-3&search_attid1=62&search_value1=Soviets+in+German+captivity)

Alemanian zeuden gerra-presoen esparru-
en zerrenda:

[https://www.moosburg.org/info/stalag/
laglist.html](https://www.moosburg.org/info/stalag/laglist.html)

SEXU-INDARKERIA NAZIONALSOZIALIS- MOAREN GARAIAN

[Sexu-indarkeria](#) baliabide sexualen bidez eragindako edo sexualitatearen aurka bideratutako indarkeria fisiko edo psikologiko oro da. Sexu-umiliazioa indarkeria mota honetan sarri erabiltzen den taktika bat da. Horren adibide da depilazio behartua, gorputzaren intimitatea inbaditzen eta gizatasuna kentzen duen praktika baita. Gainera, generoaren edo feminitatearen funtsezko ezaugarri bat galtzea dakar. Sexu-indarkeriaren eta bortxaketen biktima gehienak emakumeak eta neskatoak dira. Hala ere, gizonek, mutilek eta beste genero batzuek ere sexu-indarkeria pairatzen dute.

Nazionalsozialismoaren garaietan sexu-indarkeriaren biktima asko erailak izan ziren edo jasan zituzten abusuei buruz hitz egiteko beldur izan ziren. Horregatik, gaiari buruzko testigantza gehienak sexu-indarkeriaren lekukoenak dira. Hala ere, horrek ez du esan nahi biktimei egindako elkarrizketetan eta haien oroitzapenetan bizipen edo istorio pertsonalak sumatu ezin ditugunik: batzuetan, arretaz baino ez dugu entzun behar.

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN AURRETIK

Sexu-indarkeria eta [bortxaketak](#) denbora luzez erabili izan dira izua- eta tortura-metodo gisa; beraz, ez zen

nazionalsozialismoan soilik erabilia. Gerretan sexu-indarkeria erabili izan da populazioak zigortzeko, izutzeko eta suntsitzeko tresna gisa. Gerretan gertatzen den sexu-indarkeriaren atzean hainbat [erasotzaile](#), daude, eta jendaurrean jarduten dute; talde-bortxaketak eta armekin edo bestelako objektuekin egindako eraso intimoak egiten dira. Sexu-indarkeriak forma asko har ditzake, hala nola [esklabotza sexuala](#), [bortxazko prostituzioa](#), eta [tortura sexuala](#). Ondorioak ez dira indibidualak soilik. Sexu-indarkeriak gaixotasunak zabaltzen ditu gizarte-komunitateetan, eta familia-loturak suntsi ditzake. Era berean, genero-desberdintasunak areagotzen ditu eta sexu-indarkeria normalizatzen du, batzuetan baita gatazka amaitu ondoren ere.

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN GARAIAN

Sexu-indarkeria kontzentrazio-esparruetan eta ghettoetan

Presoak biluztera eta gorputzeko ilea kentzera behartzen zituzten, kontzentrazio-esparruetan sartu eta irteteko ohiko prozeduren barruan. Baginako eta genitaleko auskultazio bortitzak ere ohikoak ziren; horietan, funtzionarioek eta guardiek bularrak eta genitalak ukitzen zizkieten emakumeei.

Kontzentrazio-esparruetan, preso batzuei esperimentu medikoak egiten zizkieten ugalketa-organoak eta genitalak ikuskatzeko. Naziek esperimentuak egin zituzten antzutze behartuen teknika hobetzeko; helburua biktimen ugalketa eragoztekoa zen, langile gatibu gisa lan egiten jarrai zezaten. Esperimentu horietako batzuetan gizon gazteen genitalak erradiazioaren eraginpean jartzen zituzten, edo zikiratu egiten zituzten barrabiletako aldaketak aztertzeko. Beste batzuetan, substantzia kaustikoak injektatzen zituzten emakumeen umetokian eta zerbixean, eta horrek min handia, odoljarriak eta espasmo abdominalak eragiten zituen. Era berean, intseminazio artificalarekin lotutako esperimentuak egin zizkieten 300 emakumeri [Auschwitzeko](#) 10. blokean.

Presoek sexu-abusuak eta bortxaketak ere jasan zituzten [esparruetan](#) eta [ghettoetan](#). Askotan, bortxaketen [biktimak](#) geroago hil egiten zituzten. Batzuetan, sexu-transmisiozko gaixotasunak (STG) hartzen zituzten edo haurdun geratzen ziren. Beste kasu batzuetan, ghettoetako eta kontzentrazio-esparruetako buruzagiak, guardiak eta zenbait preso (sukaldariak, adibidez) beren botereaz baliatu ziren haurrak, gizonak eta emakumeak sexu-harremanak izatera behartzeko. Trukean, elikagaiak, botikak eta deportazioaren aurkako babesak agintzen zieten. Sexu-indarkeria eta [sexu-trukea](#) bereizten zituen lerroa lausoa izaten zen askotan.

Sexu-indarkeria kontzentrazio- eta lan-esparruetan espetxeratutako pertsonak beldurtzeko eta zigortzeko ere erabili zen. Erasotzaile askorentzat, sexu-indarkeria gizatasuna kentzeko eta biktimak (bereziki emakume eta neska juduak) umiliatzeko tresna bat zen. [Rassenschande](#) ideologiak, ariarren eta ez-ariarren arteko sexu-harremanak debekatzen zituenak, ez zuen sexu-abusua prebenitzen lagundu.

Zaindariak ziren izan presoek sexu-abusuak egin zizkieten bakarrak. Kontzentrazio-esparru askotan, gizonzkoentzako burdelak zeuden, eta emakume ez juduak prostituta gisa lan egitera behartzen zituzten. Preso asko [Ravensbrück](#) burdelak zituzten esparruetara eramanez zituzten ([Mauthausen](#), [Buchenwald](#), [Dachau](#) eta

[Flossenbürg](#), besteak beste). Asmoa langile gatibu gisa ziharduten presoak motibatzea zen. Horrela, gizonzko presoak emakume atxilotuak sexu-langile izatera behartu zituzten, eta sexu-indarkeriaren egile bihurtu ziren.

Esparruetatik bizirik atera ziren gazteen testigantzen arabera, [kapos](#) eta adineko preso ([Blockältesten](#)) askok sexu-abusuak egin zituzten barrakoietan. Egoera horietan, adineko gizonak mutil gazteek aprobetxatzen ziren, eta lehentasunezko tratua ematen zieten trukean (janari-anoa gehigarriak, zapata berriak edo beste objektu batzuk).

Sexu-indarkeria kontzentrazio-esparruetatik eta ghettoetatik kanpo

Sexu-indarkeriaren egile asko kontzentrazio-esparruetatik kanpo zeuden: lurraldeak okupatzen zituzten indar nazionalsozialistak, tokiko [kolaboratzaileak](#) jazarriak ziren beste pertsona batzuk edota biktimei klandestinitatean laguntzen zieten erresistentziaren borrokalariak. Ezkutatuak haurrek sexu-abusuak jasateko arrisku handiagoa zuten, familia eta lagunengandik bananduta eta isolatuta zeudelako. Herrialde okupatuetan, [partisanoen](#) aurkako operazioek (hau da, erresistentzia-mugimenduen erreboltak zapaltzeko ekintzak) zibil errugabeen sarraskiak eragin zituzten, etan emakume zibilak bortxatzeko eta sexualki umiliatzeko aitzakia izan zire.

[Askapenak](#) ere ez zituen emakumeak sexu-abusuak jasateko aukerarik libratu, soldadu askatzaileak ere bortxatzaileak izan zitezkeelako. Testigantza askoren arabera, emakumeak sobietar soldaduek bortxatuko ote zituzten beldur ziren. Gizon hauek ezagunak ziren askatzen zituzten emakumeak bortxatzeagatik, inor bereizi gabe. Gauza bera egin zuten Alemanian okupatu zituzten hirietan.

NAZIONALSOZIALIS- MOAREN ONDOREN

Bigarren Mundu Gerran, alde guztiei leporatu zitzaizkien bortxaketa masiboak, baina inork ez zuen auzitegirik eratu sexu-indarkeriaren egileak epaitzeko, eta biktimak ere ez zituzten aintzat hartu. Azken hamarkadetan, sexu-indarkeria delitutzat hartu da giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arabera. Barneko eta nazioarteko legeek sexu-indarkeria prebenitzeko xedapenak jaso dituzte. Hala eta guztiz ere, gerra eta bake garaian oraindik gertatzen da.

TOKIKO HISTORIAREN PROIEKTUAN ERABILTZEKO MATERIALAK

Testigantzak aurkitzeko, bilatu "sexual assault" Hego Carolinako Unibertsitateko (USC) Shoa fundazioaren artxibo bisualean:

[https://vhaonline.usc.edu/quickSearch/
resultList](https://vhaonline.usc.edu/quickSearch/resultList)

Sareko testigantzak:

[https://www.tabletmag.com/sections/\[sec-
tionSlug\]/articles/holocaust-metoo-mo-
ment](https://www.tabletmag.com/sections/[sectionSlug]/articles/holocaust-metoo-moment)

[https://perspectives.ushmm.org/item/
ushmm-oral-history-with-blanka-roth-
schild](https://perspectives.ushmm.org/item/ushmm-oral-history-with-blanka-roth-schild)

[https://perspectives.ushmm.org/item/
ushmm-oral-history-with-dora-gold-
stein-roth](https://perspectives.ushmm.org/item/ushmm-oral-history-with-dora-goldstein-roth)

Antzutze behartuak eta esperimentu medikoak Auschwitz kontzentrazio-esparruan:

[https://www.auschwitz.org/en/history/med-
ical-experiments/carl-clauberg/](https://www.auschwitz.org/en/history/medical-experiments/carl-clauberg/)

Filmak:

Made in Auschwitz: The Untold Story of
Block 10. 2019. 1h 12m.

DENBO- RA-LERROA

1933

Uttarril

Uttarrilak 30 0 Hitler Kantziler bihurtu zen

Otsail

Otsailak 28 - Reichstag-eko sua Dekretua

Martxo

Martxoak 3 - Lehen Nazi konzentrazio esparruaren sorrera

Martxoak 23 - Gaikuntza Legearen sinadura: parlamentuaren ezabatzea

Uztail

Uztailak 14 - Alderdi politiko guztiak debekatuta Alderdi Nazia izan ezik

1934

Urtarril

Urtarrilak 1 - Herentziazko gaixotasunak dituztenen ondorengotza prebenitzeko legea

Abuztu

Abuztuak 19 - Hitlerrek presidente kargua alde batera utzi eta bere burua Kantziler eta Führer izendatzen du, Alemaniako diktadore absolutu bihurtuz

Abendu

Abenduak 10 - Kontzentrazio-esparruen sistema SS-en kontrolpean zentralizatzen da

1935

Urtarril

Urtarrilak 13 - Saar-eko Erreferenduma

Irail

Irailak 1 - Alemaniako Kode Kriminalaren (edo Zigor Kodearen) 175. paragrafoaren berrikuspena indarrean sartzen da homosexualitatearen kriminalizazioa zabalduz.

Irailak 15 - Nurembergeko Arraza Legeak indarrean sartzen dira

1936

Martxo

Martxoak 7 - Alemaniar tropek berriro ere Renania desmilitarizatua okupatzen dute

Uztail

Uztailak 17 - Espainiar Gerra Zibila hasten da

Uztailak 25 - Alemaniaren esku-hartzea Espainiako Gerra Zibilean hasten da

1937

Apiril

Apirilak 26 - Gernikako suntsipena, 2.000 hildako ingururekin

1938

Martxo

Martxoak 13 - Alemaniar tropek Austria anexionatzen dute (Anschluss)

Irail

Irailak 30 - Municheko Hitzarmena

Azaro

Azaroak 9 - Azaroko Pogroma

Abendu

Abenduak 2 - Berlinetik ateratzen den lehen Kindertransport (euskaraz Haur-garraioa) Erresuma Batura iristen da

1939

Martxo

Martxoak 14 - 16 - "Bohemia eta Moraviako Reich Protektoratua"-ren fundazioa

Martxoak 14 - Eslovakiako Errepublika independentea sortu zen

Martxoak 15 - Alemaniak Txekoslovakia inbaditzen du

Martxoak 23 - Eslovakia Reich alemaniarren babespean kokatzen da; Alemaniarrak Memel eskualdea (Klaipėda) inbaditzen dute

Martxoak 26 - Poloniak bere armadaren mobilizazio partziala hasten du

Apiril

Apirilak 1 - Espainiar Gerra Zibilaren amaiera

Apirilak 7 - 12 - Italiak Albania okupatzen du

Maiatz

Maiatzak 11 - Japoniarren eta sobietarren arteko mugako gatazkaren hasiera

Maiatzak 22 - Alemania eta Italiaren arteko itun militarren sinadura

Abuztu

Abuztuak 23 - Alemaniak eta Sobiet Batasunaren arteko Ez-Eratorako Ituna sinatzen da

Irail

Irailak 1 - Alemaniak Polonia inbaditzen du - Bigarren Mundu Gerraren hasiera

Irailak 2 - Alemaniak Reich-ak Dantzig Hiri Askea anexionatzen du

Irailak 3 - Britainiarrek eta frantsesek gerra deklaratu diote Alemaniari

Irailak 5 - Eslovakiako Errepublika sortu berria Poloniaren aurkako gerran sartzen da

Irailak 17 - Sobietarrek Ekialdeko Polonia inbaditzen dute

Azaro

Azaroak 30 - Sobietarrek Finlandia erasotzen dute ("Neguko Gerra")

1940

Apiril

Apirilak 9 - Alemaniak Danimarka okupatzen du eta Norvegia erasotzen du

Apirilak 10 - Danimarkaren Kapitulazioa

Maiatz

Maiatzak 10 - Alemaniaren eraso Belgikan, Herbehereetan, Luxenburgon eta Frantzian

Ekain

Ekainak 10 - Norvegiaren kapitulazioa

Ekainak 22 - Alemania eta Frantziaren arteko Armistizioa

Irail

Irailak 27 - Alemania, Italia eta Japoniak sinaturiko Hiruen arteko Ituna

Urri

Juduen ghetto ugari ezartzen dira Ekialdeko Europan

1941

Otsail

Otsailak 28 - Alemaniak Bulgaria inbaditzen du

Apiril

Apirilak 6 - Alemaniak Jugoslavia eta Grezia inbaditzen ditu

Ekain

Ekainak 22 - "Barbarossa Operazioa" (euskaraz Bizargorri Operazioa): Alemaniak Sobietar Batasuna inbaditzen du

Abendu

Abenduak 11 - Hitlerrek gerra deklaratu zuen AEBei

1942

Urtarril

Urtarrilak 20 - Wannsee Konferentzia

Ekain

Ekainak 15 - Auschwitz-Birkenauko sarraski masiboaren hasiera

1943

Otsail

Otsailak 2 - Alemaniaren porrota Stalingradon

Apiril

Apirilak 19 - Varsoviako ghettoaren altxamendua hasiera

Urri

Urriak 13 - Italiak aliatuekin bat egiten du eta Alemaniari gerra deklaratu dio

Sinti eta Roma komunitateetako pertsonak sistematikoki Europako toki guztietatik Auschwitzera eramaten dituzte

1944

Ekain

Ekainak 6 - Aliatuen inbasioa Normandian ("D Eguna")

Ekainak 22 - Sobietarren eraso handiaren hasiera ("Bagration Operazioa")

Uztail

Uztailak 24 - Alemaniaren porrota Ekialdeko frontean

1945

Maiatz

Maiatzak 8 - Wehrmacht alemaniarren baldintzarik gabeko errendizioa

Azaro

Azaroak 20 - Nuremberg-eko epaiketen hasiera



MAPA

Mapa honek Europako sarraski-esparru, kontzentrazio-esparru, ghetto eta hilketa masiboko beste leku batzuen kokapena erakusten du. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea jazarpena leku askotan eta eskala ezberdinetan gertatu zela. Konturatuko zarete mapahonetan agertzen diren mugak gaurkoak direla. Gogoratu Europako herrialdeen mugak aldatu egin direla denborarekin. Erabili mapa hau gaur egun nazionalsozialismoarekin lotutako gune desberdinak non dauden ikertzeko gida gisa. Zer aurki dezakezu zure inguruko toki historikoei buruz?

Kontzentrazio-esparruak

- ◆ Mauthausen - Austria (3)
- ◆ Maly Trostenets - Bielorrusia (4)
- ◆ Mechelen - Belgika (31)
- ◆ Fort Breendonk - Belgika (35)
- ◆ Dupnica - Bulgaria (37)
- ◆ Jasenovac - Kroazia (5)
- ◆ Theresienstadt - Txekia (6)
- ◆ Lety - Txekia (7)
- ◆ Horseshoed - Danimarka (8)
- ◆ Vaivara - Estonia (9)
- ◆ Gurs - Frantzia (10)
- ◆ Vernet - Frantzia (11)
- ◆ Natzweiler-Struthof - Frantzia (12)

- ◆ Royallieu-Compiègne - Frantzia (13)
- ◆ Drancy - Frantzia (34)
- ◆ Ravensbrück - Alemania (14)
- ◆ Bergen-Belsen - Alemania (15)
- ◆ Buchenwald - Alemania (16)
- ◆ Dachau - Alemania (17)
- ◆ Sachsenhausen - Alemania (18)
- ◆ Columbia - Alemania (19)
- ◆ Langer Morgen - Alemania (20)
- ◆ Flossenbürg - Alemania (21)
- ◆ Neuengamme - Alemania (22)
- ◆ Mittelbau-Dora - Alemania (23)
- ◆ Fossoli - Italia (24)
- ◆ Bolzano - Italia (25)
- ◆ Kaiserwald - Letonia (26)
- ◆ Herzogenbusch - Herbehereak (27)
- ◆ Westerbork - Herbehereak (36)
- ◆ Grini - Norvegia (28)
- ◆ Berg - Norvegia (38)
- ◆ Stutthof - Polonia (29)
- ◆ Edineț - Moldavia (30)
- ◆ Banjica - Serbia (32)
- ◆ Sajmište - Serbia (33)
- ◆ Sered' - Eslovakia (1)
- ◆ Nováky - Eslovakia (2)
- ◆ Ljubelj - Eslovenia (39)

Hilketa zentroak

- ◆ Hartheim - Austria (38)
- ◆ Brandenburg - Alemania (39)
- ◆ Grafeneck - Alemania (40)

- 📍 Bernburg - Alemania (41)
- 📍 Pirna-Sonnenstein - Alemania (42)
- 📍 Hadamar - Alemania (43)

Ghettoak

- 📍 Salonika - Grezia (44)
- 📍 Budapest - Hungaria (57)
- 📍 Vilnius - Lituania (46)
- 📍 Skopje - Mazedonia (47)
- 📍 Warsaw - Polonia (48)
- 📍 Izbica - Polonia (49)
- 📍 Łódź - Polonia (50)
- 📍 Radom - Polonia (51)
- 📍 Lublin - Polonia (52)
- 📍 Kraków - Polonia (53)
- 📍 Białystok - Polonia (54)
- 📍 Kolozsvár - Errumania (45)
- 📍 Šabac - Serbia (55)
- 📍 Lwów - Ukraina (56)

Sarraski guneak

- 📍 Rumbula - Letonia (58)
- 📍 Ponary - Lituania (59)
- 📍 Odessa - Ukraina (60)
- 📍 Babi Yar - Ukraina (61)

Sarraski-esparruak

- 📍 Bełżec - Polonia (62)
- 📍 Sobibor - Polonia (63)
- 📍 Treblinka - Polonia (64)
- 📍 Majdanek - Polonia (65)
- 📍 Chełmno - Polonia (66)
- 📍 Auschwitz - Polonia (67)

GLOSARIOA

175. artikulua: Alemaniako Zigor Kodearen xedapena, gizonen arteko sexu-harremanak zigortzen zituen (ez zien eragiten emakumeen arteko sexu-harremanei). Artikulua Zigor Kodean jasota zegoen naziak boterera iritsi aurretik. 1935ean, naziek xedapena zabaldu eta gogortu zuten. Homosexualak ziren eta harreman homosexualak zituzten gizonak jazartzeko erabilitako tresna nagusietako bat bilakatu zen.

Aberrigabe: inongo estaturen babesik ez duen herritarra.

Afrikar jatorriko pertsonak: jaioterria Afrikan zuten pertsonen ondorengoak. Horien artean esklaboen salerosketaren biktimen ondorengoak edo kolonialismoaren ondorioz Europara iritsi ziren pertsonak daude.

Agentzia (eraginkortasuna : helburu eta emaitzabaliotsuak hautematekogaitasuna deskribatzen duen kontzeptu filosofikoa (baita xede horiek modu proaktibo, kementsu eta eraginkorrean lortzen saiatzeko borondatea ere). Batzuetan "proaktibitatea", "autonomia", "aukeratzeko gaitasuna" eta "autorregulazioa" bezalako kontzeptuen sinonimo gisa erabiltzen da.

Askapena: Bigarren Mundu Gerrari dagokionez, askapena da indar aliatuek Europan aurrera egin ahala (1944-1945) presoak kontzentrazio-esparruetatik eta naziak okupatutako lurraldeetatik askatzeko prozesua.

Aktion "Arbeitsscheu Reich": "Reicheko alferrak" kanpainaren bidez, "asozial" gisa sailkatutako herritarrak masiboki atxilotu eta kontzentrazio-esparruetara deportatu

zituzten 1938ko ekainean. Estimazioen arabera, 10.000 pertsona baino gehiago atxilotu zituzten, eta kontzentrazio-esparruetara bidali. Juduak ere kanpaina horren biktima izan ziren (1.000-2.000 atxilotu zituzten).

Aktion T4: nazien eutanasia-programak jaso zuen izena. Indarrean egon zen bitartean (1939tik aurrera Alemanian), buruko gaixotasunak eta dibertsitate funtzionala zituzten pazienteak sistematikoki erail zituzten. Izena Berlingo koordinazio-bulegoaren helbidetik dator (Tiergartenstraße kaleko 4. zenbakia). 250.000-300.000 pertsona inguru hil omen zituzten programa hori aplikatuz.

Alemaniako Errepublika Federala: Bigarren Mundu Gerraren ondoren, aliatuek lau okupazio-eremutan banatu zuten Alemania, bakoitza herrialde ezberdin baten kontrolpean (Britainia Handia, Frantzia, Estatu Batuak eta Sobietar Batasuna). 1946 eta 1949 bitartean, Estatu Batuak, Erresuma Batuak eta Frantziak beren okupazio-eremuak bateratzea adostu zuten. 1949an, Alemaniako Errepublika Federala (Mendebaldeko Alemania izenarekin ezagunagoa) estatubereizi eta independente gisa ezarri zen.

Alemaniako Errepublika Demokratikoa: Bigarren Mundu Gerraren ondoren, aliatuek lau okupazio-eremutan banatu zuten Alemania, bakoitza herrialde baten kontrolpean (Britainia Handia, Frantzia, Estatu Batuak eta Sobietar Batasuna). Sobietar Batasuneko indarrek ekialdeko eremua okupatu zuten. 1949ko urriaren 7an, Alemaniako Errepublika Demokratikoa ezarri zen, Ekialdeko

Alemania bezala ezagutzen dena. Estatu sozialista izan zen eta 1990eko urriaren 3an desegin zen.

Alemaniarren bateratzea: 1990eko urriaren 3an, Alemaniako Errepublika Federalak eta Alemaniako Errepublika Demokratikoak bat egin zuten.

Alemaniak okupatutako herrialdeak: Alemaniak Europako herrialdeak okupatu zituen lurraldearen kontrol politikoa lortzeko eta bertan bizi ziren nazioak suntsitzeko (Ekialdeko Europan, batik bat). Indar okupatzaileek arraza-legeak ezarri zituzten, eta, ondorioz, milioika pertsonak diskriminazioa jasan zuten edo erailak izan ziren; gainera, herrialde okupatuetako baliabide ekonomikoak Alemaniaren onerako erabili ziren.

Alferra: naziek erabiltzen zuten terminoa, gizarte-ikuspegitik "desiragarriak" ez ziren pertsonak izendatzeko (esaterako, langabeak edo delitugileak).

Antikomunismoa: komunismoaren aurkako oposizio politikoa eta ideologikoa.

Antisemitismoa: juduen aurkako aurreiritziak, gorrotoa edo diskriminazioa. Baliteke antisemitismoaren adierazpenak (erretorikoak zein fisikoak) gizabanako juduen eta haien jabetzen aurka, komunitate juduaren erakundeen aurka eta erlijio-tokien aurka zuzentzea. Gainera, antisemitismoak juduak ez diren pertsonen ere eragin diezaieke (norbaitek halakotzat hartzen baditu).

Antzutze behartua: esterilizazioaren bidez, pertsona baten ugalketa-gaitasuna eragozten da. Prozedura kirurgikoen bidez egin ohi da, baina ugalketa-organoak ez dira beti erazten. Antzutze behartua, aldiz, biktimaren baimen informaturik gabe gertatzen da.

Ariar arraza: elkarren artean erlazionatutako Europako eta Asiako hainbat hizkuntzen hitzunei erreferentzia egiteko erabiltzen zen terminoa hasiera batean. Denborarekin, ordea, hitzak esanahi berria hartu zuen. XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, ariarrak "arrazak" bat zirela (besteak baino

hobea) esan zuten aditu batzuek. Naziek alemaniarrak loriatzen zituzten "ariarrak" zirelako, eta, aldi berean, ideal horretan lekurik ez zuten taldeak gutxiesten zituzten (juduak, afrikar edo asiarrak jatorriko pertsonak eta erromaniak, besteak beste).

Arraza: pertsonak taldetan banatzen dituen kontzeptua, ezaugarri fisikoen zenbait multzoren arabera. "Arraza" terminoa definiziorik gabe erabiltzen da askotan, eta arrazoi politikoengatik desitxuratzen da. Arrazari buruzko ikusmoldeak aldakorak izan dira beti. Zientzia modernoaren arabera, arraza eraikuntza soziala da, gizarteak pertsona edo talde bati esleitzen dion identitatea.

Arraza-hierarkia: zenbait arraza beste arraza batzuk baino goragokoak direla ezartzen duen estratifikazio-sistema, ideia faltsuetan oinarritua.

Arraza-higienea: XX. mende hasierako eugenesiarekin lotutako ideia. Arrazak "garbi" mantentzea posible zela aldarrikatzen zuen; horretarako, arraza desberdineko pertsonen arteko "nahasketa" eragotzi behar zen. "Arraza-higienea" ezartzeko, neurri ugari onartu ziren, besteak beste: "ariarren" eta "ez ariarren" arteko ezkontzak eta sexu-harremanak debekatzea, jaiotzak sustatzea arrazaren aldetik "desiragarritzat" jotzen ziren emakumeen artean eta nazien gustuko arraza-irizpideekin bat ez zetozen pertsonak antzutu edo hiltzea.

Arraza juduko pertsonak: nazionalsozialismoaren arraza-ideologiaren arabera, judaismoa ez da soilik erlijio edo kultura bat, arraza baizik. Beraz, erlijioari jarraitu ez arren, baziren naziek arrazaren aldetik judutzat hartzen zituzten juduen ondorengoak. Horiek ere jazarriak izan ziren.

Arrazakeria edo arrazismoa: pertsona edo talde baten aurkako aurreiritziak, diskriminazioa edo etsaitasuna, beheragokoa delakoan. Arrazakeria ideia kontzientea edo inkontzientea izan daiteke, eta bilakaera nabarmena izaten du gizartea aldatzen den heinean. Halaber, sistemikoa izan daiteke, eta horrek esan nahi du gizarteko lege, erregelamendu,

prozedura eta erakundeetan errotuta dagoela. Horrela, desberdintasunak eta zapalkuntza betikotzen dira, baita gizartea arrazakeriari aurre egiten saiatzen bada ere. Beheragokotzat hartzen diren arraza edo etnietako kideek pairatzen dituzte arrazakeriaren ondorioak, baita talde horietako parte sentitzen ez badira.

Arrazismo zientifikoa: arrazakeria biologikoa ere esaten zaio. Oinarri zientifikorik gabeko teoria da, arrazakeria frogekin justifika daitekeela dioena. Iraganean, arrazismo zientifikoak babesa izan zuen komunitate zientifikoan, baina jada ez da baliozko teoria zientifikotzat hartzen.

Arrisku horia: XIX. mendetik asiar jatorriko pertsonen aurka erabilitako arraza-iraina. Asko beldur ziren Asiako herriek Europa inbadituko ote zuten (aspaldiko obsesioa Mendebaldean), eta hortik esaeraren jatorria. Ekialdeko eta Hego-ekialdeko Asiako herriak mehatxu gisa irudikatzen ditu.

Asiar jatorriko pertsonak: jaioterria Asian duten pertsonen ondorengoak. Termino horren definizioa zabala izan daiteke, eta Ekialdeko, Hegoaldeko, Erdialdeko, Hego-ekialdeko eta Mendebaldeko Asiako pertsonak hartzen ditu barne. Sarritan testuinguru politikoaren arabera da, Errusia edo Errusiako zati batzuk ere har ditzakeelako barne.

Asoziala: naziek "asozial" edo "alfer" deitzen zieten beren gizarte-arauetara egokitzen ez ziren pertsoneri. Eskaleak, alkoholikoak, drogazaleak, prostitutak eta bakezaleak (gerra justifikaezina dela uste duten pertsonak) sartzen ziren talde horretan. Halaber, nazien gizarte idealean sartzen ez ziren beste talde batzuk jazartzeko ere erabili zen terminoa, hala nola ijituak edo juduak.

Atxiloketa arbitrarioa: legez kanpoko atxiloketa, berme prozesalik, lege-oinarririk edo bidezko epaiketa baten legezko babesik gabea. Askotan disidentek beldurtzeko eta zapaltzeko taktika da.

Auschwitz dekretua: 1942ko abenduaren 16an emandako dekretua, Reichen bizi ziren erromani eta sinti guztiak Auschwitz-Birkenau kontzentrazio-esparrura deportatzeko agintzen zuena. "Ijitoak" akabatzeko plan baten azken fasea izan zen. Auschwitz-Birkenaur iristean, "ijitoen esparrura" eramaten zituzten, eta "Z" ("Zigeuner" hitzaren hasiera, hau da, "ijitoa" alemanez) eta zenbaki bana tatuatzen zizkieten. 23.000 ijitu inguru deportatu zituzten; horietatik 19.000 baino gehiago hil zituzten. Azken 4.300 biktimak 1944ko abuztuaren 2an eta 3an gasztatu zituzten.

Behartutako abortua: abortua haurdunaldia nahita etetea da. Behartutako abortua, aldiz, haurdunaren baimen informaturik gabe gertatzen da.

Behartutako prostituzioa: prostituzioa diruaren, janariaren, alokairuaren, drogen edo bestelako onura ekonomikoen truke beste pertsona batzuekin sexu-harremanak izateko praktika da. Prostituzioa sexu-esplotazio modu bat izan daiteke. Behartutako prostituzioa gertatzen da norbait bere borondatearen aurka eta zigor-mehatxupean prostituitzera behartuta dagoenean.

Bisexuala: bere sexuak, bai beste sexuak erakartzen duten pertsona, ez nahitaez aldi berean, ez nahitaez modu berean, eta ez nahitaez intentsitate berarekin.

Blockälteste(r): kontzentrazio-esparruko preso zaharrena, barrakoi baten buruzena eta zenbait pribilegio lortzen zituena esparruaren antolaketan parte hartzeagatik.

Bortxaketa: norbaitek beste norbaiti aho, bagina edo uzki bidezko sexu-sarketa egitea, gorputzeko edozein atal edo objektu erabiliz eta biktimaren onarpenik gabe. Bortxaketa indarrezko eta nahi gabeko ekintza da, eta, azken batean, boterearekin zerikusi handiagoa du sexuarekin baino.

Bortxazko lana: nahi gabe eta zigor-mehatxupearan egindako lana. Norbait lan egitera behartzeko indarkeria edo xantaia erabiltzen den egoerak deskribatzen ditu. Adibidez, nortasun-agiria kenduko diotela edo agintarien aurrean salatuko dutela.

Britainia handiaren kontrolpeko Palestina: Britainiar okupazioaren aurretik, Palestina Otomandar Inperioaren zati zen. 1920ko apirilaren 25ean, Lehen Mundu Gerra amaitu ondoren, Britainia Handiak Palestinaren kontrola bereganatu zuen, "mandatua" izenarekin. Egoera hau 1948an Israel sortu zen arte luzatu zen.

Buruko gaixotasunak eta dibertsitate funtzionala dituzten pertsonak: buruko gaixotasunek edo nahasmenduek osasun mentalari eragiten dioten gaitz ugari hartzen dituzte barne (gogo-aldartearen, pentsamenduaren eta portaeraren nahasmenduak, batik bat). Dibertsitate funtzionala eguneroko bizitzan eragina duen desgaitasuna da. Dibertsitate funtzionalaren kontzeptuak ideia hau zabaltzen ditu: desgaitasuna duten pertsonak gizartearentzat baliagarriak izan daitezkeela.

Chinesenakzio: "txinatarren aurkako kanpaina" gisa itzul daiteke. Izan ere, 1944ko maiatzaren 13an, Gestapoak sarekadak eta atxiloteta masiboak egin zituen Sankt Paulin (Hanburgo) txinatar jatorriko pertsonen aurka.

Dachau-ko epaiketak: aliatuek 1945 eta 1947 bitartean okupatutako Alemanian (zehazki, AEBko armadaren kontrolpean zeuden eremuetan) egindako epaiketak, gerra-kriminalak auzipetzeko. Epaiketak Dachauko kontzentrazio-esparruan egin ziren.

Deportazioa: norbait bere etxea uztera behartzea. Naziek presoak engainatu eta haien etxeak edo ghettoak uztera eta kontzentrazio-esparruetara edota sarraski-esparruetara zihoazen trenetan igotzera behartu zituzten. Egunak behar ziren bidaia egiteko, eta inork ez zien janaririk ezta urik ematen bagoietan pilatuak eta baldintza osasungaitzetan garraiatzen zituzten presoek. Izan ere, horietako asko esparruetara iritsi aurretik hiltzen ziren.

Desplazamendua: pertsonak haien etxeetatik kanporatzeko prozesua, gerrak, gobernu-politikak edo hondamendi naturalak direla eta. Beraz, bizitzeko leku berriak bilatu behar dituzte.

Delitugile profesionalak: delituak egiteagatik behin baino gehiagotan kondenatutako pertsonak. Delitugile arruntak edo berrerorleak ere esaten zaie.

E eguna (D day bezala ezagutua): Bigarren Mundu Gerrako aliatuek Normandiako inbasioaren hasiera izendatzen du, 1994ko ekainaren 6an. Garai hartan, Alemaniak Frantziako eskualde hori okupatuta zuen. Operazioa itsasotik egin zen, tropa aliatuak Normandiako kostaldean zehar lehorreratu zirenean. Frantzia askatzeko oinarriak ezarri zituen guduak. E eguna Bigarren Mundu Gerraren amaieraren hasiera omen da.

Ehegesundheitsgesetz: 1935eko ezkontza-legea, formalki "Alemaniarren osasun genetikoa bermatzeko legea" izenarekin ezagutzen zena. Ezkontzea debekatzen zien buruko gaixotasunak edo gaixotasun heredagarriak zituzten pertsonari. Senar-emaztegaiek osasun publikoko bulegoak emandako ziurtagiri bat lortu behar zuten ezkondu aurretik.

Einsatzgruppen ("Heriotzaren eskudroi paramilitarrak"): SSen agindupean jarduten zuten paramilitarrak, bereziki Alemaniak Ekialdeko Europan okupatu zituen lurraldeetan. Hilketak masiboak egin zituzten, batez ere tiroka, polizia-unitateen, armadaren eta tokiko kolaboratzaileen laguntzarekin. Batzuetan, hilketak masiboak hainbat egun irauten zuten, Ukrainako Babi Yar sarraskiaren kasuan bezala. Einsatzgruppen taldeak 30.000 judu baino gehiago hil zituen bertan.

Erbestea: norbaitek bere herrialdea utzi eta atzerrian bizi behar duenean. Normalean, arrazoi politiko edo ekonomikoengatik.

Erbesteko gobernuak: atzerrian ezarritako aldi baterako gobernuak, lurralde bat beste agintaritzak batek okupatu ondoren.

Erlikia: belaunaldiz belaunaldi lagatuko objektua, balio handikoa.

Errausketa-labea: kontzentrazio-esparruetan zegoen labe mota, biktimen gorpuak erraustu eta desagerrarazteko.

Erresistentzia: boterea dutenei aurka egitea, norberaren edo jazarritako pertsonen giza duintasuna babesteko. Erresistentzia antolatua, fisikoa edo armatua izan daiteke, Varsoviako Ghettoaren Altxamenduan bezala. Kulturala ere izan daiteke, eskoletan, jantoki sozialetan eta ghettoetan sortutako talde artistiko askotan gertatu zen bezala. Espirituala ere izan daiteke (adibidez, kontzentrazio-esparruetan jai juduak ospatzen jarraitu zuten).

Erromaniera: erromaniek hitz egiten duten hizkuntza.

Eslaviarrak: Europako talde etniko eta linguistikoa. Eslaviarrak Erdialdeko, Ekialdeko eta Hego-ekialdeko European, Baltikoko herrialdeetan eta Erdialdeko Asian bizi dira batez ere. Kulturalki anitzak dira eta erlijio ezberdinak praktikatzen dituzte; esaterako, katolizismoa, protestantismoa, kristautasun ortodoxoa edo islama. Eslaviar hizkuntza batzuek idazkera zirilikoa erabiltzen dute; beste batzuek, ordea, latina. Badira biak erabiltzen dituzten hizkuntzak ere. Historian zehar, herri eta nazio eslaviarrek askotariko esperientzia historikoak eta harremanak izan dituzte, bai euren artean, bai talde ez eslaviarrekin.

Esparruko burdela: nazien buruzagiek uste zuten posible zela kontzentrazio-esparruetako presoek produktibitatea handitzea, atxilotueisari-sistema bat eskainiz. Gogor lan egiten bazuten, esparruko burdelera joateko baimena ematen zieten sari gisa. Hamar kontzentrazio-esparruk burdelak zituzten (Mauthausen, Buchenwald, Dachau eta Flossenbürg, besteak beste). SSetako guardiek burdelak ikuskatzen zituzten; haiek ziurtatzen zuten preso bakoitzak ez zituela 15 minutu baino gehiago igarotzen barruan, eta sexu-harremanak misiolariaren jarreran baino ez zituztela. Emakume ez-juduei bizi-baldintza hobekak eta janari-anoak agintzen zizkieten, prostituta gisa jardun zezaten.

Esparruak: espetxeratze-zentroak, SSen administraziopean. Presoak berme prozesalik gabe kartzelaratzen zituzten, atxiloteta-legeei uko eginez. 1933 eta 1945 bitartean, 44.000 kontzentrazio-esparru eta beste espetxeratze-zentro batzuk (ghettoak, esaterako) ireki zituzten Alemanian eta Alemaniak okupatutako Europako lurraldeetan. Naziek hainbat kontzentrazio-esparru ireki zituzten SSen, militarren, poliziaren edo zibilen administraziopean (lan-, trantsizio-eta sarraski-esparruak barne).

Esparruak - kontzentrazio-esparruak: guardia armatuek zaintzen zituzten atxilotze-gune erraldoiak. Presoak inolako prozesu judizialik gabe eta denbora mugagabean atxilotzen zituzten. Lehen kontzentrazio-esparruen (1930eko hamarkadan) helburu nagusia naziek erregimenaren biziraupenerako mehatxutzat jotzen zituzten mugimendu politiko, sozial eta kulturaletako buruzagiak espetxeratzea eta beldurtzea zen. Nazien lehen kontzentrazio-esparrua Dachau izan zen; 1933ko martxoan ireki zuten, Munichetik gertu.

Esparruak - errefuxiatu-esparruak: Bigarren Mundu Gerraren amaieran, hainbat jende bizirik atera zen ghettoetatik eta kontzentrazio-esparruetatik, edo European zehar ezkutatuta zeuden. Askok ez zuten nora joan. Errefuxiatu-esparruak ezarri ziren Alemanian, Austrian eta Italian, aldi baterako instalazio gisa, desplazatuak beren jatorrizko herrialdeetara noiz itzuliko zain. Indar militar aliatuak eta Nazio Batuen Sorospen eta Errehabilitazio Administrazioa eremuak kudeatzeaz arduratu ziren.

Esparruak - sarraski-esparruak: hilketa sistemikoak gauzatzeko esparruak. Gehienetan bertara iritsi bezain laster hiltzen zituzten atxilotuak (gasaren bidez, batik bat). Hiru milioi pertsona inguru hil zituzten guztira sei sarraski-esparrutan. Hauek ziren sarraski-esparruak: Auschwitz II-Birkenau, Bełżec, Chełmno, Majdanek, Sobibor eta Treblinka.

Esparruak - bortxazko lanen esparruak: naziek lan-esparru hauek erabili zituzten presoak esplotatzeko, haiengandik

onura ekonomikoa ateratzeko eta eskulan eskasiari aurre egiteko. Presoek ez zuten ekipamendu, arropa edo elikadura egokirik, eta ez zieten behar adina atseden hartzen uzten.

Esparruak - trantsizio-esparruak: aldi baterako barneratze-zentroak, atxilotuak beste esparru batzuetara eraman aurretik. Kontzentrazio- edo sarraski-esparruen aurreko azken geldialdia izaten ziren.

Eugenesia: iritzi eta praktika multzoa, giza talde baten genetika "hobetzeko" helburuarekin. Horretarako, talde horien ugalketa kontrolatzen edo hautatzen da, ezaugarri genetiko "desiragarriak" areagotzeko.

Eutanasia: eragindako eta minik gabeko heriotza, gaixotasun kroniko edo terminal bat amaitzeko. Alemania nazian, ordea, "eutanasia" eufemismo bat zen, naziek buruko gaixotasunak eta ezintasun fisikoak zituzten pazienteak sistematikoki hiltzeko (haien eta haien familien baimenik gabe) programa izendatzen zuena.

Ezkutatutako haurrak: nazien jazarpenetik ihes egiteko ezkutatu ziren haurrak (juduak, batez ere). Identitatea aldatzen zuten eta batzuetan kanpoko mundutik fisikoki ezkutatzen ziren. Guraso askok familia kristauen edo erakunde erlijiosoen zaintzapean utzi zituzten seme-alabak. Bertan, haur "ariarrak" izatearen itxurak egiten zituzten. Beste batzuek atikoetan edo sotoetan ezkutatu behar izan zuten, kanpoko munduaren ikusmenetik kanpo.

Frankismoa (Francisco Francoren diktadura): 1939tik 1975era bitartean, Francisco Franco jeneralak Espainia gobernatu zuen, Espainiako Gerra Zibiletik (1936-1939) garaile atera ondoren. Francok diktadura militarra ezarri zuen, Italia faxistarekin eta Alemania naziarekin harreman adiskidetsuak izan zituen. Erregimen frankistak giza eskubideak urratu zituen (jazarriak aurkari politiko eta ideologikoak izan ziren gehien bat). Esaterako, kontzentrazio eta bortxazko lanen esparruak ireki zituzten, eta disidenteak exekutatu.

Faxismoa: nazioa eta, sarritan, arraza, gizabanakoaren gainetik jartzearen aldeko mugimendu eta filosofia politikoa. Faxismoaren ezaugarrien artean, honako hauek nabarmentzen dira: estatu totalitario zentralizatua, buruzagi diktatoriala; nazioaren hedapena (indar militarren bidez, batez ere) eta benetako edo irudimenezko aurkariak indarrez desagerraraztea.

Führer: alemanezko hitza; "buruzagi" esan nahi du. Adolf Hitlerrek bere burua führer (hau da, Alderdi Naziko buru) izendatu zuen. Geroago, Hitlerrek kantziler eta führer karguen funtzioak hartu zituen, Alemaniako diktadore bilakatu.

Garbiketa etnikoa: toki zehatz batzuetatik talde etniko edo erlijioso jakin bateko biztanleria zibila ezabatzeke berariazko politika, beste etnia edo talde erlijioso batek behartutakoa. Garbiketa etnikoak biztanleak lekualdatzea, deportatzea edo hiltzea har ditzake barne.

Gas-ganberak: dutxa-orburuak zituzten gela handi eta isolatuak, gas pozoitsua erabiliz sarraski-esparruetako presoak hiltzeko. Preso asko gas-ganberetara sartu ziren dutxak zirelakoan.

Gay: sexu-joerari dagokionez, bere sexuak erakartzen dutena.

Gemeinschaftsfremde: termino honekin ("arrotz" esan nahi du), naziek komunitate nazionalako (Volksgemeinschaft) kide izateko "ezgaitzat" jotzen zituzten pertsonak izendatzen zituzten, hala nola aurrekari penalak zituzten pertsonak edo etxegabeak.

Genero-identitatea: generoari dagokionez, nork bere buruaz duen pertzepzioa. Genero-adierazpena ez bezala, gainerakoek ezin dute genero-identitatea kanpotik hauteman. Generoa eraikuntza soziala da, pertsona bat hainbat identitatearen arabera sailkatzen duena: gizona, emakumea edo beste bat. Ez dator beti bat jaiotzean esleitutako sexuarekin. Generoa ezaugarri sozial, psikologiko eta emozionaletan oinarritzen da, askotan gizartearen aginduen eraginpean.

Genero ez-adostasuna: gizarteak ezarritako genero-arauekin bat ez etortzea. Terminoak genero-adierazpena edo genero-ezaugarriak hartzen ditu barne (hau da, pertsona baten itxura eta janzkera), eta baita genero-arauetara egokitzen ez diren jokabideak, lehentasunak eta rolak ere. Genero ez-adostasunak ez du esan nahi pertsona bat transgeneroa edo ez-binarioa denik, nahiz eta aukera biak posible izan.

Generalplan Ost: Ekialdeko Europa alemaniarrekin kolonizatzeko eta birpopulatzeko nazien plana. Horretarako, naziek "ez-ariar" gisa sailkatzen zituzten pertsonak kanporatuko edo esklabo bihurtuko zituzten, juduak hilko, eta alemaniar etnikoak jenderik gabeko lurraldeetan kokatuko. Lurralde horietan nazio okupatuak zeuden, hala nola Polonia, Baltikoko herrialdeak, Bielorrusia, Ukraina eta Errusiako eremu batzuk.

Genozidio: gizatalde baten suntsiketa planifikatua eta antolatua. Genozidioaren biktimak arraza, erlijio, etnia (kultura) edo naziotasunagatik hiltzen dituzte.

Gerra Hotza: nazioen arteko gatazka, ekintza militar zuzenik ez dakarrena (alegia, "gerra beroa"); aitzitik, liskarrak ekintza ekonomiko eta politikoen, propagandaren edo espioitzaren bidez bideratzen dira nagusiki. Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren arteko etsaitasun ekonomiko, politiko eta militarren aldia deskribatzeko erabiltzen da, 1945etik 1991ra.

Gerra-presoei buruzko Genevako Konbentzioa: 37 herrialdek 1929ko uztailaren 27an sinatutako hitzarmena, Lehen Mundu Gerraren ondoren gerra-presoei emandako tratua arautzeko.

Germanizazioa: alemaniar herriaren, hizkuntzaren eta kulturaren hedapena. Alemania nazian, germanizazioa arrazan oinarritutako politika bat izan zen, Alemaniak okupatutako lurraldeak alemaniarrekin populatzeko nahiarekin. Horrek genozidioa eragin zuen nazien ustez arrotzak ziren herrien aurka (juduak, besteak beste).

Gestapo: "Geheime Staatspolizei" erakundearen akronimoa (Estatuaren

Polizia Sekretua). 1933ko apirilean sortua, nazien erregimenaren aurkako oposizio oro ikuskatzen eta zapaltzen zuen. Gestapok askatasun osoa zuen Alemania nazien etsaitzat jotzen zen edozein pertsona zelatzeko, atxilotzeko, galdekatzeko edo deportatzeko.

Ghettoa: talde minoritario bat bizi den hiri baten eremua, beste auzo batzuk baino pobregoa izaten dena. Naziek ghettoak sortu zituzten Alemaniak okupatutako lurraldeetan, juduak eta, batzuetan, erromaniak bereizteko. Ghettoek baldintza latzak zituzten ezaugarri, hala nola pilaketa eta malnutrizioa. Alanbre-arantzadunez edo hormaz inguratuta egoten ziren. 1942an, naziak juduak kontzentrazio- eta sarraski-esparruetara sistematikoki deportatzen hasi ziren, eta aldi berean ghettoak suntsitu zituzten.

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea: giza eskubideak errespetatzea, babestea eta gauzatzea helburu duten arau-multzoa. Giza eskubideen nazioarteko legediaren arabera, estatuak ez dute giza eskubideen erabilera oztopatu edo murriztu behar; are gehiago, behartuta daude pertsonak eta taldeak giza eskubideen aurka babestera.

Gizatasuna kentzea: pertsona edo talde bat gizakia ez balitz bezala hartzea, irudikatzea edo tratatzea dakarren prozesua. Horrek indarkeria, giza eskubideen urraketak, gerra-krimenak eta genozidioa eragin ditzake.

Gleichschaltung: koordinazioa edo sinkronizazioa. Prozesu horren bidez, Alderdi Naziaren ideologian oinarritutako gobernu eta gizarte uniformeak ezarri ziren. Horretarako, oposizio politikoa legez kanpo utzi zen, eta alderdi bakarreko estatua ezarri.

Gulag: Sobietar Batasuneko bortxazko lanen sistemaz, atxilotze- eta trantsizio-esparruez eta espetxeez arduratu zen erakundea (1920tik 1950eko hamarkada bitartean). 1920ko hamarkadaren amaieran, 100.000 preso inguru zeuden gulagetan; 1930eko hamarkadan, berriz, 5.000.000. Presoen artean pertsona mota asko zeuden, besteak beste: aurkari politiko eta disidenteak, gerra-presoa, desleialkeriagatik salatutako gutxiengo

etnikoak, soldadu sobietarrak, alemanek preso hartutako beste herritar batzuk edo ustezko sabotatzaileak eta traidoreak.

Heretikoa: erakunde erlijiosoetan, finkatutako sinesmen-sistemaren aurkako iritziak dituen pertsona.

Heriotzaren martxak: gatibuen (esaterako, gerra-presoa) ibilbide behartuak. Ibiltariak bidean hiltzen ziren askotan. Bigarren Mundu Gerraren amaierarako gutxi falta zenean, naziek kontzentrazio-esparruetako presoak Alemaniako mendebalderantz eraman zituzten, indar aliatuen aurrerapenetik urrun. Martxa horietan, presoek tratu bortitza jasaten zuten giro latz batean.

Hlinka guardiak: Eslovakiako Alderdi Popularrak sortutako milizia, nazien aldekoa (1938-1945). Taldeko kideek prestakuntza militarra jasotzen zuten, uniforme beltzak janzten zituzten eta propaganda nazia erabiltzen zuten (adibidez, besoa altxatuta agurtzen zuten, Hitlerrek egiten zuen bezala). Naziekin kolaboratu zuten pertsonak atxilotzen eta deportatzen, batez ere judu eslovakiarrak. Gertaera bat garapen historikoaren emaitza gisa interpretatzeko prozesua.

Homogeneizazioa: pertsona-talde baten irudi publikoa deformatzeko prozesua, modu uniformean eta desberdintasunik gabe irudikatzen. Elementu desegokiak edo bereizgarriak alde batera uzten dira, eta taldearen identitatea ezaugarri komun gutxi batzuetara mugatzen da, hala nola erlijioa edo nazionalitatea.

Homofobia/antihomosexualitatea: LGBTQIA+ pertsonenganako gorrotoa eta beldurra. Beldurra eta gorrotoak eragindako aurreiritziak, diskriminazioa, jazarpena eta indarkeria-ekintzak hartzen ditu barne. Homofobia gizabanakoetan, erakundeetan eta gizartean gertatzen da.

Identifikazio-ikurrak: esleitutako zenbakiarekin batera, kontzentrazio-esparruetako presoek kolore jakin bateko triangelu bat josi behar izaten zuten beren jaka eta galtzetan. Hala ere, presoak talde batean edo bestean sartzea oso erabaki arbitrarioa zen batzuetan. Izan

ere, presoek aukeratutako kategoriako kide izateari buruz zuten iritzia kontuan izan gabe hartzen zen erabakia.

Identifikazio-ikurrak (triangelu beltza): nazionalsozialistek "asozialtzat" jotzen zituzten pertsonak identifikatzeko erabiltzen zen.

Identifikazio-ikurrak (triangelu urdina): emigranteak identifikatzeko erabiltzen zen, batez ere 1933an naziak boterera iritsi ondoren herrialdea utzi izan zuten eta geroago itzuli ziren alemaniarak. Espioitza leporatzen zieten.

Identifikazio-ikurrak (triangelu marroia): Ijituak (erromaniak eta sintiak) identifikatzeko erabiltzen zen.

Identifikazio-ikurrak (triangelu berdea): delitugileak identifikatzeko erabiltzen zen. Talde horretan delitu txikiengatik zigortutako pertsona asko ere bazeuden, nazionalsozialisten komunitate idealean sartzen ez zirenak.

Identifikazio-ikurrak (triangelu arrosa): homosexualak identifikatzeko erabiltzen zen. Identifikazio-ikurrak (triangelu morea): Jehovaren lekukoak identifikatzeko erabiltzen zen.

Identifikazio-ikurrak (triangelu gorria): sozialdemokratak, komunistak, sindikalistak eta naziek aurkari politikotzat jotzen zituzten beste pertsona batzuk identifikatzeko erabiltzen zen.

Identifikazio-ikurrak (triangelu horia): juduak identifikatzeko erabiltzen zen. Beste kolore bateko triangelua zeramatenek alderantzizko triangelu hori bat ere jartzen zuten azpian; horrela, Daviden izarra osatzen zuten triangelu biek.

Ikuspegi anitzak: gertaera historikoak, pertsonalitateak, gauzen bilakaera, kulturak eta gizarteak hainbat ikuspegitik aztertzen diren modua.

Ijituak Ijituak (erromani) eta sintiak: Hungariatik eta Ekialdeko Europako beste leku batzuetatik iritsi ziren Europara duela 600-700 urte. Mendeetan zehar, europarrak

ijituenbeldur izan ziren, eta mesfidantza zieten. Hainbat arrazoiengatik, ijitu asko ez ziren komunitate zehatzetan finkatu eta, aitzitik, nomada izaten jarraitu zuten. Ondorioz, jende askok kanpotartzat hartzen zituzten. Mota guztietako delituak egozten zizkieten, eta "antisozialak" eta "alferrak" deitzen zieten.

Indar aliatuak eta Ardatzaren potentziak: Bigarren Mundu Gerran, bi nazio talde elkarren aurka borrokatu ziren: aliatuak eta Ardatzaren potentziak. Alde batetik, Britainia Handia, Estatu Batuak eta Sobietar Batasuna nazioarteko koalizio militar baten buru izan ziren (indar aliatuak edo aliatuak). Bestetik, Alemania nazia, Japoniar Inperioa eta Italia faxista ziren Ardatzeko potentzia nagusiak.

Inplikaturako pertsonak: botere- eta pribilegio-posizioak betetzen dituzten pertsonak, beraiek gaizkiaren zuzeneko eragile izan gabe. Inplikaturako pertsonak erregimen totalitarioak sendotzen laguntzen dute; izan ere, erregimen horiek sortu edo kontrolatu ez arren, horietan bizi dira eta etekinak ateratzen dituzte. Halaber, baliteke sistemaren oinordeko politikoak izatea. Inplikaturako pertsona bat ez da biktima edo erasotzailea, rol horiek sortzen dituzten gizarte-egituretan parte hartzen duen norbait baizik. Hala da, baita rol zehatza ez badu ere.

Interseksionalitatea (Elkargunea): generoan, arrazan, etnien, sexu-orientazioan, genero-identitatean, desgaitasunean, gizarte-klasean eta beste diskriminazio batzuetan oinarritutako desberdintasun-sistemen arteko interseksioak edo elkarguneak. Elkargune horiek berariazko dinamikak eta ondorioak eragiten dituzte. Adibidez, Bigarren Mundu Gerran, naziek bi "arrazoi" zituzten sobietar komunistak jazartzeko: etnia eta ideologia politikoa.

Intersexualak: esku-hartze medikorik gabe, gizon edo emakume izatearen definizio sozialekin bat ez datozen lehen edo bigarren mailako ezaugarri sexualak garatzen dituzten pertsonak. "Intersexual" hitzak ez du "ez-binario" edo "transgenero" esan nahi. Azken horiek genero-identitatearekin lotutako terminoak dira.

Ijitufobia: ijituen aurka zuzendutako arrazakeria (sintiak, erromaniak eta beste talde ibiltari batzuk barne).

Jehovaren Lekukoak: 1870eko hamarkadan Estatu Batuetan sortu zen talde erlijioso kristaua. Taldeak ez ditu estatuaren sinboloak gurtzen, hala nola banderak edo ereserkiak, eta ez du armarik hartzen gerra garaian. Horregatik, Jehovaren Lekukoak sarritan izan dituzte gatazkak gobernuekin, eta jazarriak izan dira. Alemaniako eta beste hainbat herrialdeetako 10.000 Jehovaren lekuko inguru kontzentrazio-esparruetan sartu zituzten Bigarren Mundu Gerran. Horietatik 2.500 hil ziren.

Juduen Azken Azken Konponbidea: eufemismo honekin ezagutzen da naziek judutzat jo zituzten pertsonen aurkako genozidioa. Erregimenak Europan bizi ziren judu guztien bi heren inguru hil zituen.

Juduen ondarearen gaineko zerga (Judenvermögensabgabe): erregimen naziak juduak zigortzeko onartutako zerga (1938ko azaroaren 10ean). Nazien arabera, juduak Alemaniaren aurkakoak ziren eta dirutza egin nahi zuten. Zerga hori ordaindu behar zuten 5.000 Reichsmark baino gehiagoko aktiboak zituzten juduek. Guztira, juduen "ekarpena" mila milioi Reichsmark baino gehiagokoa izatea espero zen.

Juduak edo herri judua: komunitate juduko kideak edo erlijio/kultura juduaren jarraitzaileak. Herri juduaren erlijioa judaismoa da. Talmud da judaismoaren testu nagusia da, eta Tanakh izenez ezagutzen diren hebreerazko idazki-bilduma batean oinarritzen da. Nazionalsozialistek berariazko arrazataldetzat jotzen zituzten "juduak". Beraz, naziek kategoria horretan sartu zituzten pertsona batzuk ez ziren nahitaez erlijio edo kultura juduaren jarraitzaileak.

Judu-boltxebismoa: komunismoa mundua menderatzeko konplot judua dela dioen mitoia.

Justizia trantsizionaleko neurriak: Nazio Batuen arabera, gizarte batek

iraganeko gehiegikeria masiboak bere gain hartzeko erabiltzen dituen prozesu eta mekanismoen multzoa, kontuak emateko, justizia egiteko eta adiskidetzea bultzatzeko. Mekanismo judizialak eta ez-judizialak barne har ditzakete, nazioarteko inplikazio-maila desberdinekin (edo bat ere ez). Neurri horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: banakako epaiketak, kalte-ordainak, egiaren bilaketa, erreforma instituzionalak, aurrekarien ikerketa, arduradunak kargutik kentzea edo horren guztiaren konbinazio bat.

Kaltegileak: nazionalsozialismoaren kaltegileak dira jazarpen eta hilketa masiboen arduradun ziren buruzagiak. Hala ere, delitu horiek egiten lagundu zuten beste pertsona batzuk ere kaltegileak izan ziren, bakoitzak bere erara eta zeregin desberdinak betez. Nazien krimenetan parte hartu zuten pertsonen kopuru handiagatik, gerraosteko prozesu judizialek (Nurenbergeko epaiketak kasu) politika eta ekonomia arloetako pertsona nabarmenenak auzipetu zituzten soilik. Beraz, kaltegile asko ez zituzten inoiz epaitu, ezta kondenatu ere.

Kapo (preso kartzelazaina): kontzentrazio-esparruetako presoak, SSek aukeratutakoak esparruetako beste preso batzuk eta zereginak ikuskatzeko. Kapoek gainerako preso-taldeak kontrolatzen zituzten eta SSetako ikuskatzaileen jarraibideak betearazten zituzten. Oro har, beste preso batzuen gaineko autoritatea zuen (SSek emandakoa) kontzentrazio-esparruetako edozein preso izendatzeko erabiltzen da terminoa.

Kielceko pogroma (matxinada): 1946ko uztailaren 4an, hainbat soldadu, polizia eta zibil poloniarrek 42 judu hil eta 40 baino gehiago zauritu zituzten Poloniako Kielce hirian. Kielceko sarraskia ez zen izan gerraosteko Polonian bizi izandako indarkeria antisemitaren kasu bakarra, baina judu askok Polonian etorkizunik ez zutela ulertu zuten orduan, eta herrialdetik ihes egitea erabaki zuten.

Kindererziehungslager: naziek sortutako haurrentzako esparruak, arrazaren aldetik ezaugarri "desiragarriak" zituzten neska-mutilak hautatzeko. Helburua germanizazioa zen.

Kindereuthanasie: buruko gaixotasunak eta dibertsitate funtzionala zituzten haurren hilketa; gutxienez 5.000 haur hil zituzten naziek.

Kindertransport: Alemania, Austria, Polonia eta Txekoslovakiako haur juduak Erresuma Batura bidaltzeko salbatze-ekimena. Kristal hautsien gauaren (Kristallnacht) ondoren antolatu zen, Erresuma Batuko gobernuaren, kuakeroen eta ongintza-erakunde judu eta britainiarren babesarekin. Ia 10.000 haur erreskatatu zituzten Bigarren Mundu Gerraren ondorioz programa eten aurretik.

Kolaboratzailea: erregimen nazionalsozialistarekin aktiboki lankidetzan aritu zen norbait, naziek mespretxatzen zituzten pertsonak diskriminatuz, jazarritik edo hilez. Alemania nazien aliatu ziren herrialde eta gobernuak ere hartzen ditu terminoak bere baitan.

Kolonialismoa: potentzia batek menpeko lurralde edo herri batean duen jabegoa edo kontrol-sistema. Nazio batek beste bat zapaltzen duenean gertatzen da kolonialismoa. Horretarako, jatorrizko biztanleak konkistatu eta esplotatu egiten ditu herrialde kolonizatzaileak, eta, sarritan, hizkuntza eta kultura-balio arrotzak inposatzen dizkio. 1914ra arte, europarrek munduko nazio gehienak kolonizatu zituzten noizbait.

Komisarioen agindua: Sobietar Batasuneko komisario politikoak armada sobietarra antolatzeko eta politikoki hezteko ardura zuten ofizialak ziren. 1941eko ekainaren 6an, Wehrmacht-eko Goi Agintean "Komisarioaren agindua" eman zuen, alemaniar tropek preso hartutako edozein komisario politiko sobietar fusilatzeke.

Komunismoa: ideologia politiko eta ekonomikoa, gobernu klase sozialik gabeko gizarte batean oinarritu behar dela aldarrikatzen duena. Halaber, komunismoaren arabera, erabaki politiko eta produktiboak gizarte osoaren onerako hartu behar dira. Komunismoaren jarraitzaileek gizartearen ekoizpen-bideak jabetza komunekoak izan behar direla uste dute, eta guztiek neurri berean eduki

eta kontrolatu behar dituztela ondasunak eta enpresak.

Konplizitatea: pertsona biren edo gehiagoren arteko partaidetza legez kanpoko edo moralki okerra den jarduera batean.

Kontrabando: salgaiak edo pertsonak herrialde batean sartzea, legez kanpo eta ezkutuan.

Kristallnacht: Kristal hautsien gaua. Botereak juduen aurka planifikatutako istilu bortitzak. 1938ko azaroaren 9an eta 10ean gertatu ziren, Alemanian eta Austrian, nazien indar paramilitarren, alderdiko kideen eta zibilen eskutik. Juduen milaka etxe, negozio eta sinagoga suntsitu zituzten. 100 judu inguru hil ziren eraso gertatu eta berehala. Gainera, beste 30.000 atxilotu zituzten, eta kontzentrazio-esparruetara eraman. Gertaera honi azaroko pogroma ere esaten zaio.

Kuakeroak: Lagunen Elkarte Erlijosoa ere esaten zaie. Talde kristaua dira, zeremoniarik eta erritu formalik ez duena eta indarkeriaren eta gerraren aurka dagoena. Karitatezko eta gizaldeko egintzetan aktiboki parte hartzen dute.

Kultura-ondarea: adierazgarritasun kulturala duen talde edo gizarte baten ondasunak (esaterako, garrantzi sinbolikoa, historikoa, artistikoa, estetikoa, zientifikoa edo soziala dutenak). Kultura-ondarea materiala (objektuak edo leku fisikoak) eta immateriala (ohiturak edo tradizioak) izan daiteke.

Laguntza humanitaria: krisi eta hondamendietan (eta horien ondoren) bizitzak salbatzeko, sufrimendua arintzeko eta giza duintasuna mantentzeko emandako laguntza. Egoera horiei aurre hartzeko eta erantzuteko prestakuntza indartzea ere du helburu.

Langile zibilak: Alemania nazian, militarrek ez ziren eta erregimenaren alde lan egitera behartuta zeuden pertsonak. Gerraren lehen urteetan, Alemaniako enplegu- eta kontratazio-bulegoek beste herrialde batzuetan baino bizi- eta lan-baldintza hobek agindu zituzten.

Kontratazioen kopuruak behera egin zuenean, okupatzaile alemaniarrek neurri hertsatzaileak hartu zituzten, eta langileak Alemaniako Reichera deportatzen hasi ziren. Behartutako langile zibil gehienak poloniar eta sobietarrak ziren.

Lebensborn: 1935ean naziek Alemanian eta Alemaniak okupatutako lurraldeetan haur "ariarren" kopurua handitzeko abian jarri zuten proiektua. Naziek arrazaren aldetik "desiragarritzat" jotzen zituzten emakumeek instalazio sekretuetan erditzeko aukera zuten; SSak, berriz, haurrak hezteaz eta adopzioan emateaz arduratzen ziren. Programak, halaber, Alemaniak okupatutako lurraldeetan nazien arraza-irizpideak betetzen zituzten haurrak bahitzea ahalbidetzen zuen.

Lege Gaitzailea: Alemaniako Parlamentuak 1933ko martxoaren 23an onartutako legea, Hitlerren gobernuari parlamentuaren edo presidentearen onespentik gabe legeak onartzeko eskubidea ematen ziona. Lege horri esker, Hitlerrek eta naziek botere absolutua bereganatu zuten eta "estatuaren etsaitzat" jotzen zuten edonor zigor zezaketan, baita gizabanakoen eskubideak urratuz ere.

Lesbiana: emakumez mintzatuz, bere sexuak erakartzen dutena. LGBTQIA+: lesbianak, gayak, bisexualak, transexualak, queerrak, intersexualak, asexualak edo jaiotzean esleitutako genero-identitatea zalantzan jartzen duten beste pertsona batzuk. Hala ere, termino gehiago erabiltzen da haien genero-identitatea edo sexu-orientazioa arau zisgeneroekin eta heterosexualekin bat ez datozen pertsonak izendatzeko.

Lekukoa: gertaera bat ikusi edo entzun duen pertsona, horretan parte hartu gabe. Terminoa bi modutara erabiltzen da nazionalsozialismoari dagokionez. Lehenengoak kanpoko edo nazioarteko "lekukoak" izendatzen ditu (irudizko adieran, gertakarietatik oso urrun baitzeuden). Bigarrenak, aldiz, gertakariak gertatu ziren gizarteko kideak izendatzen ditu, sarritan zuzeneko lekukoak. Proiektuhonetan erabiltzen den adiera da.

Masoneria: Masoi Libre eta Onartuen gizonezkoen anaidiaren irakaskuntza- eta praktika-multzoa. Gaur egun, munduko elkarte sekretu handienetako bat da. Erdi Aroko harginen eta katedralen eraikitzaileen gremioetan du jatorria. Erliio antolatuak, hala nola Erromatar Eliza Katolikoa, eta estatu batzuk masoneriaren aurka agertu dira hasieratik.

Musulman: Islam erlijoaren jarraitzailea. Musulmanek Jainkoaren hitza Koranean idatzita dagoela uste dute, eta Mahoma profeta islamiarraren irakaspenak jarraitzen dituzte. Korana Islamaren liburu sakratua da.

Nazien ehiztariak: naziei, SSetako kideei edo garaiko Alemanian gerra-krimenak egin zituzten kolaboratzaileei buruzko informazioa bilatzen zuten pertsonak edo taldeak.

Nurenbergeko arraza-legeak: Alemaniako parlamentuak 1935eko irailaren 15ean Nurenberg hirian onartutako lege antisemitak eta arrazistak. Lege horiekin, nazionalitatea kendu zieten Alemaniako juduei, eta debekatu egiten zituzten "ariar" eta "ez-ariar" (juduak, bereziki) gisa sailkatutako pertsonen arteko ezkontzak eta sexu-harremanak. Judua nor zen erabakitzeke, legeak leinuan oinarritu ziren. Bi lege nagusietan arau osagarriak gehitu ziren, juduak Alemaniako eremu politiko, sozial eta ekonomiko guztietatik kanporatzeko.

Nurenbergeko epaiketak: aliatuek 1945etik 1949ra bitartean Nurenberg hirian buruzagi nazien aurka egindako epaiketak, Bigarren Mundu Gerrako krimenak zigortzeko. Pertsona epaituen artean militarrek, politikariak, planifikatzaile ekonomikoak eta industrialariak zeuden.

Paramilitarra: armada profesional moduan funtzionatzen duen baina herrialde bateko indar armatu ofizialen parte ez den talde armatua eta antolatua.

Partisanoa: okupazio-indar baten aurka borrokatzen duen erresistentzia armatuko taldekidea. Bigarren Mundu Gerran, Alemaniak okupatutako lurraldeetan armetan altxatu ziren borrokalariak

izendatzeko erabili zen terminoa, bereziki Jugoslavian, Ekialdeko Europan eta Italian. Pogroma: talde jakin baten aurkako eraso bortitza, batez ere juduen aurkakoa.

Praktika Maltzurren Legea: 1933ko martxoaren 21ean onartutako legea, gobernu berriaren aurka hitz egitea edo agintariak kritikatzeko delitu bihurtu zuena. Disidentzia-adierazpen txikiak ere delitua ziren, eta batzuetan pertsonak atxilotu eta espetxera edo kontzentrazio-esparrura bidaltzen zituzten, "marmarrean aritzea" edo gobernu funtzionarioei "iseka egitea" egotzita.

Propaganda: gobernu edo alderdi politiko batek ikuspuntu edo kausa bat bultzatzeko erabiltzen duen informazio faltsua edo partzialki faltsua.

Queer: heterosexuala eta zisgeneroa ez diren sexu- eta genero-identitateak. Batzuetan, lesbianek, gayek, bisexualek eta transexualek "queer" hitza ere erabiltzen dute beren burua identifikatzeko. Sexualitatea eta generoa korapilatsuak izan daitezkeela adierazteko erabiltzen da "queer" hitza batzuetan; bata zein bestea denborarekin alda daitezke eta baliteke kategoria finkoekin bat ez etortzea.

"Queer" generoa: "queer" terminoaren inguruan eraikitako genero-identitatea. "Queer" hitzak arau heterosexualekin edo homosexualekin bat ez datorren izaera bat izendatzen du. Pertsona baten sexu-orientazioa deskribatzeko erabiltzen den arren, genero-identitate ez-binarioak ere adieraz ditzake.

Rassenschande: "arrazalotsa" bezala itzul daiteke. Naziak termino hori erabili zuten pertsona "ariarren" eta "ez-ariarren" arteko sexu-harremanak izendatzeko.

Renaniako sasikumeak: ama alemaniarra eta jatorri afrikarreko aita frantsesa (Lehen Mundu Gerraren ondoren okupatutako Renanian zabalduko soldaduak) zituzten haurrak izendatzeko mespretxuzko terminoa.

Schutzstaffel (SS): Alemania nazian eta alemanek okupatutako Europan jarduten zuen erakunde paramilitarra

("babes-eskuadroia" esan nahi du). Nazien erregimenaren erakunderik boteretsuenetako bat izan zen, jendea zelatzeko eta izutzeko erabili zena. Gainera, SSek arraza-politikak aplikatzen zituzten eta kontzentrazio- eta sarraski-esparruak administratzen zituzten.

